

# Pentsamendua XXI. mendean



Giza parkerako arauak (Sloterdijk eztabaida)



Globalizazioa edo inperialismoa? IGNACIO AYESTARAN



Intelektualak eta politika. EMILIO LOPEZ ADAN



Intelektual bertsolariaren garaia. MARIO ZUBIAGA



*Iritzi bilketa:* • JOXE AZURMENDI • JUAN BAUTISTA BENGOETXEA  
• JOSE MARIA CABO • EDUARDO GIL BERA  
• ELENA MARTINEZ • JOSEBA ZULAIKA

*Egunen gurpilean*

JOSEBA BALERDI • URTZI URRUTIKOETXEA  
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

# JAKiN

*122*

urtarrila  
otsaila  
2001



*Aldizkari hau ARCEko kidea da*  
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)

---




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura  
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*

---



*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

## *Aurkibidea*



### *Zenbaki honetan*

---

► 7

### *Gai nagusia*

---

#### Pentsamendua XXI. mendean

Giza parkerako arauak (Sloterdijk eztabaida) ► 11

General Intellect & CIA: globalizazioa edo inperialismoa? ► 31  
IGNACIO AYESTARAN

Intelektualak eta politika ► 55  
EMILIO LOPEZ ADAN

Intelektual bertsolariaren garaia ► 69  
MARIO ZUBIAGA

*Iritzi bilketa:* Pentsamenduaren norabideak XXI. mendean ► 83  
JOXE AZURMENDI / JUAN BAUTISTA BENGOETXEA / JOSE M<sup>a</sup> CABO /  
EDUARDO GIL BERA / ELENA MARTINEZ / JOSEBA ZULAIKA

### *Egunen gurpilean*

---

JOSEBA BALERDI • URTZI URRUTIKOETXEA ► 127  
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

© JAKIN

JAKINeko idazlanean inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jalgi.com

---

2001eko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	6.000 pzta. (36,06 euro)	—
Ale arrunta	1.000 pzta. (6,01 euro)	1.350 pzta. (8,11 euro)
KANPOAN		
Harpidetza	6.500 pzta. (257 FF / 39,07 euro)	—
Ale arrunta	1.100 pzta. (43,5 FF / 6,61 euro)	1.550 pzta. (61,29 FF / 9,32 euro)

## Summary



### Thought in the 21st century

- *Rules for the human park*

We offer the partial translation of a conference given by Peter Sloterdijk in July 1999 in Basel, in which the author, following the trail of Heidegger, announces the end of humanism and classic philosophy as plans for human training and education. Furthermore, the author seems to suggest, as an alternative, a new «anthropo-technique», a human genetic park based on new eugenics. Thus, this conference has given rise to what is known as the Sloterdijk-debate (or the Sloterdijk-Habermas scandal).

- *General Intellect & CIA: globalisation or imperialism?*

The professor Ignacio Ayestaran places us in the frame of a new historic moment: the institutionalisation of globalisation. Or should we be talking about new imperialism by the USA and the CIA? The author delves into the fundamentals of this new form of power (new slavery, ecological imperialism, technosocial apartheid, military expansionism, single thought...) and the reaction that it provokes both among the intelligentsia and civil society. ► IGNACIO AYESTARAN

- *Intellectuals and politics*

The writer Emilio Lopez Adan analyses the difficult and at times contradictory relations between intellectuals and political practice. Particularly, the author centres on a particular model of intellectual: the intellectual who is committed to the common people, strives for freedom in political apparatus and stretches his capacity for dissent with power to the limit. Lopez Adan competes the picture of this type of intellectual, reflects on the reasons for his crisis and adds several notes about his future. ► EMILIO LOPEZ ADAN

- *The age of the bertsolari intellectual*

The professor Mario Zubiaga reflects on the role that intellectuals carry out in this current society of the global market. He proposes a typology of intellectuals following the criterion of the degree and type of participation of each one in social change. Therefore, we would have four types of intellectuals: the subversive or transformer, the guardian of «justice», the postmodern or cynic and the enlightened. Finally, the author underlines the particular challenges which the intellectual must face in basque society. ► MARIO ZUBIAGA

- *Opinions about thought trends in the 21st century*

The writers Joxe Azurmendi, Juan Bautista Bengoetxea, Jose Maria Cabo, Eduardo Gil Bera, Elena Martinez and Joseba Zulaika express their visions of thought trends in the 21st century. Thus, they touch upon, each one from a personal view, multiple questions: globalisation and new economy, single thought/plural thought, cultural uniformity and pluralism, the end of humanism and philosophy, reality and virtual world, the role of the intellectual in this new context... ► *Various Authors*



## News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Iñaki Martinez de Luna, Amatiño and Urtzi Urrutikoetxea. ► *Various Authors*



e skuetan duzun hau bigarren aldiko 122. zenbakia da eta 2001. urteko lehenengoa.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean, XX eta XXI. mendeen arteko iragaiteak aurrez-aurre jartzen dizkigun hainbat erronka eta galdekizunei heldu nahi izan diegu: humanismo eta filosofia klasikoaren amaiera, globalizazioa, inperialismo berria, ideologiaren etorkizuna, intelektualaren zeregin soziala... Beraz, auzi horiei eta horiekin erlazionatutako beste batzuei buruzko gogoetek taxutzen dute pentsamenduaren norabideei eta etorkizunari buruzko zenbaki hau.

Bost atalek osatzen dute sail hau. Lehenik eta behin, «Sloterdijk eztabaida» gisa ezagutzen dena aurkezten dugu. Ondoren hiru artikulu datoz, eta, azkenik, gai nagusiaren inguruan burututako iritzi bilketa bat.

Lehenik, bada 1999an Peter Sloterdijk filosofo alemanak emandako hitzaldi baten itzulpen partziala dakargu. Bertan, humanismo klasikoan oinarritutako heziketa sistemaren amaieraren, giza parke genetikoaren eta antropoteknikaren auziak jorratzen dira. Horregatik, eztabaida ikaragarria piztu du hitzaldiak Europan. Hitzaldiaren luzera dela-eta, Joxe Azurmendik lehen zatia laburtu du, eta bigarren zatia osorik itzuli du Eduardo Gil Berak.

Lehenengo artikuluan, Ignacio Aiestaran irakasleak egun bizi dugun une historikoa ezaugarritzen duen globalizazioaz dihardu. Bere ustez, ordea, globalizazio honek Estatu Batuen eta CIAren inperialismo berri baten antz handia



du. Botere modu honen oinarriak aurkezten dizkigu: esklabotza berria, inperialismo ekologikoa, apartheid teknosoziala, espantsionismo militarra, pentsamolde bakarra...

Ondoren, Emilio Lopez Adan idazleak intelektualaren eta jarduera politikoaren arteko erlazio istilutsu eta sarritan kontraesankorrak ditu gogoetagai. Zehatzago, intelektual konprometituaren erduan jartzen du arreta: «herri xehearekin konpromisoan finkatu dena, aparatu politikoei buruz askatasuna begiratu duena eta botereekin ados ez izateko gaitasuna bururaino atxiki duena». Intelektual honen irudia osatzen du Lopez Adanek, haren krisiaren zioen inguruan hausnartuz eta etorkizunari buruzko hainbat ohar eskainiz.

Hirugarren artikuluan, intelektualak merkatu globalaren egungo gizartean betetzen duen zeregina aztertzen du Mario Zubiaga irakasleak. Lau intelektual mota bereizten ditu Zubiagak, bakoitzak gizarte aldaketetan duen parte-hartzearen mailaren irizpidearen arabera: subertsibo-eraldatzailea, «zuzentasunaren» zaindaria, postmoderno eta ilustratua. Azkenik, Euskal Herriarentzako intelektual «propioa» aldarrikatzen du.

Sail honetako azken atalean sei aditurengana jo dugu XXI. mendean pentsamenduak har ditzakeen norabideei buruz galdeginez. Horrela, Joxe Azurmendi, Juan Bautista Bengoetxea, Jose Maria Cabo, Eduardo Gil Bera, Elena Martinez eta Joseba Zulaika idazle eta filosofian adituek, norberak bere ikuspegitik, hainbat auzi ukitzen dituzte beren artikuluetan: globalizazioa eta ekonomia berria, pentsamendu bakarra/anitza, kultur uniformizazio eta aniztasuna, humanismoaren eta filosofiaren amaiera, errealitatea eta mundu birtuala, intelektualaren eginkizuna egungo gizartean...

*Egunen gurrpilean* sailean sinadura berriak ditugu: Urtzi Urrutikoetxea idazleak heldu dio literatura atalari, Iñaki Martinez de Luna irakasleak soziolinguistikari buruzko gorabeherei eta Amatiño kazetariak komunikazioaren inguruko berriei. Kulturaren esparrua, iaz bezala, Joseba Balerdik jorratuko du.¶

# Pentsamendua XXI. mendean



Giza parkerako arauak (Sloterdijk eztabaida) • 11

General Intellect & CIA:  
globalizazioa edo inperialismoa?  
IGNACIO AYESTARAN • 31

Intelektualak eta politika  
EMILIO LOPEZ ADAN • 55

Intelektual bertsolariaren garaia  
MARIO ZUBIAGA • 69

*Iritzi bilketa:* Pentsamenduaren norabideak  
XXI. mendean

JOXE AZURMENDI / JUAN BAUTISTA BENGOETXEA / JOSE M<sup>a</sup> CABO /  
EDUARDO GIL BERA / ELENA MARTINEZ / JOSEBA ZULAIKA • 83

# Giza parkerako arauak

*(Sloterdijk eztabaida)*

**1** 997ko ekainaren 15ean, Basilean, humanismoaren gaurkota - sunari buruzko ziklo batean, Peter Sloterdijk filosofo alemanak honako hitzaldia eman zuen lehen aldiz: «Giza parkerako arauak». Bi urte beranduago Elmauren (Suitza) errepikatu zuen, Heidegger eta Levinasi buruzko jardunaldi batzuetan: humanismo klasikoan oinarritutako heziketa sistemaren amaieraren, giza parke genetikoaren eta antropoteknikaren auziak jorratzen dituen hitzaldi honek sekulako eztabaida piztu zuen, batik bat Alemanian eta Frantzian (Sloterdijk eztabaida, edo Sloterdijk-Habermas eskandalaria).

Ondoren, Sloterdijken hitzaldi liskar eragilea dakarkigu. Bere luzera dela-eta, ordea, bi zatitan banatu dugu: Joxe Azurmendik lehen zatiaren laburpena egin du, eta bigarrena osoa aurkezten dugu, Eduardo Gil Berak itzulita.

Humanismoa, funtsean, testu idatzien eremuan eta haien maitasunean burutu izan da. Humanitas deitzen duguna, Greziatik Erromara eta handik guganaino datorren gutunketa da. Humanistak, edo humanismoak, irakurgai kanoniko batzuen inguruan bilduriko mugimenduak, elkarre literario antzekoak izan dira guztiak.

Iraganean, irakurtzen jakitea gutxi-gutxiren jakitea zenean, irakurzaleak talde misteriotso bateko kideak bezala ziren. Batzuek alfabetoarekin munduaren barru sekretuak dexifratu ahal uste zituzten: kabala; beste batzuk, pragmatikoagoak, eskola nazional burgesaren ideologoak bilakatu dira XIX eta XX. mendeetan, eta gizarte literarioa gizarte politikoaren eredu bihurtzen ahalegindu dira: landua izateko, nazio guztiak autore eta testu berak irakurri

eta maitatu behar zituen («klasikoak»). Horrela eraiki dira nazio modernoak —klasikoen eskolan, eskola humanistan—, eskola maisuak eta horien artean filologoak nagusi zirela gizarte kultuaren eraikuntzan, 1789tik 1945 arte.

Egun, gizarte postliterario eta, ondorioz, posthumanistan bizi gara. Ja ez dira liburuak (eta ez dira, hortaz, «klasikoak», antzinakoak nahiz nazionalak) kontzientzia sozialaren euskarriak; egungo gizarte mediatikoan bestelako baliabideen esku dago informazio eta komunikazioa. Hots, gizarte politiko-ekonomikoa elkarte literario baten eran antolatzeke ilusioari ezin dakioke jada eutsi.

Hala ere, Bigarren Mundu Gerra ostean humanismoaren eske handia berpiztu zen, Weimar gainetik Erromara itzuli nahirik bezala —Nazaretera orobat— klasikoen irakurketaren indar humanizatzailean sinetsirik. Izan ere, humanismoak gizakia barbariatik ateratzea adierazi nahi izan du beti. Bidezkoa da, basakeria bortitzen denean izatea bortitzena humanismoaren eskea ere. Humanismoaren xedea gizakiaren ezbasatitzea, ezohiltzea baita. Suposatzen denez, irakurketa egokiak hezi egiten du, zibilizatu. Eta hortxe datza hain zuzen galdera: nola bilakatu gizakia —ez abere jada, baina— egiaz gizaki?

1946an —gerraoste ilunenean hortaz— idatzi zuen Heideggerrek *Humanismoari buruzko Gutuna* sonatua. Kristianismoa, existentzialismoa, marxismoa, zeharo elkarren kontrajarriak ziruditenak, humanismo beraren hiru adaska baizik ez zirela, azaltzen zuen bertan, eta hirurak engainagarriak ismo guztiak bezala, gizakia zer den erradikaltasun osoz galdetzeari denek berdinean itzuri egiten baitiote. Gizakia «abere razional» bezala edo ulertuz, horren zertasunaren itauna behar den moduan, hots, existentzial-ontologikoki ez jarri izana, orain arteko filosofia mendebaldar osoaren errotikako hutsegitezat salatu du Heideggerrek, haren esentzia marko zoologiko edo biologikoetan ez baitago bilatzerik. Hartara, humanismo guztiek inhumanismoan amaitu dute, historiak erakusten digunez.

Gizakiaren izaera aberearenetik esentzialki bestelakoa da. Abereak ez bezala, gizakiak «mundua» dizu, «mundu-an» da, landareak eta abereak ingurunean diren artean,

izan. Gizakia, berari izatea bera mintzo zaiona da, izatearen unaia izatera deitua. Horregatik du gizakiak mintzoa. Mintzoa, elkar aditzeko baliabidea baino lehen, izatearen etxea da, «hor biziz ex-sistitzen baita gizakia, izatearen egia zainduz, bera harena delarik», Heideggerren barbaro nahiko hermetikoak dioskunez.

Nolanahi den ere, alabaina, eta eremu pedagogikotik gogoeta ontologikoaren muinera aldatuz bada ere, humanismo klasikoaren helburu behinenari eutsi egiten dio Heideggerrek, alegia, gizakia Bestearen hitzarekin adiskidetzeari. Eta, klasikoak baztertuz, izatea bera aitortzen du denok «entzun» —honezkero ez irakurri— beharrezko «testua», haren filologoa edo iragarlea Heideggerrek berak diudiela.

Ikusi, ez da ikusten batere garbi, behialako irakurle klasikozaileen lekuan, «izatearen entzule» edo «izatearen auzolagun» hauekin zer gizarte modu eratu ahal izango den. Bere meditazioetako tropo kriptokatoliko ilun horiekin Heideggerrek, hezkuntza humanistaren helburuen haraindi, gizarte gogoetazale batera nahi gintuzke deitu, han izatearekin begirakorragoak izango omen baikinatega mendebaldama orain arte izan dena baino. Haren ustean humanismo guztiek ez baitute besterik egin subjektibitate, hots, Boterea armatu baino, den oro ren gain hura logika fatal batez inposatuz —humanismoa horrela konplize ageri delarik egundainoko basakeria guztietan, denak hobe beharean edo, gutxienez, hobe behar aitzakiatan eginak.

Heideggerren antzerki pastoral ontologiko hauek, bere garaian ere bitxiak eta orain anakronikoak iruditzen zaizkigun arren, gure aldiko galdera oinarrizkoa oso ongi seinalatu izanaren merezimendua dute: gizakiak hezteko eskola gisa humanismoak porrot egin ostean, zerk heziko gizakiok? Bere burua hezteko —bezatzeko— orain arteko ahalegin guztiek, den oro ren gain berak itsuki Boterea hartzera eraman badute beti gizakia, zerk bezatuko, heziko du hori hemendik aurrera?

[Lehen zatiaren laburpena: Joxe Azurmendi]

(...) Ondoan, pentsamendu kontenplatiboa azken figura zenbaitetan gelditu egin dadin Heideggerek emandako irakaspenetarik baztertuko gara, zehaztasun historiko gehiagorekin agerre<sup>1</sup> extatikoa, gizakiak Izatea mintzarazten dueneko, deskribatzen saiatuko garen bezainbatean. Erakutsiko da giza egonaldia agerrean —Heideggeren moduan esana: gizakiaren barren-egotea edo barren-sostengatu-egotea Izatearen agerrean— ez dela, inola ere, areagoko galdeketa batentzat helezina den jatorrizko erlazio ontologiko bat. Bada Heideggerek espreski ignoraturiko historia bat: gizakiaren agerpena agerrean —alegia, Izatearen galderaren aurreko giza sentsibilitatearen historia sozial bat eta, desberdintasun ontologikoaren zabalartean, emozio historiko bat—.

Hemen, alde batetik, lasaitasunaren historia natural batez mintzatu behar da, berari esker gizakia mundurako irekia eta egokia den animalia bihurtu ahal zen; eta bestaldetik, hezikeraren historia sozial batez, haren bidez gizakiek elkarren berri izan zuten, jatorriz, osotasunari erantzuteko biltzen diren izaki bezala. Perspektiba komun batean —alegia, nola animalia-sapiens gizaki-sapiens bihurtu zueneko azalpenean— biltzen diren bi narrazio handik osatzen dute agerrearen historia erreala; eta humanismoaz haratago sakondutako gizakiari buruzko go-goeta hortik abiatu beharrekoa da.

Bi narrazioetarik lehenak kontaktzen du hominizazioaren abentura. Nola, gizaurreko-giza historiaurreko epe luzeetan, ume bizidunak sortzen zituen gizaki ugaztunagandik goizegi jaiotako izakien espezie bat egin zen, berauek, hain paradoxikoki mintzatzea zilegi bada, beren ingurugiroan gero eta animalezko heldugabetasun handiagoarekin sartzen zirelarik. Hortxe gauzatzen da iraultza antropogenetikoa, sortze biologikoaren leherketa munduratze ekintza aldera. Leherketa honi buruz, Heideggerek —antropologia guztien kontrako bere erreserba temosoan eta gizakiaren abiapuntua, hor-Izate eta mundu-an-Izate bezala, ontologikoki garbi gordetzeko axolan— ez du berri handirik eman. Zeren gizakia munduan den izaki bihurtu ahal izateak espeziearen historian dauden sustriak bai-

tauzka, eta sustrai horiek adierazten ahal dira goizegi jaiotzearen kontzeptu hondargabearen, neoteniaren eta gizakiaren animalezko heldugabetasun kronikoaren bidez. Areagoko dena, gizakia bere animalia-izatean eta animalia-irautean huts egin duen izaki bezala aipa liteke. Animalia bezala huts egindakoan, zertu gabeko izakia ingurutik erortzen da eta mundua, zentzu ontologikoan, lortzen du. Mundura-etortze extatiko hori eta Izateari hiperegokitze hori seaskatik ematen zaizkio gizakiari, espeziearen herentzia historiko bezala. Gizakia mundu-an bada, hori da mundura dakarren eta munduan uzten duen mugimendu baten kidea delako. Titikoa munduko bihurtzen duen hiperjaiotze baten produktua da.

Exodo horrek animalia psikotikoak sortu izan zituzkeen baldin eta, mundurako ateratzearekin batean, Heideggek Izatearen etxea deitu zuenekoan sartze bat gertatu izan ez balitz. Giza generoaren hizkuntza tradizionalak bizigarri egin dute munduan-Izatearen extasia, gizakiei erakutsi zieten zerez geroz nola beren Izate munduaren baitan, era berean, beren baitan Izate bat bezala sentitzen ahal zen. Halaber, agerrea naturaren eta kultur historiaren arteko mugan dagoen gertaera bat da. Eta giza mundura-etortzeak oso goiz hartzen ditu hizkuntzara-etortze baten ezaugarriak.

Baina agerren historia ezin da garatu soilik gizakien hizkuntz etxeetako sameraren narrazioa bezala. Zeren, gizaki mintzodunak talde handietan elkarrekin bizi diren bezain agudo eta, ez bakarrik hizkuntz etxeei baizik eta eraikitako etxeei lotzen zaizkienean, suertatzen baitira bizimodu geldien indar eremuan. Handik goiti, ez dira soilik beren hizkuntzek salbatutakoak, beren etxebizitzek hezitakoak baitira ere. Agerrean eraikitzen dira, beren ezaugarri nabarienak bezala, giza etxeak (baita beren jainkoen tenpluak eta beren nagusien jauregiak). Kultur historialariek azaldu egin dute bizimodu geldiarekin batean gizaki eta animalien arteko harremanak ezaugarri berriak dauzkala. Etxearen bidez egindako giza heziketarekin has ten da etxeko abereen epopeia. Berauen giza etxeekiko lotura ez baita soilik heziketa bat, irakaspen eta haziketa baita halaber.

Gizakia eta etxeke abereak, elkarbizitza ikaragarri honen deskribapen egokia zertu gabe dela, oraindik ez dira filosofoak ohartu historia horretan zer bilatu behar duten. Etxea, gizakia eta aberea, konplexu biopolitiko bezala; aukera gutxitan hautsi da horren gainean filosofoek daukaten isiltasunezko beloa. Eta orduan entzun dena oraingoz gizakiarentzat zailegiak diren problemei buruzko aipamen zorabiagarri batzuk dira. Xumeena zera da: etxeke lanen eta teoria moldaketaren arteko lotura hertsia —zeren teoria etxeke lan moduko bat bezala definitzen ahal baita, edota, hobeki, etxeke eginbehar bezalako bat—. Izan ere, Antzinaroko definizioen arabera teoria zenak, leihotik egindako begirada lasai bezalako batek —oroz gain kontenplaziozko gauza baita—, aro modernoan —jakitea bosterea omen denez geroztik—, lanaren ezaugarria hartu du. Zentzu horretan, gizakiak teoriarako gai bilakatu dira harresien atzean eta leihoak harresi horien agerreak lirateke. Pa-sealdiak ere, mugimendua eta gogoeta urtzen direnekoak, etxekotasunaren deribatuak dira. Heideggeren gogoetazko ibilaldiak, landa eta oihan bideetan zehar egindako ospe txarreko haiek, etxe bat bizkarrean daraman norbaiten mugimendu tipikoak dira.

Baina agerreak deribazio hau, etxekotasun segurutik datomena, soilik etxeetan zertutako humanizazioaren ezaugarriarik motelenari dagokio. Agerrea era berean gudazelaia eta erabakitze eta selekzioaren lekua da. Horri buruz ezin da pastoral filosofikoekin ezer gehiago finkatu. Etxeak dau-den tokian erabaki egin behar da zer bilakatuko diren bertan bizi diren gizakiak; ekintzan eta ekintzaren bidez erabakitzen da zer gisako etxe eraikitzaileek izango duten lehen-tasuna. Agerrean agertzen da zeintzuk helburuengatik borrokatzen duten gizakiek, izaki hiri eraikitzaile eta inperio fundatzaile bezala nabaritzen direnez geroztik. Honako hau seriotasunezko zerbait dela, horixe da, hain zuzen, pentsa-mendu arriskutsuaren maisuak, Nietzschek, *Honela mintza-tu zen Zarathustra*-ren hiruganen atalean, «Bertute txikitzaileaz», adierazpen kezkarrietan deskribatu egin zuena:

Zeren berak (Zarathustrak) ikasi egin nahi baitzuen anar-tean gizakia zer bilakatu zen: handiagoa ala txikiagoa



egin ote zen. Eta behin batez ikusi zuen etxe berri andana bat; harritu egin zen eta esan:

Zer esan nahi dute etxe hauek? Zinez, ezein arima handik ez zituen hor ezarri bere buruaren alegoriatzat! ... Gela eta ganbara horiek: gizakiak atera eta sartzen ahal dira hor?

Eta Zarathustra gelditu eta gogoetari ekin zion. Azkenean, penaturik zioen: 'Dena txikiagotu egin da!'.

Nonahi dakuskit atari apalak: nire espezieko bat pasa daiteke, bai, baina... makurtu egin behar da!

Jende honen artean banabil begi irekiekin: txikiago bihurtu dira eta are txikiago bihurtzen: hori egiten du zorionaz eta bertuteaz duten doktrinak.

... Haietariko batzuk nahi dute, baina gehienak nahi izanak bakarrik dira...

... Elkarrekin borobil, zuzen eta onak dira, legar pikorak borobil, zuzen eta onak diren bezala legar pikorrekin.

Zorion txiki bat umilki besarkatzea; horri 'etsipena' deitzen diotel!...

Funtsean, soilik gauza bat nahi dute: inork beraiei minik ez egitea...

Horientzat bertutea da etsi eta hezi egiten duena: horrekin otsoa zakur bilakatu dute eta gizakia bera gizakia-  
ren etxeko abererik hoberena.

Dudarik gabe, sententzia sail rapsodiko horretan, ezkututzen da 'gizakia botere hezitzaile eta hazitzaile bezala' gaitzat daukan diskurtso teoriko bat. Zarathustraren perspektibatik, oraingo gizakiak gauza bat dira, batez ere: hazitzaile arrakastatsuak, basagizakiagandik azken gizakia egitea lortu dutenak. Berez ulertzen da horrelakorik ez dela soilik bide humanistiko, hezi-irakas-edukatiboekin gertatzen ahal. Horizonte humanistikoa lehertzen da giza hezitzaileak diren gizakiei buruzko teoriarekin; humanismoak sekula ezin baitu heziketa eta edukazioaren inguruko galderaz haratago pentsatu: humanistak abantaila ematen dio gizakiari eta gero aplikatzen dizkio bere modu hezitzaile, moldatzaile eta formatzaileak —irakurtzea, esertzea eta aplakatzearen artean dagoen beharrezko loturaz konbentzitua baita—.

Nietzsche berriz —Darwin eta Paulo arreta berdinarekin irakurri dituen— ohartzen da eskolako giza heziketaren horizonte garbiaren atzean bigarren horizonte ilunago batez. Espazio bat usnatzen du, giza heziketaren norabideari buruzko ezinbesteko borrokak gertatuko direnekoa —eta espazio hori agerrearen beste aurpegi estalia agertzen denekoa da—. Dena txikiago egin den hirian barrera doala, Zarathustra ohartzen da haziketa politika arrakastatsu eta eztabaidarik gabeko baten ondorioaz: iruditzen zaio gizakiek lortu dutela, etika eta genetikaren arteko asoziazio abil baten laguntzaz, beren burua txikiago haztea. Domestikaziopean ezarri dira eta etxeko aberearen lagunkoitasunari buruz doan heziketa modu bat martxan jami. Sospetxa horretarik sortzen da Zarathustrak humanismoari egindako kritika berezia, oraingo gizaki ona inguratzen duen inoxokeria faltsuaren erretxazo bezala. Izan ere, ez litzateke inoxoa gizakiek gizakiak inoxokeriarantz haziko balituzte. Nietzscheren kultura humanistiko guztien kontrako sospetxak inposatzen du gizateriaren domestikazio sekretua agerian jartzea. Berak nahi du haziketaren monopolioaren orain arteko nagusiak —apezak eta irakasleak, gizakiaren lagunak bezala aurkezten direnak— izenekin eta isilpean gordetako helburuekin aipatzea eta hazitzaile desberdin eta haziketa programa desberdinen arteko eztabaida historiko berriari eragitea.

Honako hau da Nietzscheren etorkizun orotarako aldarrikatu funtsezko gatazka: gizaki txikien hazitzaileen eta gizaki handien hazitzaileen arteko borroka —esan liteke, halaber, humanisten eta superhumanisten artekoa, gizakiaren lagunen eta gizagaindikoaren lagunen artekoa—. Gizagaindiko ezaugarria ez da, Nietzscheren gogoetan, desinhibizio azkar bat edo basakeriaganako ihes baten ametsa —30eko hamarkadako Nietzscheren irakurle motel eta txarrei iruditu bezala—. Adierazpena ez da, halaber, etxeko abere eta elizako abereen aroaren aurreko estatuserantz itzuliko zen haziketaren ideia baten alde. Gizagaindikoaz mintzatzean, Nietzscheren gogoan du orainaldiaz sakonago doan mundu aro bat.<sup>2</sup> Hazi, hezi eta edukaziozko gurutzamendu intimoiei esker, orain arte giza ekoizpena gauzatu den milurte-

ko prozesuei hartzen die neurria —bere burua ikustezin egiten jakin izan duen gauzapena eta eskolaren maskarapean domestikazioaren egitasmoa helburutzat zeukana—.

Aipamen horiekin —eta alor honetan aipamen baino a reago korik egitea ez da posible ezta baimendurik ere— markatzen du Nietzschek eremu erraldoi bat, etorkizuneko gizakiaren determinazioa gauzatu behar denekoa, berdin gizagaindiko kontzeptuari buruzko errekursoek zereginik daukaten ala ez. Baliteke Zarathustra gaurko eta akaso betirako desagertutako ondorio infekziosoak eragiten zituen histeria filosofatzaile baten maskara hitzuna izatea. Baina haziketa eta heziketaren arteko ezberdintasun eta gurutzamenduei buruzko diskurtsoa, baita giza ekoizpenen eta, orokorki esana, antropotekniken kontzientzia baten amaierari buruzko erreferentzia, gaurko pentsamenduak bistatik galdu behar ez dituen markak dira, berriro inoxokeriara dedikatu nahi ez badu.

Seguraski Nietzschek sobera tenkatu zuen arkuak, honako sugestioa zabaltzerakoan: gizakia etxeko abere bilakatzea hazitzaileen elkargo pastoral batek alde z aurretik asaturiko egitasmoa izatea, alegia, gizakiagan zernahi temoso eta independente usna lezakeen eta berehala bere suntsipenerako eta mozketarako metodoak aplikatuko litzuzkeen instintu paulino eta apezkoi baten proiektua. Hori, jakina, pentsamendu hibridoa zen, lehenik, zeren haziketa prozesua sobera epe motzean planeatzen baitzuen —otsoagandik zakurrak eta basagizakiagandik Basileako irakasleak egiteko apezken aginpearen belaunaldi batzuk aski balira bezala—; baina are hibridoagoa da zeren egile planifikatzaile bat suposatzen baitu, hazitzailerik gabeko haziketa, alegia, helbururik gabeko korronte biokultural suposatzea delarik. Hala ere, faktore tenkatuegi eta mesfidati-antiklerikalak kenduta, Nietzscheren ideiatik aski nukleo fuer tea gelditzen da, gero, humanitateari buruzko gogoeta, inoxokeria humanistaz haratagokoa, probokatzeko.

Giza domestikazioa gogoratu gabeko handia da, Antzinarotik hona humanismoak begiak desbideratu dituenekoa, honetaz ohartzea aski da ur sakonetan erortzeko. Finkatzen ahal ez garenean, honako ageriak gaintitzen

gaitu: inoiz ez litekeela aski izan soilik heziketa edukatiboa-  
rekin eta gizakiaren letrekiko adiskidantzarekin. Jakina,  
irakurtzea gizakien botere hezitzaile handia izan da —eta  
hala da, neurri apalagoetan, oraindik ere—, baina selek-  
zioa —nolanahi ere egiten bazen— beti zegoen jokoan  
boterearen atzeko botere bezala. Lezioek eta selekzioek  
edozein kultur historialarik pensatu nahi duena eta pent-  
satzeko gai dena baino zerikusi gehiago izan dute elkarre-  
kin; eta oraingoz ezinezkoa badirudi ere irakurpenaren  
eta selekzioaren arteko lotura aski zehazki birreraikitzea,  
konpromisorik gabeko sospetxa bat baino askoz areagoa  
da lotura horrek, berez, bere errealitatea daukala.

Letren kulturak berak, berriki lortutako alfabetizazio  
orokorra arte, oso ondorio selektiboak eragin ditu; bere  
gremioak sakonki zatitu eta letratu eta letragabeko giza-  
kien artean hobi bat zabaldu du, kasik espezieen diferent-  
zia batek bezainbat zorrotasun zeukana. Berriro antropo-  
logikoki mintzatu nahi bagenu, Heideggeren abisuen  
kontra, aro historikoetako gizakiak honela defini litezke:  
animaliak bezala, beraietariko batzuek irakurtzen eta idaz-  
ten dakitenak eta besteek ez. Hemendik bada pauso bat  
bakarrik, pretentsio handikoa bada ere, honako tesi hone-  
taraino: gizakiak animaliak dira, zeinetarik batzuek beren  
gisakoak hazi egiten baitituzte, besteak haziak diren artean  
—Platonen heziketaren eta hiriaren gaineko gogoetaz ge-  
roztik europarren folklore pastoralari dagokion ideia da—.  
Honetako zerbait adi daiteke goian aipatutako Nietzsche-  
ren esaldian, alegia, etxe txikietan bizitako gizakien arte-  
tik gutxik nahi du, gehienak, berriz, nahi izanak dira. Soi-  
lik nahi izanak esan nahi du objektu huts bezala eta ez se-  
lekzioaren subjektu bezala existitzea.

Aro tekniko eta antropoteknikoaren ezaugarria da gi-  
zakiak gero eta gehiago selekzioko alde aktiboan edo sub-  
jektiboan suertatzea, baita selekzionatzailearen papera er-  
diesteko esfortzurik egin gabe. Beraz, hauxe sostengatzen  
ahal da: hautapenaren boterean bada ezatsegin bat eta  
aurki izango da errugabetasunerako aukera bat, gizakiek  
faktikoki borrokan lortutako selekzio boterea erabiltzea  
esplizituki errefusatzen badute. Baina, alor batean, jakint-

za botereak positiboki garatu bezain agudo, gizakiek itxura txarra egiten dute baldin eta —lehengo gaitasun ezaren aroan bezala— nahi badute, beren orde, goiko ahalmen bat, Jainkoa, azarea, edo dena dela, ari izatea. Besterik gabeko errefusapen edo dimisioek huts egiten ohi dutenez, bere antzutasunean, etorkizunean aktiboki sartu behar da jokoan eta antropotekniaren kode bat formulatu. Halako kode batek, atzera begira, aldatuko luke humanismo klasiakoaren esanahia. Horrekin agerian geldituko litzateke, baita deskribatua ere, humanitatea ez dela bakarrik gizakiaren gizakiarekiko adiskidantza; beti —baita gero eta gehiago— inplikutzen baitu gizakiarentzat indarrik altuena gizakiak errepresentatzen duela.

Horrelako zerbait bazeukan Nietzschek gogoan, bere urruneko eraginei begira bere burua *force majeure* bezala aurkeztera ausartu zenean. Adierazpen horrekin munduan ezamitako eskandalua berez asmatzen ahal da, zeren halako pretentsioak epaitzeko mendez eta milurteko goizegia baita. Nork dauka arnasik aski Nietzsche historikoa izango deneko aroa irudikatzeko, alegia, Platon Nietzscherentzat izan zen bezainbat? Aski da garbi edukitzea ondoko aro luzeak espezieei buruzko erabaki politikoarena izango direla. Erakutsiko da ea gizakia edo beren kultur buruzagitza gai ote den autoheziketazko neurriak indarrean jartzeko. Oraingo kulturaren gauzatzen da joera hezitzaile eta piztitzaileren arteko, baita beraietariko bakoitzaren bideen arteko borroka erraldoia. Jada ustekabekoak lirateke hezitzaileen arrakasta handiak, ikusita eredurik gabeko desenfreno olatu geldiezin bat aurreratzen dela.<sup>3</sup> Ea epe luzerako garapenak espeziearen nolakotasunen erforma genetiko batera eramango duen; ea etorkizuneko antropoteknologia bat ezaugarrien planteamendu esplizitu bateraino aurreratu den; ea giza espezie osoagana hedatzen ahalko den jaiotze fatalismo batetik jaiotze aukeragarri eta jaiotze aurreko selekzio baterainoko<sup>4</sup> aldaketa bat; horra horizonte ebolutiboak gure aurrean argitzen hasten dituen galderak, oraindik nahas eta inseguruki bada ere.

Humanitasen ezaugarrietarikoa da gizakiak eramanak izaten ohi direla gizakientzat zailegiak diren arazoan au-

rrean, zailtasun horrengatik enkaratu gabe uzteko aukerarik izan gabe. Helezina eta era berean menperaezina denaren bidezko gizakiaren probokazioak utzi du jada ahazte-zinezko arrasto bat filosofia europarraren hasieran, akaso filosofia bera arrasto hori da, zentzu zabalean. Esandakoaren ondoan, ez da harrigarria izango arrasto hori bereziki giza zainketa eta haziketari buruzko diskurtso bat izatea. Platonek planteatu du bere *Politikos* —«Estatuko gizakia» itzultzen ohi dena— delako dialogoan pastoral politologia europarraren *Magna Charta* bat. Testu hori ez da nabarmen soilik bertan inon baino garbiago erakusten delako Antzinaroak zer adierazten zuen pentsamenduaren kontzeptuarekin —egiaren lorpena kontzeptu eta gauza multzoen zatiketa eta ebaketa arduratsuen bidez—; bere parerik gabeko posizioa gizakiari buruzko pentsamenduaren historian honetan datza: nolabait ere bi hazitzaileen arteko lan solasaldi bat bezala eramaten dela —ez kasualki Platonentzat pertsonaia atipiko bat tartean dela—, arrotz bat eta Sokrates gazte bat, atenastar arruntei mota horretako solasaldia aldez aurretik baimenduko ez balitzaie bezala —gaia honakoa baita: Atenasen existitzen ez den Estatu gizaki bat selekzionatzea eta oraindik ezein hiri enpirikotan aurkitzen ez den Estatu jendalde bat haztea—. Arrotz hori eta bere kontrarioa, Sokrates junior, etorkizuneko politika edo hiri artzaintza arau razional eta garbipean ezartzeko saiatze irristakorrerara dedikatzen dira.

Proiektu horrekin, Platonek giza parkean dagoeneko lasaituko ez den egonezin intelektualaren lekukotasuna ematen du. *Politikos* eta *Politeia* geroztik, halaber parke tematikoa den parke zoologiko batez bezala giza partzuegoaz mintzatzen diren diskurtsoak munduan daude. Giza zainketa parkeetan edo hirietan, horra hemendik aurrera zeregin zoopolitikoa dirudiena. Politikari buruzko gogoeta bezala aurkezten dena, zinez, giza parkeetako gestiorako arauetara buruzko funtsezko gogoeta da. Filosofikoki kontsideratua izatea merezi duen gizakiaren duintasunik baldin bada, izango da, batez ere, zeren, parke tematiko politikoetan, gizakiek, zainduak ez ezik, beren burua zaintzen baitute. Gizakiak beren burua gordetzen, babes-

ten duten izakiak dira eta —nonahi bizi badira ere— parkeleku bat sortzen dute beren inguruan. Hiriko parkeetan, parke nazionaletan, herrialdeko parkeetan, parke ekologikoetan... orotan, gizakiek beren sostengua nola arautu behar denekoaren gaineko iritzi bat moldatu behar dute.

Zoo platonikoari eta bere antolabide berriari buruz dagokionez, zertu behar da populazio eta zuzendaritzaren artean mailazko ala funtsezko ezberdintasuna ote den. Lehen suposaketan, giza zaindarien eta beren zainduen arteko distantzia soilik kasualitatezkoa eta pragmatikoa litzateke —orduan, mintza liteke bere artzainak epeka berriro hautatzeko artaldeak daukan gaitasunaz—. Baina, zooko zuzendarien eta zooko biztanleen arteko ezberdintasuna espezifikoak balitz, orduan hain sakonki ezberdinak lirateke elkarren artean non zuzendaritza hautetsi bat ez bailitzaiteke egokia, baizik eta jakinaren gaineko zuzendaritza bat. Bakarrik zooko zuzendari faltsuak, gezurrezko estatu gizonak eta sofista politikariak arituko lirateke hauteskundera kanpainen artaldearen espezie berekoak direlako argudioarekin; egiazko hazitzaileak, berriz, ezberdintasuna azpimarratu eta sotilki aditzera emango luke bera, jakinaren gainean egoteari dagokionez, izaki bizidun nahasiagandik baino hurbilago jainkoengandik dagoela.

Gai arriskutsuetarako Platonek daukan sen arriskutsuak kultura aurreratuetako pedagogogo eta politikari guztien flakezian jotzen du: boterea ematen duen jakintzaren aurrean, gaurko gizakien ezberdintasuna. Definizio ariketa grotesko baten forma logikopean politikariaren dialogoak garatzen du antropoteknika politiko baten samera; helburua ez da bakarrik berez jada hezita den artaldearen zuzendaritza hezitzailea, halaber baita arketipotik hurbilago dauden giza aleen heziketa berri sistematiko bat. Hain komikoki hasten da ariketa non hain komikoa ez den amaierak barrezko algarapean suertatzeko arriskua baitu. Zer da definizio hau baino groteskoagorik: politika diziplina bat da taldeetan bizitako izakien artetik oinezkoekin zereginik daukana —zeren Jainkoak baitaki giza gidariak ez direla animalia igerilarien haziketaren aritzen, baizik eta

lur gaietik dabiltzanen haziketana—. Lur gaietik dabiltzanetarik bereizi egin behar da lumadunak oinezko lumagabekeoengandik, baldin eta giza populazioengana iritsi nahi bada, zeintzuk, ezagun denez, luma eta hegalgabeak baitira. Platonen dialogoan, arrotzak gehitzen du naturaz hezietariko bat den oinezko jendalde hau bi multzo ageritan zatitua dela —alegia, «batzuk sortzez adargabeak dira, besteak adardunak»—. Solaskide argitsu batek ez du halakorik errepikarazten. Bi multzoak, berriz, bi artzaintza moduri dagozkie, artalde adardunetarako artzainak eta adargabeetarako artzainak —begi-bistakoa da gizataldearen egiazko buruzagiak aurkituko direla soilik adardunetarako artzainak baztertzen badira—. Zeren, nahi balitz adardunen artzainek gizakiak zaintzea, zer espero liteke baizik eta gaigabeen intrusioa? Errege onek edo *basileis*, dio arrotzak, beti zaintzen dituzte adarrak gabeko artaldeak (265d). Baina hori ez da dena; beren zeregina da nahasten ez diren izaki bizidunak zaintzea —alegia, espeziez kanpokoekin gurutzatzen ez direnak, zaldia eta astoak, adibidez, egin ohi duten gisan—, endogamia zaindu behar du eta saiatu bastarten sortzapena trabatzen. Lumagabe, adargabe, antzekoen artean estalitako hauei gehitzen bazaie bi hanken ezaugarria —modernoki esana: zutikako ibilera—, orduan lumagabe, adarge, nahasi gabeko hankabikoei dagokien zainketaren artea egiazko arte bezala gelditzen da berezia eta konkurrentzia faltsu guztiez aparte. Aldez aurretikako zainketaren arte hau zatitu egin behar da, berriz, biolento-tiraniko eta bolondresaren arteetan. Modu tiranikoa faltsu eta engainagarri bezala baztertzen bada, honela definitzen da egiazko estatuaren artea: «artalde zainketa bolondresa ... izaki bizidun bolondresen gainean» (276e).<sup>5</sup>

Puntu horretaraino, Platonek jakin izan du bere Estatu-tuko gizakiaren arteari buruzko doktrina artalde eta artzainen irudietan eramaten eta arte horren dozenaka irudi engainagamietarik bereizi egin du egiazko irudi bakarra, galdetutako gauzaren ideari dagokiona. Orain berriz, definizioa osoki zertua dirudienean, dialogoa jauzten da bat-batean beste metaforabide batera —hori, ikusiko dugunez, ez



da gertatzen lortutakoa abandonatzeko, baizik eta giza zainketaren artearen atalik zailena, erreproduzioaren zuzendaritza hazitzailea, bazterreko ikuspuntu batetik are bortizkiago harrapatzeko—. Hemen badu bere tokia Estatuko gizona ehulearekin konparatzen duen parabola famatuak. Platonen arabera, erregezko artearen zinezko funtsa ez da politikariari beren konfiantza, nahierara, ematen edo kentzen dioten hirikideen botoan aurkitzen ahal; ez datza, halaber, heredaturiko pribilegioetan ezta berritutako usurpazioetan. Agintari platonikoak soilik erreinatzekeo manera hazitzaile batean aurkitzen du bere aginpidearen arazoia, alegia, manera bakar eta zentzuzkoenatarikoa den modu aditu batean. Hemen agertzen da adituen monarkia baten fantasma, bere zuzenbidezko funtsa zera delarik: gizakiak nola antolatuko eta bilduko lirakekeen ahalik eta hobekien, beren borondatezko libertateari inoiz kalterik egin gabe. Antropoteknika monarkikoak estatuko gizakiari eskatzen dio bolondreski gidagarriak diren gizakien nolokotasunik hoberenak, erkidegoaren alde, manerarik eraginkorrenean, ehuntzen aditua izatea, halako moldez non haren manupean giza parkeak homeostasirik onena erdiesaten baitu. Hori gauzatzen da giza espeziearen erlatiboki optimoak diren gerrarako ausardia, alde batetik, eta zuhurtasun filosofiko-humanoa, bestetik, erkidegoko ehunean indar berdinean sartzten direnean.

Baina nola bi bertuteek, beren eskusibitatean, endekatze bereziak sortzen ahal dituzten —lehenak, gerrarako plazer militarra, aberriendako segitzen dioten ondorio suntsigarriekin batera; bigarrenak, hiriaz kanpoko lasaitasun argitsuen pribazitatea, hain indiferente eta urrunduta bilaka daitekeena non, oharkabea, esklabotzan erortzen ahal baitira—, Estatuko gizakiak natura desegokiak baztertu behar ditu, egokiekin Estatua ehuntzen hasi aurrean. Gelditzen diren natura noble eta bolondresekin bakarrik ekoiztuko da Estatu ona: bertan, bortitzenek balioko dute egiturako haririk zarpailenatarako eta zuhurrenek «lodi, beratz eta malguenatarako» —Schleiermacheren itzulpenak dioen bezala—, anakronikoki xamar esan liteke zuhurrenak kultur enpresan sartzten direla.

Hauxe litzateke, esan dezagun, Estatu ekintza adituak osatutako ehuna. Gizaki bortitz eta zuhurren gogokera ehundu eta estekatuko dira manera honetan: erregezko arteak, gehiengoaren baitan laguntasunaren bidez, bi bizi-modu horiek komuna den bakar batean batutakoan eta ehunik bikain eta hobereana sortutakoan, gainerako libreei eta esklaboei estekatze horren barrenean eusten dienean... (311 b, c)

Irakurle modemoarentzat —burges aroko ikastetxe humanista eta eugenesia faxistari begira eta, halaber, jada aro bioteknologikoa aurretik ikusten baitu— gogoeta horien ahalmen lehergarria osoki konfundigaitza da. Bere arrotzaren ahotik Platonen proposatzen duena gizarte humanista baten programa da: erregezko artzaintzako nagusiaren baitan —erabat humanista bakarria denaren baitan— gauzatutakoa. Hiperhumanista horren zeregina zein eta honakoa litzateke: guztien onerako hazi beharreko nolakotasunen plangintza bat elite batengan.

Konplikazio bat, gogoan hartzeko gelditzen dena: artzain platonikoa izan daiteke gizakien zaindari sinesgarri bakarria zeren gorpuzten baitu jatorrizko eta egiazko artzain bakarriaren lurrezko irudia —Jainkoarena, lehen-goko aroan, Kronosen aginpean, gizakiak zuzenean zaindu zituena—. Ez da ahaztu behar Platonentzat bakarrik Jainkoa dela gizakien jatorrizko zaindari eta hazitzaile bezala kontsidera daitekeena. Orain, berriz, iraultza (*metabole*) handiaren ondoren, Zeusen aginpean jainkoak erretiratu direnez eta gizakiei beren burua zaintzeko ardura pasatu egin dietenez, jakintsua gelditzen da zaindari eta hazitzaile duinena bezala, bere baitan dagoelako hobere-naren ikustaldi zerutiarraren oroipenik biziena. Jakintsua- ren idealik gabe gizakiaren zainketa gizakiaren bidez alferrikako pasioa litzateke.

Bi mila t'erdi urte Platonen ekitaldiaren ondotik, badi-rudi jainkoak ez ezik jakintsuak ere erretiratu egin dire-la eta bakarrik utzi gaituztela geure ezjakintasunarekin eta geure erdipurdiko ezagupenekin alor guztietan. Jakintsua- ren orde z gelditzen zaiguna haren idatziak dira, beren dis-tira ezean eta iluntasun gero eta handiagoan. Hor daude,

beti ere, edizio gutxi edo aski eskuragarrietan; oraindik irakurtzen ahal dira, jakingo balitz zergatik irakurri behar-ko liratekeen. Beren patua da apalategi isiletan egotea, pilaturiko posta bateko gutunak bezala, jada biltzen ez direnak —dagoeneko garaikideentzat sinesgarritasuna galdu duen jakinduria baten irudi fidelak edo faltsuak— oraindik gure lagunak ote daitezkeen ez dakigun autoreek bidalitakoak.

Jada banatzen ez diren postakiak ez dira adiskide posibleei bidalitakoak, artxibaturiko gauza bihurtzen dira. Horrek ere, liburu kanoniko izandakoak lagunei bidalitako gutunak gero eta gutxiago izateak eta dagoeneko irakurleen eguneko ezta gaueko mahaietan ere gehiago ez egoteak —baizik eta artxiboetako denborarik ezean mugilduta—, horrek ere kendu dio mugimendu humanistikoari inoiz edukitako kemenaren parterik handiena. Gero eta gutxiagotan jaisten dira artxibozainak testuen Antzinaro-*ra*, gai modernoei buruzko aspaldiko iritziak kontsultatze-*ra*. Beharbada, noiz edo noiz, kulturaren soto hildakoetan egindako ikerpen horietan, gertatzen da aspaldiko irakurri gabeko paperak distiraka hastea, urrungo tximistek jotakoak balira bezala. Artxiboa agerre bilakatzen ahal da? Itxura guztien arabera, artxibozainek eta artxibatzaileek humanisten segida hartu dute. Oraindik artxiboetan barrena bila dabiltzan gutxientzat inposatzen ari da honako uste hau: non planteatu ziren ahaztuta dugun galderei egindako erantzun nahasia dela gure bizitza.

### **Data ondoko oharra**

Publikazio solte bezala aurkeztutako testu honek, 1999ko irail eta urriko hilabeetan, Alemaniako iritzi publikoetan eduki du eztabaida sutsu eta enkonatu baten abiapunturako balio izateko pribilegio eskasa. Kontuan izanda, kasu honetan, interes publikoak egilearen zuzenbidea gainditzen duela eta amaitu gabeko entsegu bat dokumentu bilakatu dela, oraingo baldintzetan dokumentu

hori ukitzeak zentzu handirik ez duenez, testua borobiltzeko eta sakontzeko neukan interesari uko egin diot eta, idazkerari buruzko zuzenketa xume batzuk salbu, alarmak jotakoan zegoen moduan utzi egin dut. Orain konprenitzen ditut nire hitzaldi honi elipsi eta laburketa batzuk leporatzen dizkiotenen argudioak, baita gaizki ulertua izateko posibilitateetan gehiago pentsatu behar izan nuelako egindako erantzukiak. Idazleen flakezia ezaguna da, berriaz, ohiko edota ofizioko gaizki ulertzaileen gidaritzari kasurik ez egitea. Errepublika federaleko komunikabide serio batzuek erakutsi dute, aldiz, argudiozko forma objektiboak defenditzen ahal direla kazetaritza zirikatzaile baten aurrean ere.

Ez da isilpean gordetzeko, beti ere, sintoma kontrarioak agertzen direla. Sentsazionalismoaren sarrera gehi-gari kulturaletan, ohiko sospetxaezinek antolatutakoa, krisi fenomeno da informaziotik polemikaren ekoizpena doan joera guztiahaldun bat erakusten duena. Ezberdintasunak sustatu ordez, kazetalgo frakzio horrek ikusten du, hitz koleratzailezko kazetaritza baten bidez, simplifikazioaren psikosi masiboak laxatzeko aukera.

Soberakeria hori ez dator ustekabeen: nire tesiaren gaia zena —idazpenaren eta irakurpenaren bidez, pazientzian, iritziari euspenean eta entzumenezko joeran gizakia hezten duen humanismo literarioaren amaiera arriskutsua giza formazioaren utopia bezala— hitzaldi horren ondorioz modu eredugarrian erakutsi da, ikus 1999ko irailaren 23ko *Die Zeit*.

Irakurleak jakin beharlu luke hitzaldi hau egin zela, lehen aldiz, 1997ko ekainaren 15ean, Basilean, humanismoaren aktualitateari buruzko ziklo batean, literatur topaketa batean, publiko ugariaren aurrean. Hortik esplikatzen dira hitzaldiaren doinua baita azpimarratuen hautapena, suposa bainezake —nire aurrean emandako hitzaldi dozenaren ondoan (besteak beste, Joachim Gauck, Vittorio Hösle, Elisabeth Bronfen, Vittorio Lampugnani, Wolfgang Rihm eta Annemarie Schimmel)— entzuleengan gaiari buruzko ikuspuntu zabal bat, baita berari hurbiltzeko posibilitateen ugaritasunaren zentzu bat. Ez batak ez

besteak ez dute gaurgero kontatzen nire testuaren harre-  
rarako kontestuz kanpoan. Hitzaldi berau, zerbait aldatu-  
ta, Israel, Frantzia, Estatu Batuak, Argentina eta Alemania-  
ko teologo eta filosofoen aurrean, Heidegger eta Levinasi  
buruzko jardunaldietan, Elmauren, errepikatu nuenean,  
talde hark hitzaldiaren teknikoki interesgarriak ziren bi  
ikuspegiak sugerentzia bezala konprenituko zituelakoan  
nengoen: humanitasen dedukzioa bitartekoen logika eta  
logika gramatikalaren bere alderdiak erremarkatuz, eta  
Heideggeren agerre-motiboaren errebisio historiko-antropo-  
logikoa (ontikoaren eta ontologikoaren arteko erlazioa-  
ren alderanzketa partziala). Adituei zegokienez, uste ho-  
rrek ez du hutsik egin, bai, ordea, kasualitatez bertan  
egondako kazetari zenbaiten kasuan, hitzaldiaren logikaz  
ezer konprenitu ez zutenak, baina salakuntzazko «infor-  
me» delako bat egiteko aukera ikusi zutenak. Historiaren  
gainerakoaren ondorioa Sloterdijk eztabaida (edo Sloter-  
dijk-Habermas eskandalua, Frantzian dioten moduan) de-  
lakoa da, neure aldetik sostengu gehiagorik eman nahi ez  
diodana, salbu eta ohar hau: deskontestualizazioen indar  
lehergarria frogatu duela.

Puntu bat bakarrik erremarkatu nahi dut irakurle  
okerren estrategia lotsagabe bati dagokiona: oso pasarte  
deigarri batean (21. orr.), interbentzio posibilitate biotek-  
niko berrien agerpenaren bidez etorkizuneko espeziearen  
prozesuarentzat planteatzen ahal diren arazo zenbaiti bu-  
ruz ari nintzen. Bertan galdetzen dut ea epe luzean espe-  
zie mailan nolakotasunen plangintza esplizitu moduko  
bat posible ote den eta jaiotze aukeragarria (txanponaren  
bestaldearekin: jaioaurreko selekzioa) espezie osorako  
erproduktzio ohitura berri bat bihurtzen ahal den («es-  
pezie osorako» adierazpena ezin da hemen oharkabean  
pasatzen utzi, zeren jaioaurreko selekzioa, aholku medi-  
koen araberrako abortorako zuzenbidea bezala, European  
eta Estatu Batuetan jada juridikoki garbituriko kultur es-  
tandar bat baita, erresistentzia katolikoak izanda ere). Eta  
pasarte berean gehitzen dut horiek bezalako galderekin  
horizonte ebolutiboa aurrean dugula. Galdera horietarik  
kazetari batzuek preskripzioak egin dituzte.

Nire Basilea-Elmaureko hitzaldia, interneteko helbide batzuetan agertu eta gero, frantsesez publikatu da *Le Monde des Débats* aldizkarian (1999ko urrian). Hitzaldiaz gain, aferaren funtsa konprenitzeko balio duten agiri batzuk eskaintzen zituen internet helbideak, irail erditik urri hasiera arte, 60.000 bisita baino gehiago izan ditu. 1999ko urriaren erditik aurrera, helbide berean ([www.rightleft.net](http://www.rightleft.net)) eskandaluaren kronologiaren informazio zerbitzua eskaintzen da. ¶

- 
1. [Itzultzailearen oharra] Heideggeren *Lichtung* kontzeptu famatua euskaratzeko «agerre» iruditzen zait egokia. Gauza bera esan nahi duelako —larrutu egin delako edo beste motiboengatik, bagoan dagoen zuhaitzik gabeko tarte bat; bestalde, uste izatekoa da Heideggeren aprobazioa izango lukeela, erro bereko ageri, agertu... eta abarren esanahia eta erabilera jakinda— eta, soilik toponimian eta gure klasiko baten abizenean agertzen baita, gaizki ulerturik ezin sortu duelako. Azken arrazoi beronengatik, *das Sein* euskaratzeko Izatea maiuskuladuna ezarri dut.
  2. Temoski ignoratzen ohi zuten Nietzscheren irakurle faxistek horrekin, orokorki, humanoegiaren eta humanoaren arteko ezberdintasunaz ari zela.
  3. Honetan ohartarazten dut Mendebalde osoan, eskoletan, diharduen biolentzia olatuaz; Estatu Batuetan bereziki, bertan irakasleak hasi baitira ikasleen kontrako babes sistemak eraikitzen. Antzinaroan, liburuak antzerkiaren kontrako borroka galdu zuen bezala, gaur eskolak gal lezake zeharkako botere hezitzaileen kontrako borroka, alegia, telebista, zinema biolento eta beste desenfrenabideen kontrakoa, non ez den biolentziaren aplakatzaileria litzatekeen ilustrazio egitura berri bat sortzen.
  4. Orokorki esanda: arrisku biologikoen manipulazio bateraino; formulazio osatu bat.
  5. Irakurtzearekin, Platonen interpretatzaile batzuk, Popper adibidez, «bolondres» doble horren gainetik pasa dira.

[Bigarren zatiaren itzultzailea: Eduardo Gil Bera]

# General Intellect & CIA: globalizazioa edo inperialismoa?



IGNACIO AYESTARAN



*m*omentu historiko berri batean gaude. Globalizazioak aukera berriak sartu ditu, baita inperialismoa bezalako botere-sistemak ere. Estrategia global handietan EEBBen eta CIAren eskua daude maiz. Baina hauek inperioaren eskuak baldin badira, non daude buruak? Eta buru kritikoak? Non dago pentsamolde bakarra eta non intelektual kritikoak, intelligentsiatik at?

## Baina badago inperioa bezalako zerbait gaur?

1998ko *Ritorno verso il futuro* dokumentalean Toni Negri-k zehatz-mehatz definitu du Inperioaren kontzeptua: munduko merkatuaren era politikoa da, hots, hertsatzeko baliabide eta arma guztiak, erregulatzeko tresna monetario, finantzario eta komertzialak, baita, gizarte biopolitiko berria, hizkuntzen, komunikazioaren eta zirkulazioaren tresna guztiak ere. Inperioa mundu mailako gizarte kapitalista poliedrikoan mugitzen den gobernatzeko estrategia da. Inperio hau Nazio-Estatutik haratago doa, eta horregatik, atzoko Estatu kolonizatzailearen bestelakoa da.

Gaurko kolonizazioa beste modu batean egiten da: ez da bakarrik Hannah Arendt-ek deskribatu zuen inperialis-

---

► **Ignacio Ayestaran** EHUko Filosofia saileko irakaslea da.

mo totalitarioa. Gaurko kolonizazioan, globalizazioaren agerpenarekin, jabetzaren kontzeptua aldatu da. Espaziotik eta denboratik haratago hedatzen da. Espaziotik haratago: merkantzietan eta hizkuntzetan, ekoizpenetan eta ugalketan, ziberespazioan eta gune telematikoetan. Denboratik haratago: denboren aldiberekotasunean (hori dela eta, inperioaren ideologo batzuek historia amaitu dela adierazi dute).

Golkoko gerratik Kosovoko gerrara nabaria izan da nazioarteko egitura hau, Estatu Batuak jaun eta jabe. Inperio berrian gerrak desagertu dira: hemendik aurrera gerrak banda armatuen arteko lehiak dira eta lehia hauek Inperioak erregulatu eta dosifikatzen ditu bere jendarmeen injerentziaz eta esku-hartzeaz baliatuz.

Inperio hau kapitalismoarena da, EEBBetako Konstituzioaren menpean, ordena biopolitiko berri batean. Gaurko kapitalismoaren biopolitikan eta antolamendu postfordistan, Nazio-Estatutik haratago, bizia eta bizitza Inperioaren eskuetan geratu dira: ahalmen intelektual eta afektiboak, informazioa, ezagutza, ekoizpen-denborak, demografia, migrazioak... Inperioak ordena biopolitiko eraikitzen du ekoizpena biopolitiko bihurtu delako.

Berlingo Harresia erori zenetik, munduko merkatua batu da subiranotasunaren ikurrak hartuz: botere militarra, monetarioa, komunikazionala, kulturala eta linguistikoa. Botere militarrean autoritate bakar bat dugu amamentu nuklearretik Echelon espioitza-sare mundialeraino<sup>1</sup>. Botere monetarioan moneta hegemoniko bat dugu, dolarra, finantzen gainean<sup>2</sup>. Komunikazio-boterean kultur eredu bat inposatzen saiatzen da, hizkuntza unibertsal baten garaipean anglosaxoniarraren oinarrituta. Horrelako gailua nazioz gaindikoa, mundu mailakoa eta erabatekoa da. Hori dela eta, honi inperioa deitzen dio Negrik. Eta ez da atzoko imperialismoa. Era berria da. Inperioa EEBBetan jaio da baina EEBBetatik haratago doa. Inperio honetan munduko kapitalistek hartzen dute parte, hala nola estatubatuarek eta europarek, baita mafia errusiarrak ere, edota Asia, Afrika eta mundu arabiarrekoak ere. Guztiok bidaltzen dituzte beren semeak Harvarden eta beren dirua Wall Streetera.



EEBBak dira inperioaren autoritatea, baina modu berri batez. Elite estatubatuarrek boterearen egitura multinazionalari jarraitzen diote. EEBBetako presidentziaren botere «monarkikoak», alde batetik, enpresa multinazional, finantzario eta produktiboen botere «aristokratikoa» pairatzen du, eta, bestetik, langile, herri-nazio pobre, esplotatu eta baztertuen botere «demokratikoaren» (es)presioa jasotzen du. Polibio historialariaren teoria hartuz, EEBBetako Konstituzioa dela bide, errege-eginkizuna, aristokraziarena eta demokraziarena hedatzen dira zuzenbide inperialean mundu mailako merkatuan.

## Nola letreiatzen da «inperioa»? E-E-B-B

Susan Strange ekonomialariak, «Towards a Theory of Transnational Empire» artikuluan, inperio transnazionalaren ezaugarri berriak deskribatu zituen 1990ean.

Sortzen den inperio transnazionala ez da lurralde inperioa, ez-lurraldekoa baizik, hiriburua Washington izanik. Orain arte hiriburu inperialek kanpoko lurraldeetatik etorritako gortesauak erakartzen zituzten. Kanpoko enpresen zerbitzura daudenak, kanpoko talde minoritarioak eta globalki antolatutako presio taldeak erakartzen zituen Washingtonek. Hiritarrak ez daude, Erroman bezala, goi araza batean mugaturik. Inperioan hiritarren nahasketa nabaria da: eskubide legal eta politikoak dituzten hiritar petoak, erdi-hiritarrak eta ez-hiritarrak (Erromako biztanle esklaboak bezalakoak). Erdi-hiritar asko Rio de Janeiro, Bonn, Londres edo Madrileko karriketan paseatzen dira eta ez-hiritarren piloarekin topatzen dira maiz. Inork ezin ditu bereizi arrazaz, kolorez edo arropaz. Inperioko erdi-hiritarrak anitz dira eta edonon daude. Gehienak mundu ez-komunistako hiri handietan bizi dira. Haien artean ekoizpen transnazionalaren egituraren lan egiten duten korporazio transnazional handietako langile anitz daude, eta merkatu globala zerbitzaten dute guztiek. Beste langile batzuk ere baditugu sailkapen honetan: banku transnazionalen enplegatuak eta EEBBen indar armatuetatik la-

guntza, armak eta trebakuntza jasotzen dituzten indar armatu «nazionaletako» partaideak anitzetan. Maiz, EEBBetako unibertsitateen eta lanbide-elkarteen aurrean merituak eta atsegin egiteko ahalegin guztiak egiten dituzten gestore eta ekonomialariak —baita medikuntza, natur eta giza zientzien arloetako profesional batzuk ere— sar ditza-kegu sailkapenean. Bukatzeko, EEBBetako ereduari, baita bere teknologiari ere, jarraitzen dioten komunikabideeta-ko eta prentsako jendea dago. Edozelan ere, denek aldatzen dituzte beren elkarte eta erakundeak, EEBBek beraien bidea markatu baitute. Hauxe da inperio zehaztugabe berria, gehienok bizi dugun benetako inperioa.

Batzuetan badirudi nahas-mahas global honetan ez dagoela inperiorik eta inperioaren ideia iraganekoa dela, orain berreskuratzeko. Baina gertakarien aurrean nahikoa da globalizazioari begirada bat botatzea EEBBek beren bo-tererik ez dutela galdu ziurtatzeko<sup>3</sup>.

Gaurko polo bakarreko munduan, EEBBen pisua na-beria da, Samuel Huntington soziologoak erakutsi duen bezala (Huntington 1999):

1. Demokrazia eta giza eskubideen arloan, EEBBek presioa sortzen dute beste herriek irizpide eta praktika usamerikarrak onar ditzaten.

2. Beste herriek indar usamerikarren kontrako baliabide militarrek eskuratzea eragozten dute EEBBek.

3. Beste herrietan EEBBetako legeak inposatzen dituzte lurraldez kanpoko injerentziaren bitartez.

4. Giza eskubide, droga, terrorismo, arma nuklear eta misilen ugaltze eta erlijio askatasunari buruzko arau usamerikarrekiko atxikimenduaren arabera sailkatzen dituzte beste herriak.

5. Arau usamerikarrei jarraitzen ez dietenek EEBBen zigorisunak pairatzen dituzte.

6. Merkataritza librearen defentsaren eta merkatu irekien bidez, EEBBetako korporazioen nahi eta onurak bultzatzen dituzte.

7. EEBBetako korporazioen zerbitzura, Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Moneta Fondoaren politika moldatzen dituzte.

8. EEBBetako interes ekonomikoak indartzeko beste herriak ikarutzen dituzte beren politika sozioekonomikoak alda ditzaten.

9. Itxurakeria handiz atzerrian EEBBetako armen salmenta sustatzen dute eta, aldi berean, beste herrien armen salmenta eragozten dute.

10. Nazio Batuen Erakundearen idazkari nagusiaren dimisioa derrigortu dute eta bere ondorengoaren izendapena diktatu.

11. NATOren hedapena sustatu dute, Polonia, Hungaria eta Txekiar Errepublika onartuz eta beste herri batzuk arbuiatuz.

12. Iraken aurka ekintza militarrek eta, gero, bere biztanleen kontrako blokeo basatia egin dituzte beren alde, nazioarteko erakunde politikoetatik at.

## Inperioaren oinetakoak eta esklabismoa oinutsik

Horra hor inperio globalaren hamaika aurpegi. Izan ere, EEBBek planeta *macdonaldizatu* dute. *American way of life*: Hollywoodeko filmak gure begietan eta Nike kirol-oinetakoak gure oinetan. Baina, prest gaude Usamerikako egia osoa ezagutu eta onartzeko? Nike kirol-oinetakoen atzean zer dago, kasu?

Oinetakoen filosofia egin dezagun. Ezaguna da *Der Ursprung des Kunstswerkes* lanean Martin Heidegger-ek esandakoa. 1936ko saio honetan filosofoak Van Gogh-ek pintatutako bota pare bat hartu zuen hizpide, artelanaren funtsa eta jatorria miatuz. Van Goghen botak edozein nekazariren zapaten irudi(kapen)a zirenez, pintura hartan nekazarien bizimoduaren irudia zegoen. Bota higituetan nekazarien lanbide nekosoak nabaritzen zen. Beraz, Van Goghen boten bidez, artelana eta Lurra bildu zituen filosofo alemanak, modu erromantikoan —batzuen ustez, modu nazionalsozialistan, nekazaritza-ideologia eta lur-abertzaletasun alemaniarra bateratuz—. Geroago, 1984an, *Postmodernism or the Cultural Logic of Late Capitalism* saio famatua

argitaratu zuen Fredric Jameson-ek. Izenburuan bertan argi zegoen egilearen asmoa: kultura eta ekonomia parekatzea. Lehenengo ataletan Heidegger eta Van Goghen oinetakoak, atzoko nekazaritza munduaren botak, hartu zituen eta Andy Warhol-ek *Diamond Dust Shoes* pinturan margo tutako oinetakoekin konparatu. Wahrenak emakumezko zapata fin eta luxuzkoak dira. Oinetako takoidun hauetan objektuaren (baita artelanaren ere) izaera merkantziarena da fetitxe gisa. Warholen pinturan diamante-hautsezko zapatak ilaran daude, erakuslehoan bailiran, kontsumorako prest. Zapata hauetan Lurraren agerpena edo presentzia desagertu da (nondik hartu dute zapatetarako diamantea? Hego Afrikako meategi batetik?). Nekazaritza eta Natura desagertu dira Azken Kapitalismoan. Aro Postmodernoan moda besterik ez dugu, diseinatzaileen arropa eta osagarrien moda. Aro Postmodernoan ez dugu Lurrik edo Naturarik —hau da, nekazaritza munduaren erreferentziarik—, Ingurumena baizik (azken buruan, zer da Natura bioteknologia eta klonazioaren garaian atzoko ideia erromantikoa baino? Mendi basatiak —eta beren otso eta hartzak— turismorako parke naturalak baino ez dira. Ez digu Peter Sloterdijk-ek esan, bada, genetikari jarraitu behar diogula eta gu geu giza parke zoologikoa besterik ez gaela?).

Oinetakoak modako fetitxe elitistak dira, festa-jantzi bihurturik. Jantzien elitismoan markak du azken hitza. Guztiok nahi dugu erakuslehoan saltzen diguten markako arropa, Warholen zapaten edo gaurko Nike kirol-oinetakoen kasuan bezala. Baina modan ere aurkitzen dugu inperialismoa. Warholen merkantziaren fetitxismoak burura ekartzen digu Campbell edo Coca-Cola-ren mundu merkantzializatua. Azken kapitalismoan denok Coca-Cola edan eta Nike kirol-oinetakoak jantzen ditugu. Baina mundua globala ere badenez, Gap edo Nikek haurren lana erabiltzen duten bitartean. Van Goghen botetan nekazaritzaren mundua zegoen. Wahren zapatetan, berriz, gaurko mundu global eta postmodernoa.

Mundu globalean esklabismoa —inperialismoaren azken hatza— bizirik dago oraindik. Nahikoa da Kevin Bales-ek 1999an karrikaratutako *Disposable People*. *New*

*Slavery in the Global Economy* liburua irakurtzea praktika hau globalizazioaren muinean sartuta dagoela baieztatzen da. Munduan 27 milioi esklabo ditugu. Era askotakoak dira: prostitutak, nekazariak, tailer-langileak... Baita leku askotan ere: Tailandia, Mauritania, Brasil, Pakistan, India... Horrela izanik ere, bukaeran, biolentzia eta lana/aberastasuna dira esklabotzaren ardatzak. Eta esklabotza ere munduko ekonomiaren ardatz bat da: Nike kirol-oinetako estatubatuarrak gure eskuetara hel daitezten, Hirugarren Munduko haurren lana beharrezkoa izan da. Hauxe da Warholen zapaten atzean dagoen egia, azken kapitalismo postmodernoren egia. Globalizazioari esker garbiago ikusi dugu Lehenengo Munduak Hirugarren Mundua behar duela. Adibidez, Brasilen, esklaboek eskuratutako ikatza altzairua fabrikatzeko behar-beharrezkoa da. Altzairu honekin kotxeak, ordezko piezak eta beste tresna metaliko batzuk egiten dituzte. Produktu hauek guztira Brasilgo esportazioen laurdena dira. Erresuma Batuak urtero 256.000 milioi pezeta inportatzen ditu Brasildik eta EEBBek are gehiago. Esklabotzak ekoizpen-kosteak murrizten ditu lantegietan. Aurrezki hauek korrante ekonomikoan eragiten dute eta, bukaeran, Europa eta Iparramerikako dendetan agerikoak dira, prezio merkeetan zein txikizkarien mozkinetan. Mundu kolonizatua bukaturik ere, globalizazioaren esklabotza berriak inperialismo berria sortu du, jabetza fisikorik eskatu gabe. Balesen erranetan,

XIX. mendeko Europako inperioek egiten zutena egiten dute orain konpainia transnazionalak, hau da, natur baliabide eta lan merkeaz baliatzea, baina orain herri osoa gobernatu beharrik gabe. Modu berean, esklabotza berriak gizakien balio ekonomikoa hartzen du eta mehatxuen bidez menperatzen ditu, baina gizakien jabetza aldarrikatu gabe eta beren biziraupenaren ardurarik gabe. Horrek errentagarritasun gehiago dakar: haur alferrak, zaharrak, gaixoak edota zaurituak zakarrera botatzen dituzte. Aldi baterako lanak egiten dira aldi baterako esklabotza erabiliz. Esklabotza berrian, esklaboa ekoizpen-prozesuari gehitzen zaion kontsumo-objektu bat da. Kontsumo-objektu hau gehitzen da beharrezkoa besterik ez denean, baina orain ez du koste handirik.

Merkatu globalizatuari esker, esklabotza berria unformatu da, bai Brasilen, bai Pakistanen. Eta inperioaren buruek ez dute ezer egiten honen kontra. 1997an Nazio Batuen Erakundeak Iraken kontrako zigor ekonomiko handiak ezarri zuten, beren begiraleak arma biokimikoen bila zebiltzalarik. Baina, zein herri zigortu du NBek esklabotza onartzeagatik? Non daude eskulan esklaboa atzema-teko Nazio Batuen begiraleak? Zein zigor ekonomiko jarri du Munduko Merkataritza Erakundeak esklaboek egindako produktuak esportatzeagatik? Nork defendatzen ditu esklaboak Nazioarteko Auzitegian?

## Mundu-apartheid teknosozial legitimatua eta inperialismo ekologikoa

Ildo honetan, Riccardo Petrella-k globalizazioaren azpian dauden interes inperialistak salatu ditu, erreglamentaziorik eza, pribatizazio, liberalizazio eta lehiakortasunaren ideologia dela medio (Petrella 2000). Teknozientzia berriari esker, globalizazioan aurrerapen sozioekonomikoa eskaintzen digute paradigma bioinformatikotik: 1) alde batean, ekonomia berria edo e-ekonomia deitutakoa (*elec-tronic based* ekonomia, ekonomia digitala) —kapital librearen ametsa diru elektronikoa bidez eta merkatu-ekonomietan aberastasun berria finantza-fluxuen bitartez—; 2) beste aldean, bioteknologiak —Lurra biofabrika bihurtzen dituzten teknologiak: genetika, genomika, klonazioa, transgenikoak, genetikoki aldatutako organismoak eta beste hainbat—.

Paradigma bioinformatikoak hamaika bide ireki ditu, baina, tamalez, hamaiketarik hamar informatikaren eta bioteknologiaren multinazionalen eskuetan. Beraz, Vandana Shiva-k ekofeministotik errepikatu duen moduan, biopirateria izan da emaitza, inperialismo ekologikoa bermatuz. Esan gabe doa inperialismo ekologikoa ez dela gaurko afera bakarrik. Alfred W. Crosby-k (1986ko *Ecological Imperialism* saioan) erakutsi zuen nola konkistatu zituzten europarrek Amerika, Asia, Ozeania eta Afrikako

kostaldea. Armen indarraz gain, animalia, landare eta germenak sartuz, europarrek paisaiak, indigenak eta fauna menperatu zituzten inperialismo ekologikoa bultzatuz nahita edo nahi gabe. Beranduago, Europako potentziak EEBBekin beren natur konkistak banatzen hasi ziren<sup>4</sup>.

Ekonomia ekologikotik, prozesu historiko honi «herri-ondasunen tragedia» deitu diote, neo-paleo-liberalismoak herri-ondasunak pribatizatu zituenetik: hasieran, basoak, lurrak eta mendi batzuk; gero, aire-garraioa, telefonoa, bankuak, aseguruak, trenak, posta-zerbitzuak merkantzia bilakatu, merkatu-arau kuantitatiboetara jarraitzearen; orain, osasuna, segurtasuna, pentsioak, enplegua/lanbidea, heziketa, elektrizitatea, gasa eta, nola ez, ura, ez dira guztion ondasunak edo herri-ondasunak, ondasun pribatuak baizik. Hiritarren eskubide bakarrak kontsumitzaile eta akziodunen eskubideak dira. Hori dela eta, jabetza intelektualaren eskubideari helduz, korporazio transnasionalek Asia, Afrika eta Hegoamerikako kapital biotikoa (munduan dagoenaren %92) eskuratzeko ahalegin guztiak egiten dituzte indigenen eta bertako kulturen kontra.

Gizakia bera ere giza-baliabide izatera pasatu da (hauteskunde-kanpainetan, erroldatutako gizakia boto-baliabidea da). Prozesu teknozientifiko eta politiko honetan ez dira desagertu hiritarren arteko aldeak edo desberdintasun sozioekonomikoak. Horrela, Petrellak «mundu-apartheid teknosozial legitimatua» izendatutakoa sortu da. Gaurko apartheidak atzoko eta gaurko amildegia sozialak ireki ditu: eskolatuak eta analfabetoak, gizonak eta emakumeak, aberatsak eta pobreak, patrioiak eta langileak, gazteak eta zaharrak, zuriak eta gainerako koloreetakoak, hiritarrak eta baserritarrak, anglosaxoniarrak eta gainerako hiztunak. Baina amaieran emaitza bera da: paradigma bioinformatikoan jabea gizon eskolatu, nagusi, aberats, *english speaking*, gazte, hiritarra da. Teknoapartheid honetan ez da gomendiozko gutun oso ona emakume analfabeto, pobre, ez-zuri, langile, zahar, *not english speaking*, baserritarra izatea.

Mundu-apartheid teknosozial legitimatua begi-bistan gera dadin, duela gutxiko adierazpen bat ekartzea nahikoa dugu. 2001eko urtarrilaren bukaeran Davos-en egin-

dako Munduko Ekonomia Foroan, Vandana Shiva Indiako *Research Foundation for Science, Technology and Ecology* erakundearen buruak —Munduko Bankuko eta Du-Pont biokimika-multinazionalako ordezkarien aurrean— globalizazio-estrategia salatu zuen. Shivaren erranetan, herri-nazio aberatsek hesi eta oztopoak jartzen dizkiete herri-nazio pobreen nekazal-produktuei, «gizateria mailako genozidioa» sustatuz. Shivak argudiatu zuenez,

Prezio handia ordaintzen dugu demokraziaren arloan, bere globalizazioarekin erantzun gisa biolentzia lortzen dutelako eta orduan Estatu polizialak behar dituztelako salerosketa bidegabea defendatzeko.

## Globalitarismoa & CIA: intelektualak eta intelligentsia militarra

Orrialde hauetan agian ezkorregiak (edo modaz pasatutako marxista mesfidatiak) ote gara? Baliteke, baina egia esan EEBBetako politikari eta burupeek ere inperioaren diskurtsoa maneiatu dute. Urrutira joan gabe, inperioaren bihotzean, Henry A. Kissinger-en 1994ko *Diplomacy* liburua dugu. 1.300 orrialde inguru EEBBen XX. mendeko estrategia inperial(ist)a ezagutzeko. Lehen-lehenik, esan dezakegu Kissinger Nixonen laguntzailea eta Pentagonoaren estrategia militarretako bat izan zela (paradoxen paradoxan, 1973ko bakearen Nobel Saria jaso zuen). Beraz, mezezi du lehenengo orrialdeak, «Munduko ordena berria» ataletik hartutakoak, euskaratzea, EEBBek beren kanpo-politika espantsionista nola aztertzen duten ulertzen hasteko:

Lege natural baten ondorio balitz bezala, mendero nazioarteko sistema aldatzeko behar diren botere, borondate eta indar intelektual eta morala dituen herri bat sortzen da. XVII. mendean, Frantziak, Richelieu kardinala buruan, ikuspegi modernoa eman zien nazioarteko harremanei, Nazio-Estatuan oinarriturik eta bere interes nazionalek bultzaturik. XVIII. mendean, Britainia Handiak botere-orekaren kontzeptua sartu zuen, hurrengo



200 urtez diplomazia europarra menperatuz. XIX. mendean, Metternich-en Austriak Europako Kontzertua berteraiki zuen eta Bismarcken Alemaniak deuseztu zuen, diplomazia europarra boterearen politikaren joko hotz bat bilakatuz.

XX. mendean, EEBBak dira herrien artean, nazioarteko harremanetan, eragin erabakigarriena eta, aldi berean, anbibalenteena egin duena. Beste Estatuena barruko aferetan esku-hartze onartezina irmotasun handienarekin proposatu duen herria dira. EEBBek baino inork ez du esan pasio gehiagorekin bere balioek ezartze unibertsala zutenik. Inor ez da izan pragmatikoagoa bere diplomaziaren eguneroko gidatzean. Inor ez da izan ideologikoagoa bere uste sendo eta moral historikoen bila. Inor ez da izan uzkurragoa atzerrian sartzeko, aurrekaririk gabeko irismen eta neurrien konpromiso eta aliantzak egiten zituen bitartean. Iragan garbi baten nostalgiaren eta etorkizun perfektu baten desioaren artean erdibiturik, pentsamendu estatubatuarra izolazionismo eta konpromisoaren artean mugitu da, II. Mundu-Gerraren bukaeratik interdependentziaren errealitateak nagusitu arren.

Beren historian zehar EEBBek lepoan hartu zituzten berezitasunek bi joera kontresankor sortu dute kanpo-politikan. Lehenengoa da, EEBBek, beren balioak zerbitzatzeko, beren nazio-herriaren demokrazia hobetu behar dutela, gainerako gizateriaren itsasargia izanez; bigarrena, nazioaren balioek behartzen dute balio hauek mundu osoan defendatzera, gurutzada bat balitz bezala.

Bi pentsamendu-eskola hauek, EEBBak itsasargia bezalakoarenak eta EEBBak gurutzatua bezalakoarenak, normal ikusten dute nazioarteko ordena global bat, demokrazian, komertzio librean eta nazioarteko zuzenbidean oinarriturik. Haatik, sistema hau inoiz existitu ez denez, maiz beste gizarteei utopikoa —bakuna ez esatearren— iruditu zaie oroipen hau. Atzerriko eszeptizismoak, ordea, ez du eraginik eduki Woodrow Wilson, Franklin Roosevelt edo Ronald Reaganen idealismoan, ezta XX. mende-ko edozein presidente estatubatuarrenean ere. Eraginik izanez gero, nazio-herriaren fedea —historia gairiditza posible delako fedea— indartzea izan da, munduak benetan bakea nahi badu, EEBBek defendatzen dituzten agindu moralak aplikatu beharko dituela agudiatuz.

Bi pentsamendu-eskola hauek esperientzia estatubatuarren emaitza dira. Beste errepublika batzuk izan arren, inor ez da sortu kontzienteki askatasunaren ideia haragitzeko. Nazio honen biztanleek erabaki zuten kontinente berri baten buru izatea eta bere eskualde hutsak zibilizatzea guztientzako oparotasun eta askatasunaren izenean. Horrela, bi ikuspegiak, isolazionistak eta misiolariak —itxuraz hain desberdinak—, azpian zegoen sinesmen komun bat islatu zuten: EEBBek munduko gobernu-sistema hobereana zeukatela eta gainerako gizateriak bakea eta oparotasuna eskuratuko duela diplomazia tradizionala uzten baldin badu eta, estatubatuarrek egiten duten moduan, demokrazia eta nazioarteko zuzenbidea gurtzen baldin baditu.

Esaldi hauetan diplomatiko, estrategia militar, bakearen Nobel sari eta kanpo-arazoetarako ministroaren ikuspegiak ditugu batera, EEBBen begietatik ikusirik, jakina. Ideia ezin hobea da XX. mendeko inperioaren egoera eta estrategia era zuzenean laburtzeko. Estrategia hau inperioaren muina da, Interneten irakur dezakegun moduan. 2000ko azaroan CIAk txosten bat jarri zuen sarean, «Global Trends 2015: A Dialogue About the Future With Non-government Experts» izenekoa<sup>5</sup>. National Intelligence Council erakundearen eskutik, txosten honetan esaten dигute nola ikusten dituen EEBBen intelligentsia militarrek 2015 urteraino globalizazioaren estrategia eta ondorioak arlo desberdinetan, hala nola politikan, ekonomian, industrian, zientzian, teknologian, demografian, informazioan. Txostenerako, hainbat aditu eta unibersitate-erakunde intelektual bildu dira intelligentsia militararekin —ez da lehenengo aldia: Gerra Hotzaren garaian CIA zirkulu intelektualekin ere harremanetan hasi zen, pentsalari eta artista famatu batzuen ekintzak finantzatzuz eta babestuz—<sup>6</sup>.

CIAREN txostenak globalizazioa definitzen du:

ekonomia globalaren sarean modu azkar eta luzean neurririk gabeko informazioaren fluxuak, ideiak, balio kulturalak, kapitala, ondasunak, zerbitzuak eta jendea gidatuko dira: hau da, globalizazioa. Ekonomia globalizatu hau sare laguntzaile bat izango da 2015ean munduko egon-

kortasun politikorako, nahiz eta globalizazioaren onurak ez diren unibertsalak izango. Garapena ezengokorra izango da, hegazkortasun finantzario kronikoan eta handituz doan zatiketa ekonomikoan.

Globalizazio honetan krisiak agertu arren, CIAren begietatik garbi dago EEBBen onura:

Ekonomia globalak, informazioaren teknologiak bultzaturik, aho betean egiten die onura EEBBei. Erronka handiena da zein erantzun eman globalizazioaren beste aurkiari, atzean geratzen diren herri-nazioak nola tratatu, batez ere Ekialde Hurbila bezalako munduko eskualdeen kasuan.

EEBBen buruzagitzak, ordea, ez du zalantzarik globalizazioaren aurrean:

EEBBek munduko komunitatean indarrrik handiena izaten jarraituko dute. EEBBetako ekonomia globalaren, teknologiaren, militarren eta diplomaziaren eragina pakekorik gabea izango da nazioen artean, baita herrialde eta nazioarteko erakundeetan ere, 2015 urtean. Botere honek ziurtatzen du, Amerikaren nagusitasunaz gain, EEBBak nazioarteko sistemaren gako gidatzailea izango direla. Munduan zehar EEBBek jarraituko dute globalizazioaren onuraduna eta ekimena daraman aitzindaria izaten. EEBBetako ekintza ekonomikoek eragin global handiagoa edukiko dute, etxeko helburuen (adibidez, interes-tasak aldatzearen) bila ibili arren, 2015ean merkatu globalen integrazio itxiagoarengatik.

Beraz, CIAk nazioarteko aliantzak eta diplomazia gero eta zailagoa izango direla iragartzen duen arren, hona hemen 2015erako EEBBen lekua:

EEBBak iraultza teknologikoaren abangoardian izango dira, informaziotik bioteknologiara, eta haratago. Bai aliatuek bai aurkariak EEBBetako lehentasun militarra gogoan izango dute nazio-segurtasunaren interes eta handinahiak kontuan hartzerakoan.

Agian CIA oker dago bere iragarpenetan, baina globalizazioan EEBBek izan ditzaketen asmo eta interesei mozerro humanitarioa kendu diegu testu honekin. Dena

den, txostenaren arabera, gaurko pentsamolde bakarraren estrategiaren aurki bat nabaria da: botere politiko-militar eta akademiko-intelektualen arteko harremana.

## Pentsamolde bakarra, gizaki dimentsio-bakarra

Ignacio Ramonet-ek halako estrategia globalitarioari pentsamolde bakarra deitu dio (Ramonet 1995, 1997). Pentsamolde bakarraren eskutik, indar ekonomikoen interesak —batik bat nazioarteko kapitalarenak— kontzeptu ideologiko bihurtzen dituzte unibertsalizatzeko asmoz. Ideologia hau, lausotua izanik ere, erabat erreala da 1994tik, Brenton Woods-eko akordioetatik. Bere iturri nagusiak erakunde monetario eta ekonomiko handiak dira: Munduko Bankua, Nazioarteko Moneta Fondoa, Munduko Merkataritza Erakundea, GATT akordioa, Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea, Europar Batzordea, besteak beste. Erakunde hauen finantziazioaren bidez, ikerkuntza-gune, unibertsitate, fundazio eta beste hainbat erakundek halako pentsamoldea zabaldu eta biritzen dute, Armand Mattelart komunikologoak *prêt-à-penser* mediatikoa deitu duena<sup>7</sup>. Anonimoa eta neutrala badirudi ere, diskurtso hau errepikatzen dute, teknizismo eta formalismo ekonomikoetan nahasturik, inbertitzaile eta burtsa-artekarien gustuko diren infomazio-organoe-tan: *The Wall Street Journal*, *Financial Times*, *The Economist*, *Fast Eastern Economic Review*, *Les Echos*, *Reuter*. Ideia hauek botata, zientzia ekonomikoen fakultate, kazetari, saiogile, politikari eta beste hainbat profesional ospetsuk ideologia globalitarioa oinarrizko hiztegi arrunt batean errepikatzen dute komunikabideetan: merkatu librea eta lehiakorra, ekonomia berria, merkatu eta fluxu finantzarioa, mugarik gabeko libreganbioa, hazkunde ekonomikoa, garapen sostengarria, mundializazioa, moneta indartsua egonkortze-faktore gisa, pribatizazioa, liberalizazioa, nazioarteko lan-zatiketa, plantila-doiketa, desarautzea, globalizazioa eta halako beste kontzeptu ideologikoak.

Horrela, inperioak komunikazio-unibertsalen *lingua franca* berria lortu du, eta *global democratic marketplace*-aren pentsamendura heldu gara *management* edo kudeaketaren garai postmodernoan. Nazioarteko sareek kudeaketa-zientzien hiztegia errepikatzen dute, *best seller*, *re-engineering*, *workshop*, *networking*, *lobbying*, *think tanks*, *mall* eta halako hitzak erabiliz, *global shopping center* sortu arte *world business class* edo *global business class* elitea dela medio (Mattelartek *Histoire de l'utopie planétaire: de la cité prophétique à la société globale* saioan erakutsi duen moduan).

Era horretan, Marshall McLuhan-en herri globala ere ailegatu zaigu. Baina orain ikusten dugu, McLuhanek baino garbiago, herri globalaren maizterra gizaki dimentsio-bakarra (Herbert Marcuse) dela. Eta bere ideiak pentsamendu bakarrarenak dira. Gaur ideiak beste merkantziak bezalakoak dira, teknozientiaren ikerkuntza (bioteknologia eta informatikarena, hain zuzen ere) eta informazioaren ekonomia (Nasdaq burtsa eta teleteknologiarena, kasu) merkatuaren motorrak direnetik<sup>8</sup>. Mundu honetan leku gutxi dago betiko pentsamendu eta filosofiarako.

## Enperadore birtuala eta masa elektronikoa

Iraganean politikari batzuk, baita enperadore ren bat ere, erdi-filosofoa izan ziren. Adibidez, Marko Aurelio enperadore estoikoak *Ta eis heautón* lan filosofikoa idatzi zuen. Lan honetan II. mendeko inperio erromatarren autoritatea nabaria da, etsaien aurka eta legearen alde. Haatik, inperio-konkistari buruzko hausnarketetan Marko Aurelio bere mugez kontziente zen oso —ez, ordea, bere semea Komodo—. Danubioren ertzean, sarmaziarren aurkako borrokan, harrokeria inperialistaren kontra idatzi zuen:

Eulia harrapatzeaz harro dago armiarma; erbukumea, bestea; sare batekin sardina, bestea; txerriak, bestea; hartzak, bestea; eta sarmaziarrek bestea. Ez dira guztiok lapurrak beren oinarriak sakonki aztertzen baldin badituzu?

Gaurko Reagan, Clinton eta edozein Bush ez dira gauza horrelakorik idazteko, baina maiz ez dugu beren

kaskarkeria ikusten, teleteknologia eta prentsaren bidez makilaturik baitago, batez ere hauteskunde mediatikoetan eta telebistaz emandako demokrazietan (gogora dezagun teknozientziak eta Internet-munduak zerbaiterako balio dutela alderdi biko inperio estatubatuarrean).

EEBBetako azken hauteskudeetan alderdi biko inperio mediatikoa izan dugu 2000ko bukaeran. Enperadorea aukeratu arte, abokatuek eta komunikabideek hartu dute parte berdinketa tekniko eta patetiko batean. Bitartean, jendeak karrika eta etxeetan itxoin du, oihuka edo isilka, komunikabideek eta letraduek berriren bat eman arte. Tarte honetan, komunikabideek adierazi dute America Online eta Time Warner elkartu direla planetako enpresa mediatiko handienean (letraduek onartu dute monopolio hau, «kontsumitzaileen garaipena delako», hitzez hitz). Enperadorea zein den letraduek erabakitzen duten bitartean, letratu hauek ere megaenpresa mediatikoa onartu dute, kontsumitzaileen onurarako. Egoera honetan, Eduardo Subirats-ek galdetu du: demokraziaren bukaeran ote gaude? Inperioaren gainbeheran ote? Ezta pentsatu ere. Presidente-hauteskunde polemikoak eta megabotere elektronikoko globala batera agertzea filosofia politiko postmodernoa-ren ikasbide bat da. Subiratsen ustez, hiru pauso eman dira. Komunikabideek politika ikuskizun despolitizatu bihurtu dute. Letraduek botere politikoa hartu dute aurpegi eta eszenatoki mediatikoen atzetik. Azkenik, gizarte zibila elektronikoki kontsumitzaile-masa bilakatu dute. Paul Virilio-k edo Jean Baudrillard-ek esango luketen moduan, Estatu-kolpe mediatikoan gaude: sarritan Telepolis airearen jaunen eskuetan geratzen da eta globalizazioak globalizazioa dela ematen du.

## Non geratu dira intelektualak ordena globalitario berrian? Herrien ekintza globalerantz

Orden globalitarioak kasik akademiako aho kritiko guztiak ito ditu. Inperialismoaren aurkako intelektual estatubatuarrek isildu dituzte edo joko z kanpo geratu dira.

Mark Twain, John Dewey, William James-en kritika historikoak ia ez dira entzuten (batzuetan Susan Sontag, Noam Chomsky edo Edward W. Said baten oihartzuna ailegatu arren). Duela gutxi, Dewey eta Jamesi jarraitzen dion filosofo estatubatuar batek azaldu digu nola aldatu den politika eta pentsamendu kritikoaren arteko erlazioa azken urteotan. 1998ko *Achieving Our Country* liburu abertzalean Richard Rorty pragmatista ezkerria irak sistema globalitarioari esker ematen ari den eskuineratze-prozesua salatu du:

70eko hamarkadako urteetako uneren batean, EEBetako erdiko klasea trabatu zen. Carter eta Clintonen presidentzien menpe, Alderdi Demokratik bizirik iraun du sindikatuetatik eta birbanaketarako edozein eskaeretatik urrunduz eta «zentroa» deitzen duten huts antzu horretara hurbilduz. Alderdiak dagoeneko ez du abar ezkertiar zaratatsu eta presentik, berarekin intelektualak bat etor daitezten edota sindikatuek benetan laguntza aurki dezaten. Badirudi aberastasunaren eta errentaren birbanatzea aipatzeak ikara sortzen diola EEBetako edozein politikariri —eta, are gehiago, karguan dagoen edozein presidenti—. Politikariak beldur dira honetaz mintzatzeaz, bo-toak ez galtzeko hauteskundeetarako laguntza eman ahal dioten estatubatuar bakarren aurrean: bizitegi-auzoetako jendearen aurrean. Beraz, bi alderdien artean aukeratzea gezur zinikoen eta isiltasun ankerraren artean aukeratzea da bukaeran.

Kasta hereditarioen sortzeak jarraituz gero, eta globalizazioaren presioak kasta hauek sortzen baldin baditu, ez bakarrik EEBetan, demokrazia zaharretan ere, orduan mundu orweldarrera joango gara. Mundu horretan ez da Anaia Handia bezalako nazioz gaindiko anaiarik izango, ezta Insog bezalako kredo ofizialik ere. Baina Barne Alderdia bezalakoa izango da, hau da: nazioarteko superaberts kosmopolitik. Kanpo Alderdia bezalakoa izango dira heziketa handiko profesional kosmopolitik, bizitza bapoa eramaten duten profesional kosmopolitik, Lind-ek aipatzen duen «goiko klasea», zu eta ni bezalako jendea.

Gu bezalako jendearen lana izango da Barne Alderdiak hartutako erabakiak ezusterik gabe eta modu ziur eta eraginkorrean bidean jartzea. Nazioarteko aberats

handien interesa izango da gure klasea pozik eta neurri batean oparo mantentzea. Nazio-Estatu partikular ba-koitzaren klase politikoa izan dela sinesten duen jendea behar dutelako. Proletarioak lasai mantentzeko, superaberatsek jarraituko dute politika nazionala egun batean aldatuko delako ideia zabaltzen. Beren erabaki ekonomi-koak beren pribilegioa direnez, politikariak, bai ezkertia-rrak bai eskuindarrak, kultur gaietan espezializatzer- bultzatuko dituzte. Helburua da proletarioen arreta bes- telako gauzekin desbideratzea eta beheko estatubatu- arretatik %65 eta munduko beheko populazioaren %95 ga- tazka etnikoetan eta erlijiozkoetan sartzea, baita ohitura sexualei buruzko eztabaidetan ere. Superaberatsak ez dira beldurtuko inoiz, proletarioek beren etsipenean ez pent- satzea lortzen baldin badute, mass-mediek egindako sasi- gertakariak —noizbehinkako gerra odoltsu batzuk bar- ne— zabalduz.

Rortyren hitz saminetan garbi dago intelektual kriti- koaren ehiza hasi dela, EEBBetan zein munduan. Adibide gisa, nahikoa da iaz Tom Wolfe-k EEBBetan plazaratutako saioa irakurtzea (Wolfe 2000). EEBBetako politika eta bizi- moduan nazio «puritanoa», «errepresiboa», «intoleran- tea», «kapitalista» eta «faxista» ikusten duten «intelektua- lak» gogor eta gupidarik gabe kritikatu ditu Wolfek. Bere aburuz, EEBBetako hegemonia mundiala hain handia da ezen, bizirik iraunez gero, Alexandro Handiaren ametsa izango bailitzateke: nazioarteko enpresen bategiteak, rock eta rap-a, filmak, telebista, NBA, Sarea eta «globalizazioa- ren» jokia. Hori dela eta, Susan Sontag, Noam Chomsky eta «kultur genozidio» estatubatuarra edota arraza zuria- ren (WASPekeen) ideologia salatzen dutenak barregarri utzi ditu Wolfek. Estrukturalismo, postestrukturalismo eta postmodernitatearen jarratzaileengan «marxismo roco- coa» ikusten du, hau da, Frantziako kolonizazio kulturala, Michel Foucault eta Jacques Derrida-ren eskutik.

Gauza bera gertatu zen Sokal-en kasuan. 1996ko uda- berrian, EEBBetako argitalpen postmoderno batean, *Social Text* aldizkarian, «Transgreding the Boundaries: Toward a Transformative Hermeneutics of Quantum Gravity» ize- neko artikulua argitaratu zuen Alan D. Sokal fisika irakas-



le estatubatuarrak. Hizkuntza eta filosofo postmodernoak erabiliz, akatsez betetako lan sasizientifikoa egin zuen nahita, geroago beste artikulua batean salatzeke, Frantziako (eta Europako) filosofia postmodernoa barrengarri uzten saiatuz. Julia Kristeva, Luce Irigaray, Bruno Latour, Jean Baudrillard, Gilles Deleuze, Félix Guattari eta Paul Virilio zeuden sorgin-ehizaren zerrendan. Bere hutsegite zientifikoak hartuz, 1998an *Intellectual Impostures* liburua argitaratu zuen Sokalek. Ezbairik gabe, liburuaren azpian EEBBn eta Europaren arteko erroka zegoen, zientzia aitzakia gisa hartuz (azken buruan guztiok dakigu Aristotelesen eta Descartesenen fisika okerra dela, baita Kanten zientziaren filosofia edo Platonen kosmologia ere, baina beren zientzia zuzena izan ez arren, pentsalari handiak izan dira).

Bitartean, Europako filosofiaren erdia (postmodernoa) galduta, 1999ko «Nazio-Estatu europarra eta globalizazioaren presioak» eta 2000ko «Globalizazioaren negarezko haranean» artikuluetan Jürgen Habermas, Europako beste filosofiaren erdia (neomodernoa), negar egiten hasi da, mundu globalean ongizate-estatuaren estertoreak entzunda. Lehenengo aldiz, iraganen *Theorie der kommunikativen Handelns* argitaratu zuen Habermas harrituta geratu da garapen demografiko, lan-aldaketa estruktural eta aurrerapen tekniko eta zientifikoaren aurrean, hots, globalizazio basatiaren aurrean. Eszenatoki honetan nabaria da ez dela nahikoa berriro «elkarrizketa-komunitate ideal» bat proposatzea. Orain, *Die postnationale Konstellation* liburuan «solidaritate zibil mundiala» proposatu digu, globalizazioari aurre egiteko. Baina, zorionez, jendea ez da geratu Habermasen (Rawls, Nozick eta egia formalaren beste profeten) zain. Intelektual akademikoek beren burutazio atzeratuak bota baino lehenago, benetako solidaritate zibil mundiala eraikitzen hasi da Seattle, Praga, Niza edo, hurbilago, 2001eko urtarrilean Brasilgo Porto Alegre hirian antolatutako lehenengo Munduko Gizarte Foroan. Bide honetan, egile eta elkarte multzo bat dugu: John Zerzan-en anarkismo antiteknologikoa, Vandana Shivaren ekofeminismo ekialdetarra, Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimendua, Mexikoko mugimendu (neo)zapatista, Indiako

Narmada ibaiaren aldeko deia Arundhati Roy-ren ahotsan (Itoizko kasuarekin lotuta), José Bové-ren Confédération Paysanne erakundea, Sierra Club, Ralph Nader edo Lori Wallach-en ekologismoa, nazioarteko Herrien Ekintza Globala mugimendua eta hainbat talde eta korronte<sup>9</sup>. Mugimendu eta talde hauetan datza sistema globalitarioen aurkako itxaropena.

## Epilogo gisa

Bi ohar bukatu aurretik: lehena Amartya K. Sen-ena eta bigarrena, Edward W. Saidena.

Senek, ekonomian Nobel sari indiararak, azaldu duenez, gaurko mundua Mendebaldeko indarren menpe dago, eta autoritate globala desberdina izan arren, MTV edo Coca-Colaren inperioan eguzkia ez da etzaten inoiz (Sen 1999). Hori dela eta, Senek azpimarratu du askatasun formala ez dela nahikoa garapen ekonomikoari aurre egiteko. Horrexegatik dio gizabanakoaren askatasuna emaitza soziala dela eta atzeraelikadura beharrezkoa dela: mekanismo sozialak gizabanakoaren askatasunak zabaltzeko, baita gizabanakoaren askatasunak gure/besteen bizitzak eta mekanismo sozialak hobeak eta eraginkorragoak izan daitezen ere. Hau da, garapena askatasun gisa, eta askatasuna garapen gisa ere.

1993ko *Culture and Imperialism* klasikoaren bukaeran EEBBetan bizi den Said palestinarrak dioenez, inperialismoaren opari pozoitua da sinestea guztiok gauza bat baino ez gabela: zuriak, beltzak, mendebaldekoak, ekialdekoak. Inperio guztietan, ordea, mestizajea ezinbestekoa izan da. Baina benetako mestizajea ez da sortzen tradizio luzerik, asentamendu iraunkorrik, hizkuntza nazionalik edo geografia kulturalik gabe.

Bitartean, Suetonio-ren esaldia berritu behar dugu: *Ave, Dolar Imperator, morituri te salutant.* ¶

1. Ikus (Ayestaran 2000a).
2. Ikus (Amin 1997).
3. James Petras-ek *Las estrategias del imperio* liburuan dioenez, 1999ko urtarrilaren *Financial Times*-i jarraituz, munduko 500 enpresa handien artean, 46 japoniarrak dira, 173 europarrak eta 244 estatubatuarrek; Peter Gowan-ek ere garbi utzi du EEBBek dolarrekin munduko ekonomia nahi dutenean desorekatzen dutela (Gowan 1999).
4. Gogora dezagun inperialismo ekologikoaren sustraia Europan bertan datzala, ekonomia kapitalistak naturaren eta ekosistemen mugak apurtu zituenetik. *The Great Transformation* liburuan Karl Polanyi historialariak erakutsi zuenez, Ingalaterran kapitalismo liberala jaiotzean, lurra artifizialki zedarriztu eta artzainen kontrako hesiak sartuz, natura barruti bihurtu zen. Horrela, Europako liberalismoaren merkatua agertu zen, amankomunean zeuden lurrak desagertuz. Historian lehenengo aldiz, lurra merkatu abstraktu bihurtu zen, natura gero eta baliabide urriago bilakatu.
5. Ikus <http://www.odci.gov/cia/publications/globaltrends2015/>
6. Frances Stonor Saunders-ek gertatutakoaren berri eman digu: garai hartan, Marshall Plan intelektuala ere diseinatu zuen CIAk, komunismoaren aurkako eta Washingtonen politikaren aldeko egile batzuk argitaratu eta itzuliz (Saunders 1999, 2000). *Partisan Review*, *Kenyon Review*, *New Leader*, *Encounter* bezalako aldizkariak finantzatu zituen, baita biltzar kultural batzuk ere. Ekitaldi eta aldizkari hauetan EEBBeko eta Europako egile famatuak ditugu: Isaiah Berlin, Daniel Bell, Czeslow Milosz, Dwight MacDonal, Robert Lowell, Hannah Arendt, Mary McCarthy, Jorge Luis Borges; baita ezker moderatu batzuk ere: Stephen Spender, W.H. Auden, Arthur Koestler, Raymond Aron, Anthony Crossland, Ignacio Silone, Michael Josselson, George Orwell, Bertrand Russell eta Alfred J. Ayer. Datu bitxiren bat aipatzearen, esan behar da CIAk pintura abstraktu espresionista lagundu eta bultzatu zuela, arte errealista sozialistari aurre egiteko. Jackson Pollock eta Mark Rothko-ren lanetan «enpresa librearen pintura» ikusi zuen CIAk.
7. Ikus (Ayestaran 2000b).
8. Horretarako klasikoa da Michael Gibbons-en lana, *The Production of Knowledge*, hau da, ezagutzaren ekoizpena enpresa-saretik eta I+G plangintzatik.
9. Euskaraz laburpen serio bat irakur daiteke: Herrien Ekintza Globala: *Nor berean, Globalizazioaren aurkako bidean* (Eguzki Banaketak, 3113 P.K., 31080 Iruñea, eguzki-i@pnagea.org).

## Bibliografia

- Amin, Samir 1997: *Capitalism in the Age of Globalization. The Management of Contemporary Society*. New Jersey/Londres: Zed Books Ltd.
- Ayestaran, Ignacio 2000a: «La red de espionaje Echelon», *Digital Ware*, 5. zbk.
- Ayestaran, Ignacio 2000b: «Nueva economía y pensamiento único», *DigitalWare*, 6. zbk.
- Bales, Kevin 1999: *Disposable People. New Slavery in the Global Economy*. The Regents of the University of California/University of California Press.
- CIA 2000: *Global Trends 2015: A Dialogue About the Future With Non-government Experts*  
[www.odci.gov/cia/publications/globaltrends2015/](http://www.odci.gov/cia/publications/globaltrends2015/)
- Crosby, Alfred W. 1986: *Ecological Imperialism. The Biological Expansion of Europe, 900-1900*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Gibbons, Michael et al. 1994: *The Production of Knowledge*. Londres: Sage Publications.
- Gowan, Peter 1999: *The Global Gamble. Washington's Faustian Bid for World Dominance*. Londres: Verso.
- Habermas, Jürgen 1981: *Theorie des kommunikativen Handelns*. Frankfurt: Suhrkamp Verlag.
- Habermas, Jürgen 1998: *Die postnationale Konstellation*. Frankfurt: Suhrkamp Verlag.
- Habermas, Jürgen 2000: «El Estado-nación europeo y las presiones de la globalización», *New Left Review*, 1. zbk.
- Habermas, Jürgen 2001: «El valle de lágrimas de la globalización», *Claves de razón práctica*, 109. zbk.
- Heidegger, Martin 1984: *Der Ursprung des Kunstwerkes*, in *Holzwege (Gesamtausgabe)*, 5. bol.). Frankfurt: Vittorio Klosterman.
- Herrien Ekintza Globala 2000: *Nor berean, Globalizazioaren aurkako bidean*. Iruñea: Eguzki Banaketak.
- Huntington, Samuel 1999: «The Loney Superpower», *Foreign Affairs*, 78/2 zbk.
- Jameson, Fredric 1984: *Postmodernism or the Cultural Logic of Late Capitalism*. Oxford: New Left Review Ltd.
- Kissinger, Henry A. 1998: *Diplomacy*. New York: Simon & Schuster.
- Mattelart, Armand 1999: *Histoire de l'utopie planétaire: de la cité prophétique à la société globale*. Paris: Éditions La Découverte & Syros.
- Negri, Toni 1997: *Ritorno verso il futuro*. Maurizio Lazzarato eta Raffaele Ventura-k egindako eta L'Yeux Ouverts-ek ekoizitako dokumentala (BP 624, 92006 Nanterre Cedex).
- Negri, Toni 2001: «L'Empire, stade suprême de l'impérialisme», *Le Monde Diplomatique*, urtarila.
- Petras, James 2000: *Las estrategias del imperio. Los EE.UU. y América Latina*. Hondarribia: Hiru.

- Petrella, Riccardo 2000: «Mundialización y tecnología», *El País*, 2000-VIII-30.
- Polanyi, Karl 1944: *The Great Transformation*. New York: Rinehart and Co.
- Ramonet, Ignacio 1995: «Pensamiento único y nuevos amos del mundo», in Noam Chomsky, Ignacio Ramonet: *Cómo nos venden la moto*. Bartzelona: Icaria.
- Ramonet, Ignacio 1997: *Un mundo sin rumbo. Crisis de fin de siglo*. Madril: Debate.
- Rorty, Richard 1998: *Achieving Our Country*. Harvard University Press: Cambridge (Massachusetts).
- Said, Edward W. 1993: *Culture and Imperialism*. New York: Alfred A. Knopf.
- Saunders, Frances Stonor 1999: *Who Paid the Piper: The CIA and the Cultural Cold War*. Londres: Granta Books.
- Saunders, Frances Stonor 2000: *The Cultural Cold War: The CIA and the World of Arts and Letters*. New York: The New Press.
- Sen, Amartya K. 1999: *Development as Freedom*. New York: Alfred A. Knopf.
- Sokal, Alan; Bricmont, Jean 1998: *Intellectual Impostures*. Londres: Profile Books.
- Strange, Susan 1990: «Towards a Theory of Transnational Empire», in Ernst-Otto Czempiel, James N. Rosenau (arg.): *Global Changes and Theoretical Challenges. Approaches to World Politics for the 1990s*, Lexington (ikus orobat: S. Strange, *The Retreat of the State: the Diffusion of Power in World Economy*, Cambridge, Cambridge University Press, 1996).
- Subirats, Eduardo 1997: «La masa electrónica», in *Linterna mágica. Vanguardia, media y cultura tardomoderna*. Madril: Siruela.
- Subirats, Eduardo 2000: «El emperador virtual y la masa electrónica», *El Mundo*, 2000-XII-18.
- Wolfe, Tom J. 2000: *Hooking Up: What Life Was Like at the Turn of the Second Millennium: An American's World*. New York: Farrar, Strauss & Giroux.

---

# Intelektualak eta politika

b

EMILIO LOPEZ ADAN

b

## Sarrera: intelektuaren lekua

Félix Guattari-k (1991) erran zuen bezala, intelektua-  
lei buruz mintzatzea deserosoa da: «Ce concept d'intellec-  
tuel, auquel je m'affronte ici, m'a toujours gêné»... Inte-  
lektualak ikusten ahal dira talde pribilegiatu bat bezala,  
jakintzak eta komunikabideek abantailaturik, eta bere bu-  
ruaz mintzo laketzen direnak. Haien harrokeriaren lehen  
froga hauxe dateke: intelektualek intelektualak aztertzea.  
Deserosotasun horren erditik helduko diogu arazoari.

Intelektuaren eta praktika politikoen arteko harrema-  
na izanen da gai nagusia eta intelektualaren esparrua hiru  
zedarriek mugatuta ikusiko dugu: kultura, politika eta pu-  
blikotasuna. Kulturari norbait izateak emandako nortasu-  
nean finkaturik, intelektualak parte hartzen du politikan  
era publiko eta manifestu batez: horra definizioa.

Bestalde, pentsa liteke politikaren erresuman egiaren  
eta printzipio moralen begiratzea intelektuaren lana dela.  
Baina ez. Mundua aldatu nahi duen intelektualak ezin de-  
zake politikatik aparte bizi, eta politika ez da morala, ez  
eta egiazalea ere. Kontradikzio baten barnean murgiltzen  
da intelektuala. Intelektual konprometitu idealarentzat,

---

**Emilio Lopez Adan** idazlea *Euskadi 1984* (1979) eta *Bortu goretan  
lainope* (1982) liburuen egilea da. Ginekologoa da lanbidez.

morala eta oinarrizko printzipioek guztiz baztertezinak beharko lukete; bestalde, jakintsu den neurrian eta bere alorreko ezagutza zientifikoen printzipioak menderatzen baditu, garrantzirik handiena eman beharko lioke objektibotasunaren inperatiboari. Baina politikan askoz garrantzitsuagoa da eraginkortasunaren inperatiboa, eta usu egia-  
ren manipulatzeko eta justiziaren bazterteza bilakatzen dira eraginkortasun inmediatearen baldintzak. Horiek hola, politikaren inmoralitatea onartu dute kultur pertsonaia anitzek, eta, besteek bezala, eguneroko inmoralitatea mozo rotu dute kausa eta hitz handien atzean: boteretsuen zerbitzuko ibiltzeari eduki morala emateko, aski da demokraziaren hautetsiei eta mekanismoei fidelitatea aipatzea; diktadurarako nagusiekin ibiltzeko, aberria edo iraultza inbokatzeak dena zurriz du.

Mugimendu politiko baten ondoan edo barnean dabilen intelektual libreak oso lan gogorra dauka printzipio eta exigentzia kontradiktorio horien artean ibiltzeko, eta arazo horrek markatuko du intelektualen historia. Alta, hogeigarren mendean izan diren ereduaren artean bat hartuko dugu zilegitasunaren gidatzat: herri xehearekin konpromisoan finkatu dena, aparatu politikoei buruz askatasuna begiratu duena eta botereekin ados ez izateko gaitasuna bururaino atxiki duena.

## Intelektual konprometituen iduriak

2.a. European, intelektualen eta bizitza publikoaren arteko harreman estua Dreyfus aferarekin hasi zen; Emile Zola-ren manifestu famatuak (*J'accuse*) eman zion sorteguna: 1898. Iritzi publikoan ondorio politikoak sortu zituzten, baina justizia eta egia-  
ren izenean egiten ziren, mundua aldatzeko mugimendu politiko organizatu bati atxiki gabe.

2.b. Faxismo eta komunismoaren arteko borroka publikoaren garaian agertu zen ideologia edo alderdi batekin konpromiso zehatzagoaren beharra. Intelektualen eragin berezia ikertu zen Brasillach-en kasuan (1945), eta he-

riotza-zigorra eman zioten Frantziako okupazioaren krimenetan izan erantzukizun ideologikoarengatik. Finean, intelektuaren konpromiso organikoaren adibide nagusiak komunismoak eskaini dizkigu: Lenin-ek zioen langileriari kontzientzia politikoa kanpotik ekarri behar zitzaioela, eta Gramsci-k (1930) eman zuen iduri landuena eta karakterizatua, «intelektual organikoarena». Haren arabera, intelektualak politika eta filosofia lotzen ditu, ekintzaren zinezko alorretan parte hartzen du, hau da, partidu eta sindikatuetan, eta langileen alderdiaren zuzendari eta eratzailer kolektibo bilakatzen da.

2.c. Ikuspegi sobera ideologikoetan sartzeak baditu bere makurrak, eta bat da egia eta jarrera ofizialak nahasteko tirria. Marxismoan, ideologiak hartu zuen ezagutza eta etikaren lekua, eta intelektuala ideologo bilakatu zuen. Zorrotz etsaiei buruz eta kamuts alderdiarekin, intelektual organikoa nahastu zen intentzio onez beteriko «bidaia lagunarekin», zeina sobera akritiko bihurtzen denean «zozo erabilgari» bukatzen baitu. Bere-bere zeukan nortasunarekin, Sartre-k eskaini zigun intelektual nahasi horren iduri luzeena (1940-1980): harentzat, intelektuala sartzen da behar ez diren lekuetan egia eta jarrera dominanteak kontestatzeke, eta hori pertsona eta jendartearen kontzepzio orokor baten izenean; nonbait, zapaltzaileekiko gorrotoak eta kontzepzio orokorraren egiak konpentsatzen dute edozeretan nahasteko formakuntzaren eskasia. Sartre bezalako goi mailako intelektualengan jarrera horrek ondorio galgariak izan ditu, eta desastre hutsa bilakatu da maila arrunteko funtzionario eta ideologoen eskuetan.

2.d. Horregatik, beti izan dira dogmatismo eta alderdikeriaren sospetxak politika organizatuekin sobera lotuak diren intelektuaren gainean. Goiz ageri ziren kritikak, eta argudio nagusiak aurkitzen ahal dira dagoeneko Julien Benda-engan (*La trahison des clercs*, 1927): lotura politikoa egiaren kaltetan egiten da. Kritika hori muturre-raino eramaten bada, edozein inplikazio politiko arbuiazen da, eta hori politika kontserbadorearen mesedetan gertatzen da, horrek sistemaren gestioa baizik ez baitu eskatzen.



Badira, berriz, beste manerak politikan sartzeko, profetismo ideologikotik aparte, eta independentzia eta zuzentasun intelektuala begiratuz. Haien artean bat arras argigarria, «intelektual espezifikoa». Foucault-ek, 1968ko segidan, eman zion gorputz teorikoa. Giroa alderdien aparatuen aurkakoa zen, eta batzuk ezker muturreko sektarismoan erori baziren ere, beste batzuek egin zuten dogmatismo ideologikoaren kritika intelektual zuzena, eta zientzia eta politikaren arteko harremanak zorrotz ikertu zituzten. Gure gaiari buruz, bi ondorio: hasteko, edozein adituk jakin beharko luke bere gai espezifikokoaren zinezko ezagutza izan nahi badu, jendartearen bizitza sozial eta politikoa sartu egin behar duela, jakintzen oinarriak eta mugak ulertzeko; gero, politikan eragina izan nahi badu, aipatuko eta salatuko dituen arazoen ikertzeko bere alor propioan bildu metodologia eta zurruntasuna erabili beharko ditu.

Urrun gaude ideologia batek argiturik edozertaz mintzatzeko ausartzen den profetarengandik, eta egiaren exijentziak berak urruntzen du intelektuala boterearen zerbitzutik. Azken urteotan, Carlo Ginzburg-ek eman digu exijentzia horien ilustrazio aberats eta hunkigarria, Adriano Sofri-ren kasuaz eraman duen ikerketaren bidez (*Il Giudice e lo storico*, 1991): justiziaren eta boterearen metodo inkisitorialak salatuz, ondorio politiko orokorrak atera ditu, eta ez dogma batzuen jabe delako, baizik eta bere alorreko metodologia era zuzen eta konprometituaz aplikatu diolako justiziaren funtzionamenduari. Edozeinek badu ere injustizia salatze eskubidea, kausa on bati eransten zaizkion arrazoi txarrek ez diote onik egiten, eta intelektualen eginkizuna lotua da exijentzia metodologiko eta logikoen erabiltzearekin.

## Badaezpada, adituengandik bereiztu

Bistan dena, beraz, intelektuala ez dela soilki jakintsu bat. Intelektualak badauka oso harreman espezifikoa politikarekin: jakinduriak ematen dion sona baliatzen du

ekintzaren bidez. Horra nola bereizten den beste zientifiko, akademiko edo artistengandik.

Azken horiek ez dute beren indar espezifiko plaza publikoan erabiltzen. Gehienetan, boterearen mesedeak eta ohoreak gauza natural bezala onartzen dituzte, eta isiltasunarekin ordaintzen dute urrezko bakea. Onenean, idealen zerbitzuko idazten edo sortzen dute, baina gelditzen dira unibertsal abstraktuan, edota Unibertsitateko laguntzat bakarrik. Ikertzen ari garen alorretik kanpo gelditzen dira.

## Figuraren gainbehera

Azken urteotan anitz idatzi eta entzun da intelektual militanteen gainbeheraz. Badira arrazoi desberdinak, eta bat izan daiteke jendartearen barneko komunikazio tresnen aldakuntza, non ikus-entzunezko eta publizitateko araudiek lekuz kanpo utzi omen dituzten intelektualen tresna ohikoak, hau da, liburua eta artikulua idatzia. Baieztapen hau ez da hain egia ebidentea, nahiz eta nabaria izan telebistako tertuliano arinen lekua. Aipa dezadan 1987an Alain Finkielkraut-ek argitaratu *La Défaite de la Pensée* liburua, ezinegon horren erakuslea.

Politikari emandako lehenetsunaren barnean, beste hiru arrazoi ikertuko ditugu hemen: ilusio iraultzaileen porrota, akademizismoaren tentaldia eta kontserbadorismo berria, bigarrena azkenaren ondorioztat ikus badaiteke ere.

## Iraultzaren porrota

1974an gure artera heldu zen Alexandre Soljenitsin-en *Gulag artxipelagoa*. Hemendik aurrera, marxismoak behera egin du. Hogeita hamar urtez, depurazioak eskuin muturreko intelektualak garbitu zituen momentutik, Frantzia eta ondoko estatuetan marxismoa izan zen intelektual konprometituen erreferentzia nagusia: metodo zientifikogisa, etorkizunaren promesa bezala, eta ekialdeko estatuen

sostenguariekin eta sostengurako. Bakoitzak marxismoa ulertu zuen bere moduz, baina gehienek sistema orokor bat bezala; giro horretan hedatu zen Euskal Herriko pentsaera aurrerakoi ezkeriarra. Gure belaunaldiarentzat, Raymond Aron eta beste intelektual eskuindarrak kontraeredu isolatu eta zokoratuak ziren, eta pentsalari iraultzaileei egiten zizkieten kritikak (Aronen beraren *L'Opium des intellectuels* 1955ekoa da) ez ziren kontuan hartzen.

Gerla hotsaren ingurunean, anitz izan dira munduan zehar jarrera hori izan dutenak. Gehiago dena, bururaino joan nahi zuten intelektual batzuek, independentzia politikoaren zentzua arrunt galdurik eta bide laburretatik justizia lehenbailehen ekartzeko, botere armatuarekin eta diktadorekin egin zuten topo, eta onartu. 1960-70eko urteetan, intelektual anitzek erakutsi zuten botere bokazio oso handia; batzuek, diktadura komunista edo antikolonialisten apologia akritikoa egin zuten, komunismo sobietarraren bidaia-lagunen ildotik; beste batzuek borroka armatuan parte hartzea hautatu zuten, usu balore moralen zampaketa onartuz kausa handiaren zerbitzuko.

Modelo horien hutsegite estrategikoak eta hondamendi moralak ekarri zuten krisia, orain arte iraun duena.

Geroztik, ugaritu dira marxismoaren aurkako kritika antitotalitarioak. Frantzian, bereziki, «filosofo berrien» garaian hasi ziren, Bernard Henri-Lévy eta André Glucksmann-ekin, besteak beste. Indotxinako gerlak arrunt desakreditatu zuen komunismo estatala, eta errefuxiatu inozenteen alde Aron eta Sartre elkartu ziren 1979an, *boat people* kasua zela eta. Gero, 1980an Sartre hil zenean, bazirudien dinosauro iraultzaileen kasta galduko zela.

Orain, totalitarismoaren salakuntzaren bidetik, estatu komunisten desmasiak ez dira aurkezten anarkistek salatu errakuntza autoritarioaren ondorio bezala, baizik eta utopia askatzaile guztien ondorio diktatorial beharrezko bezala. Gainera, azken estatu komunistek ekonomia kapitalista onartu dute eta komunismotik atxiki duten ezaguri bakarria alderdiaren diktadura izan da eta, gehiago dena, Mendebaldeko alderdi proletarioen hondamendiak eta mugimendu sozialen ahuldadeak ez dute alternatiba

iraultzailerik sortu: ezkerreko «intelektual organikoa» eus-karririk gabe eta umezurtz gelditu da.

## Akademizismoaren aterpea

Ikerbide hori Estatu Batuetatik dator batez ere, han intelektual konprometituen desagerpenaz aspalditik mintzatzen baita. Hain zuzen, akademizismoa eta profesionalizatzea aipatzen dira iduri konprometitua ren gain-behera esplikatzeko. Hortaz dihardu Russell Jacoby-ren 1987ko *The Last Intellectuals* libururak, erranez eta «intelektual publikoa», hau da, eztabaida politikoetan sartzen dena, galtzen ari zela. Inork ez dezan ondorioztatu intelektual iparramerikar guztiak politika kontestatario aktibotik kanpo direla: han dira, besteak beste, Noam Chomsky eta Murray Bookchin, eta usu Iparramerikatik heltzen zaizkigu ikasteko paradak.

Azalpen psiko-politiko pertsonala bada. Pentsaera kritiko ezkertiarak onar dezake ikuspegi orokor salbatzaileen eta «kondaira handiosen» garaia bukatua dela. Ondorioz, eta alternatiba iraultzailearen gabezia, intelektual zintzo batek pentsa dezake lekuri ez duela politikan; egia sektorialaren bila ibiltzen ahal da, bere ikerketek jendartearen ulermen kritikoari zerbait ekarriko dioten esperantzarekin.

Baina aldakuntzaren oinarriak sistemak berak sortu ditu. Unibertsitatea masifikatu da, genio ukiezin gutxi bada, eta irakasleak behar dituen fondoak eta foroak botereak kontratatzen ditu. Oro har eta kasu gehienetan, kanpoko sostengu eta praktika kontestatariorik gabeko funtzionarioa lerratuko da lankideen arteko bizitza akademikora, edozein subertsiotik aparte.

## Estatuaren legitimazioa

Baina ez gara ikuspegi intelektual iraultzaileen krisi soilean. Marxismoak baztertu zituen pentsaera liberal eta sozialdemokrata berpizten ari dira, eta ez soilki berpiztu, iraultzaren ezin moral eta politikoa baieztatzen duten bo-

tere kontserbadoreen euskarri bilakatu dira. Ez da intelektualen desagerpena, baizik eta norabidearen aldatze bat: edozein ideologia askatzailetan totalitarismoaren sus-traiak ikusten dituzte, eta intelektualen eginkizuna, utopia odoltsuetatik askatua, moral unibertsal eta demokrazia liberalarekin lotzen dute. Poliki-poliki, ilusio iraultzaileen lekuan ezarri dute bikote guttziz garbia: mendebaldeko balore demokratikoak eta ekintza humanitarioak.

Aldakuntza sozial eta geopolitikoen ondorioz, 1980tik aurrera intelektuala ez da gehiago estatuaren etsaia. Estatu espainolean, trantsizioak berak erraztu zuen eboluzioa, frankismoaren arerioak demokraziaren sostengu bilakatu-z. Baina arazoa orokorra da: nabaria Latinoamerikan, domeinu diktatorialaren eredia ahitu zenean eta domeinu demokratikoarena bertako eliteek eta Estatu Batuek onartu zutenean; duela hogeita hamar urteko iraultzaile sutsu askok parte hartzen du aparatu estatal berrietan. Berdin Mendebaldeko Europa, sozialdemokraziaren arrakasta elektoralaren inguruan. Beste alternatibaren eskasian sozialdemokraziarekin uztartzea ulertzen bada, nekez uler daiteke eskuinarekin eta eskuin muturrearekin akometazea, nahiz eta azken hauek demokrazia formalaren bidez hautatuak izan; baina eboluzioaren legeak bihurriak dira eta, zirkuan bezala, itzulipurdi handiena egiten duenaren balentria da gehien txalotzen dena: atzo anarkista edo etarra, eta gaur poliziaren aholkularia, horra espiritu independente eta zaluaren froga!

Onar dezagun askatasunaren aldeko baloreetatik abiatu direla. Justizia defendatzeko lekurik hautuena estatua dela baieztatzeko, askatasunaren defentsako alorrean argudiatzen dute. Omen, globalizazioaren eta multinazional kapitalisten aurka, estatuak begiratzen ditu nortasun nazionala eta jende xehearen defentsa. Omen, estatua ez da gehiago klase nagusien tresna, askatasunaren bermea baizik. Esperantza iraultzailearen krisiarekin uztartzen bada ere, bilakabide hori intelektualen alde arriskutsuenarekin lotzen da: ministroen kontseilari bilakaturik, boterea gurtzen eta baliatzen dute, errealitatea haren alde moztzeko.

Horrela, tipologia modernoan intelektual tipo batzuk bereiz daitezke. Badira komunikabideek sortu intelektual mediatikoak, usu azalezkoak, opinio sortzaileak eta, beraz, lekua dutenak botereen interesen arabera; botere politikotik hurbilago dira gobernuek eta enpresek onartu aditu bereziak: beren burua definitzeko, beraiek diote ez direla gehiago «intelektual kritikoak», baizik eta «proposamenak ontzeko intelektualak». Ondorioak, intelektual kritikoak juzgatzen dira anakroniko edo alfer bezala, eta aditu ofizialek zokoratzen eta mespretxatzen dituzte.

## Etorkizunari buruz

Ez naiz tematuko estatuaren zerbitzuko intelektualen eginkizunaz, baina intelektualen eginbehar historikoaren desbideratze nabarizat daukat. Azken finean, mugimendu intelektual oso boteretsu ageri da, arrunt kontserbadorrea, iraultzaren ukaziotik sistemaren defentsa hutsera uzkailldu dena: neoliberalismoa jotzen du eginkizun guztien oinarri ekonomiko eta soziala, eta moral tradizional estuenean finkatzen da. Jende eskubideen irakurketa motz eta interesatua egiten du, eskubide politikoak demokrazia formalarekin identifikatuz, eskubide sozialen murizketa onartuz eta horren desagertzea karitatearekin «konpentsatuz». Bestalde, erreboltarako eskubidea ukatzen du estatuari biolentziaren monopolio osoa uzten dion moral unibertsal erreakzionarioaren izenean.

Komeniko litzateke ere ziniko eta desenkantatuen figura aipatzea. Moralaren izenean oihuka agertzen diren intelektual mediatiko batzuen jokamoldea da. Utopia odoltsuak eta estatu hipokritak salatzen dituzte, baina ez dute inongo irtenbiderik eskaintzen eta, berriz, ederki baliatzen dira komunikabideek emandako sonaz. Moralaren erpinean agertzen diren bitartean, sistemaren errekurtsoen zurgatzaile ederrak dira, irakaskuntzan, ikerketan edo oho-retan. Bada hor sanoa ez den zerbait, eta intelektualei buruzko deskreditua areagotzen duena. Finean, haien kasuetan ere badirudi manikeismo utopiko ezkertiarrekin haut-

siz geroz botereekin adiskidetu behar dela, nahiz eta adiskidantza hori genio biziak markatu: egun aholkulari berezia, bihar kritiko zorrotza, etzi ezinbesteko aditua... Batzuen ustez, Régis Debray-ren azken liburua (*I.F. Suite et fin*, 2000) biografia pertsonal bat eredu unibertsalera altxatzeko entsegua da. Botereari buruz asko ikasi dut nik Debrayren liburuetan, baina orain ehortzi dituen intelektualek beste zereginik badutela uste dut.

Zeren eta ez baitira arras galdu boterearen kritikaz eta zanpatuen zerbitzutan jarraitu nahi dutenak. Haien artean ageri diren bi jokamolde berriak aipatuko ditut.

## Jende eskubideetara mugatzeko tirria

Ideologia totalitarioek eman eskarmentuarekin, jende eskubideen errespetuari lotu dira intelektualak, eta anitzek ez dute galdu estatuen «politika errealista» salatzeke gaitasuna. Jende eskubideen errespetuaren izenean, kontzeptu berriak ageri dira: nazioarteko politikan, eskubide horiek zanpatzen dituzten estatuen aurka interbenitzeko eskubidea; mendebaldeko nazio-estatuen bamean, marginatuen aldeko mugimenduak. Oro har, jende eskubideen militanteak oso lotuak dira Gobernu Kanpoko Erakundeekin (GKE).

Iraultza egiteko estrategiaren eskasian, baita kapitalismo liberalari alternatiba gauzagarria definitu gabe daukagunean ere, oso ulergarriak dira jokaera horiek. Nahikoa desastre izan da azken urteotan, eta han ibilitakoek ikusi dute zer den jendeen sufrimendua eta zer axola gutxi dioten estatuek: Indotxinako errefuxiatuak, gero Etiopia, Afganistan, miskito edo yanomami indiarak, Kurdistan laurkitua, Liberia, Bosnia, Kosovo... Gainera, nabaria da ez dela mundu osoko miserien erantzule bakar eta identifikatua: horrearen eragileak askotarikoak eta difuminatuak dira. Eta gero etxean, paperik gabeko etorkinak, lanik gabeko zokoratuak, miserian bizi den portzentaje kenezin hori... Hots, bazen zer eta bada zer egin, eta garrantzi gehiago eman diote zaurien sendatzeari salaketa politikoari baino.

Paleokomunistek eta superezkertiarrek bortizki salatzen dituzte GKEak eta interbentzionismo humanitarioaren intelektualak, inperialismoaren morroiak eta sistemaren sostenguak bailiran. Nire ustez, kritika hori ez da egokia: estatuen hipokrisia eta indarraren domeinua borrokatzen dituzten neurrian onargarriak dira. Eskasiak ere badituzte. Hasteko, jende eskubideen deklarazioa ezin daiteke politikaren lekuan ezarri, baloreen oinarriak eta politikan behar diren sistema aldatzeko moldeak plano desberdinetan ezartzen baitira. Gero, interbentzio humanitarioak noiz, non eta nola egiten diren ez da salaketa mediatikoen ondorioa, baizik eta estatuen interes geopolitikoen araberakoa. Zergatik Kosovon bai eta Tibeten edo Turkian ez? Indar-erlazioak direla eta, salaketa humanistak bilakatzen ahal dira kontrola ezin daitezkeen interes ekonomiko eta militarren estakuru. Bukatzeko, GKEen interbentzioek miseriak arintzen badituzte ere ez dute inongo eraginkortasunik oinarrizko arazoak konpontzeko, eta ez dituzte zapalkuntzaren harremanak aldatzen, nahiz eta merezimendu handia ukan eta aberatsen lotsarako izan.

## Demokraziarako arartekoak

Bada beste funtzio bat, oso lotua oraingoarekin, eta hau da Norberto Bobbio-k (*La Duda y la Elección. Intelectuales y Poder en la Sociedad Contemporánea*, edizio espainola, 1997) aipatzen duena. Gure jendarteetan galdu da borroka soziala gerlaren bidez irabazteko esperantza hurbila, baina gatazkak badira. Leku batzuetan, gure Euskal Herrian bezala, gatazka horiek odoltsuak dira, ez dute bukatzeko jiterik erakusten, eta haustura soziala eragiteko gai dira. Ez da harrigarria batzuek ararteko dinamikoen rola izan nahi badute: ez ekidistantzian eta borroken gaitetik egoteko, baizik eta gatazken oinarrietan murgiltzeko eta irtenbide errealista eta duina errealismoarekin bilatzeko.

Ez da lan erraza, gatazka biziaren dinamikak berak intelektualen askatasuna, disidentziarako gaitasuna eta elkarrizketa argumentaturako tresnak murrizten baititu. Al-



derdien logikan, «nirekin ala nire kontra» da erregela nagusia, eta logika horrek hiltzen ditu pentsatzeko askatasuna eta pentsaera desberdinak konfrontatzeko gaitasuna. Alta, gatazken ulertzeko gune intelektual autonomoak beharrezkoak dira, eta ez zentsurak, ez eta mehatxu fisikoek ere, ez lukete murriztu behar.

Hemen ere, jende eskubideen aldeko eginkizunentzat bezala, desegokiak eta sektarioak iruditzen zaizkit hiper-militanteen kritika absolutuak. Elkarizketaren kulturak ez du gizartea goitik behera aldatuko, baina beharrezkoa da, eta orain posible zaizkigun eginkizun apalen barnean sartzen da. Bestalde, intelektualei buruzko ikuspegi hori lotzen da gizarte osoa kudeatzeko abertzaletasun konstituzionalaren ideiarekin. Ikusmolde bi horiek onartu dituzten esparru sozialekin ibili gabe ez zaio gure gatazkari irtenbiderik aurkituko.

## Bukatzeko, kritika libertarioaren beharra

Ideologia nagusiaren arabera, badirudi garaian garaiko izan nahi duen pentsalariak onartu behar duela historia, iraultza eta intelektualak bukatu direla. Bendak aipatu zuen traizioa, Aronek opioa, eta Finkielkrautek derrota... Oro har, ezkerreko intelektuala ehortzi dute filosofo berriek, eta orain intelektuala bera ere ehortzen ari dira aditu mediatikoak. Debrayren bidetik, Umberto Eco-k berrikitan erran du (*La bustina di Minerva*): «intelektualen lehen eginkizuna isiltzea da», arazo sozialen kudeaketa aditu eta botere publikoen eskuetan uzteko...

Badira beste ikuspegiak, eta hor Derrida, Castoriadis, Baudrillard eta Bourdieu aipatu beharko lirateke. Haien pentsaera laburtzeko ezinean, azpimarra dezadan zer garrantzi duen botereari buruzko harreman kritikoak. Ildo horretatik, eta intelektualen etorkizuna politikari lotua denez, hurrengo urteotan planteatuko den galdera hauxe da: zer eduki emanen diogu egite kritikoari kapitalismoaren ordezeko alternatiba argirik ez dugun bitartean? Horra politikaren zailtasuna eta horra intelektualen lana, alter-

natiba horren bilatzeko erreboltatuen esperientzietan finkatu behar baita etengabe.

Alternatibarik eza diodanean, ez dut erran nahi utopia komunistaren balore iraunkorrek ez dutenik baliorik. Justizia, berdintasuna, askatasuna, demokrazia, elkarlaguntza eta komunitarismoa balore iraunkorrak dira; berrikitan ageri diren ekologiaren exijentziak gaineratu behar zaizkie. Hemen, estrategiaren eskasiaz ari naiz. Sozialdemokraziak pretenditu du balore horien egokitzea mundu liberal, globalizatu eta kapitalistari; Anthony Giddens-ek (*La tercera vía. La renovación de la socialdemocracia*, edizio espainola, 1999) indar ederra egin du intentzio onak justifikatzeko, baina «hiru gauren bidea» zapalkuntzan integratua da. Pentsaera iraultzaileak bilatu behar du oraingo sistema nondik hautsi.

Erreferentzia desberdin askoren artean, iruditzen zait kritika horrek antiautoritarioa izan beharko duela, eta garrantzi handia eman indibiduoek eta elkarte txikiek egiten dituzten autonomia entseguetara. Hots, politika hurbilaren kudeaketa ekologiko eta demokratikoarekin lotu, globalizazioak sortu gorpil eroari uko egiteko. Badira horrelako esperientziak eta agian zerbait aterako da.

Horren zain, eguneroko borroketan zorrotzen dira kritikaren armak. Ahuleziaren sentimenduak hurbiltzen gaitu Giddens bezalako sozialdemokratengana, John Rawls bezalako liberalengana (*Teoría de la justicia*, edizio mexikarra, 1995), edo Bobbio bezalako arartekoengana, baina beti posible iruditzen zait Foucault eta Ginzburgen bidetik jarraitzea Gramsci berpiztu eta libertario aurkitzeko esperantzarekin. Zergatik ez?

# Intelektual bertsolariaren garaia



MARIO ZUBIAGA



## Nolakotasuna da edukia». Intelektualaren forma postmodernoa

Hitz-joko azkarrak, ale bitxiak, mintz-apar ikusgarria, jario arina eta entzulego fidelak berretsi nahi duena polito botatzea, horiek dira bertsolariari betidanik eskatu zaizkionak.

Kultura herrikoiaren eskaera zen hori, herriaren irudimenak aise uler zezakeen pizgarria edo lasaigarria izan baita beti bertsoa. Askotan isekari, batzutan sakon, gutxitan lizun, beti hala beti esatari eraginkorrak izan ohi dira bertsolariak.

Dakienari utziko diogu tartea. Honela zioen duela gutxi Andoni Egañak<sup>1</sup>:

Bertsoa klinex bat da, bertsoa bota egiten da eta entzuleak erabili ahala ahaztu egiten du. Bat-batean perla gogoangarriak oso gutxi izaten dira. Bertsoaren funtzioa ez da nagusiki artistikoa, komunikatiboa baizik eta egiteko horren barruan erabaki beharko dugu zer asmo duen leku eta une jakin horretan: asmo ludiko huts bat, asmo ideologikoa edo asmo sermoilari bat. Eta bertsoa ondo egoitzen zaie gaurko kulturaren ezaugarriei: gauzak ez dire-

1 **Mario Zubiaga** EHUko Politika eta Administrazio Zientzien saileko irakaslea da.

la alegia sakondu, memorizatu eta gordetzeko; hartu, gozatu eta botatzeko baizik.

Zuzenak dira esandakoak. Ortegak aspaldian iragarritako masen matxinadaren ostean ezin bereiztu daitezke kultura herrikoa eta horren goiti legokeen kultura jaso; edonork kontsumitu dezakeena eta elite batentzako egin-dakoa; sortu bezain pronto agortzen dena edo gordetzekoa, museotan zein liburu marduletan.

Garai batean intelektualaren lana, hein handi batean, kideen artean eztabaidatzen zen, eta emaitza goitik behera hedatu gero, masaren elikagai eztabidaezin legez.

Iritzia eta sorkuntza kulturalak, merkantzia berri gisa, masa hedabideen bitartez merkatu ekonomian sartu direnetik<sup>2</sup>, intelektualen lana masifikatu eta «demokratizatu» egin da: inoiz baino intelektual gehiago aukeran, marka-izen ezagunak inoiz baino ezagunagoak, inoiz baino entzunagoak eta jarraituak...

Alabaina, merkatu komunikatiboak bere burdinazko lege ezkutua du: azkar, argi, arin. Hau da, edozein iritzi edo kultur adierazpeni agintzen zaion hirukoa. Intelektualak, eragin soziala izan nahi duen langile kulturala, aitzitik, beste arau baten menpe egon nahiko luke: lasai, astiro, sakon eta, sarritan, ñabarduren edota elitismoaren aginduz, ilun.

«Iritzi zentzuduna» baldin bada intelektualaren ekoizpena, nolako produktua eskain dezake aipatutako baldintzetan? Bitartekoa baldin bada mezua, eta bitartekoa suziria bezain arina eta galkorra bada, zertan geratzen da mezua? Testuingururik gabeko irudietan zer gogoeta mota oinarritu daiteke?

«Ahozkotasunaren eta irudiaren merkatu global» honetan, intelektualaren jarduera paradoxikoa da guztiz. Zorabio mediatikoan itoko ez bada, intelektualak ezin du bere jatorrizko lana komunikabide merkatuaren eritmoan burutu: «iritzi eroak» besterik ez datoz behartutako ekoizpenetik. Baina, era berean, intelektuala merkatuan dago jadanik, eta izan dezakeen oihartzuna komunikabideen eskutik datorrenez, esparru honetan eraginkorra izateko orain arte landu ez dituen dohain eta abileziak garatu be-

harko ditu. Marketin teknikak pentsamendua baldartzen badute ere.<sup>3</sup>

«*Fast thinkers*» edo pentsalari arin horien bapatekotasun kutsakorra mundu mailan hedatu den bezala, gurean ere «intelektual bertsolariaren» jarduna nagusitzen ari da. Bertsolari finen antzera, oraingo intelektualak gai-jartzai-learen esanetara eta puntuari jarraikiz dihardu. Berrikuntza asmorik gabe.

Idea multzo sendoz hornitutako buru argitsuen garaiak atzean utzi omen ditugunez, edozertarako prest dagoen intelektual hori espektakuluaren morroi bilakatzen ari da.

## Zertarakotasun anitza». Intelektualaren zeregina gizartean

Mezuaren nolakotasunak agintzen badu ere, ezin dugu mezuaren edukia bera ahaztu. Egia esan, intelektualaren irudi modernoa, bere gizartearekin gau eta egun konprometituta zegoen herritar buruargia, inoiz egon bada, ia desagertuta dago. Sasoi honen ezaugarrietariko bat subjektu-egoeraren aniztasuna baita. Denbora guztian eta edonon intelektual koherentearen papera bete nahi duena ez dator bat garai historikoaren espirituarekin.<sup>4</sup> Intelektual mota asko dago eta, areago oraindik, intelektual bakoitzak mezu mota anitz bidera dezake gizartera, kontraesankorrak askotan: gaur iritzi bat, bihar kontrakoa.

Gauzak honela, egungo intelektualek aukera gehiago dute aurrean. Hala ere, gizarte aldaketaren inguruan bakoitzak duen jarrera izan daiteke sailkapena egiteko irizpiderik eraginkorrena.

Gizarte aldaketan parte hartuko badu, berau bultzatuz edo oztopatuz, bi familian elkartu daitezke intelektualak: marxismoaren oinordekoek osatzen duten horretan, batetik, eta edozein botereren zerbitzarien artekoan, bestetik.

Beste aukera nagusia gizarte aldaketan zuzeneko protagonismoa ez hartzea izango litzateke, eta kasu hone-

tan berriro ere bi aukera zabaltzen zaizkio intelektualari: errealitate gordinetik urruntzea, intelektual zinikoaren jarrera hartuta, edo intelektual argi eramale ilustratuarena egitea, beti ere gertaera sozialetan gehiegi ziprztindu gabe.

Denak teoria eta praxiaren arteko lotura ezberdinek sortzen duten korapiloan harrapatuta daude.<sup>5</sup>

a) *Intelektual subertsiboa edo eraldatzailea*. Marxismoak XIX. mendearen amaieratik aldaketaren (iraultzaren) gizona mantendu zuen. Gero, sozialismo errealearen utopia erreorduko, ezker berriaren izenean eta gizarte mugimenduen gidari teoriko bezala, hirurogeiko hamarkadako ahobatekotasuna kolokan jarri zuten intelektual postmarxistek. Azken urteotan, berriz, pentsamendu mugatu, agortu edo bakararen garaian, kapitalismoari oso-osoko alternatibarik ematen ez zaion honetan, baztertuen matxinada bihurtu da subertsioaren lelo berria. Globalizazioaren aurkako praxiarekin berpiztu dira aldaketaren intelektualak, oraingoan «baztertuen intelektual» gisa. Edward Said idazle palestinarrek bildu ditu azpiratuen intelektualaren lanaren nondik norakoak:

Erakunde handien boterea, enpresa zein Estatuena, ez dator berez bat gizabanako zein ustez egoera azpiratuan dauden gutxiengo, herri eta Estatu txiki, kultura eta arraza xumeekin. Eta ez dut inongo dudarik intelektualaren lana ahulen eta ordezkartzarik ez dutenen aldean dagoela.<sup>6</sup>

Ezkertiar berriek jarrera honekin bat egin dezakete, baina Goldfarb-ek azpimarratzen duen bezala, beste elementu bat gehitu zaio ahularen defentsan oinarritutako betiko lelo askatzaileari. Alegia, nortasun sendoa duten talde zanpatuen aldeko borroka dela hori, eta hortaz, bigarren mailan uzten direla «egiaren» bilaketa, ongizate orokorra, justizia eta ezkerak askotan bereak egin dituen beste balio unibertsalak. Dena dela, ikuskera neo-marxista edo indigenista hartuta ere, globalizazioaren ondorio zanzatzaileak onartzen ez dituztenak batzen ari direla ezin uka genezake. Teoria antolatu baten inguruan ez bada, kontra egiteko, oztopatzeko bederen, ekintza-batasuna badago, Seattlen, Pragan eta beste zenbait lekutan ikusi ahal izan dugun bezala.<sup>7</sup>

Azkenik, intelektual eraldatzailearen betidaniko arazo —oihartzun eskasa— areagotu egin da urteotan. Sare telematiko eta masa-hedabideek ahotsen ugaltzea erraztu duten arren, sortutako informazio uholdean lehen itotzen direnak iritzi xumeak baitira. Agenda publiko nagusietatik kanpo dagoelako, alde batetik, eta bestetik, intelektual mota hau ez delako eroso sentitzen bitarteko mediatikoez ezartzen duten dinamika arin eta berez antiutopikoan, intelektual subertsiboa zelatan bizi da, ezkutatua, edota, bestela, jarrera estoikoa hartzen du.

Dena den, intelektual subertsiboez, garai batean intelektual-gidari edo ideologoaren funtzioa bete zutenek, orain, orotariko hizpiderik gabe, energia utopikoaren eramale gisa dihardute<sup>8</sup>. Teoria eta praxia bat eginez, edo praxia gero eta zailagoaren teoria landuz, baina gehiengotan —beste aukera «razionalagorik» posible ez delako— aurkakotasunezko praxi hutsean murgilduta daude.

b) «Zuzentasunaren» zaindari eta gordailu diren intelektualak, oinarritzko balioen interprete bakarrak, eta hortaz, sistemaren zerbitzariak. Azken batean, Machiavelliren hitzetan, «Printzearen aholkulariak» direnak.

Ideologiaren ustezko amaieran, arestian aipatu ditugunak bezain ideologoak izanik, diskurtso politiko omen zuzenaren beharrezkotasuna, ideologiatik bereiztu eta hizpide moralarekin hornitzen dute. Iraultzailea ez da, hortaz, oker dagoen arerio politikoa, «gupidaz» akabatu edo isolatu behar den pizti basati eta gaiztoa baizik. Maisuki azaldu du Joxe Azurmendik sistema bakoitzak baduela bere iraupena ziurtatzeko zuzentasun ildoak, eta hortaz sistema bakoitzak izango dituela hizpide horren kudeatzaile teoriakoak.

Noski, hau da behin eta berririo hedabide nagusietan agertzen den intelektual saritua, onura publiko guztiak jasotzen dituena. Ulergarria da, hortaz, talde ezberdinetatik etorrita baina bakoitzak bere burua legitimatzeko duen hizpidea utzi gabe, esparru eroso eta epel honetan biltzea: intelektual postmodernoak, zientzia eta jakituria teknikoaren izenean eta erlatibismoaren eskutik, edota ilustratuak, «zibismoa» ordenarekin (statu quo) eta ez eraldaketa, kriti-

ka edo subertsioarekin parekatzen dituzten neurrian. Era berean, Melucci-k salatzen duen bezala, hemen biltzen dira gizarte mugimenduen aholkulari izandako intelektual asko, errealismoaren izenean birmoldatu direnak.

Hain zuzen ere hauxe baita teoria eta praxia bat egiteko lekurik aproposena, egiazko teoriaren benetako praxia, eraginkorra, goraipamen guztiakin burutzen dena.

c) *Intelektual postmodernoa*. Honek badaki neutralitateak ez duela zentzurik, baina praktikan beste gordeleku erosoagoa topatu du haren ordez, zientzia eta praxia bereiztu omen beharrak eskaintzen diona, alegia. Aldaketa sozialetan eragile zuzena izatetik, aldaketan begirale izatera, teoria eta praxiaren arteko lotura koherentetik, hitz-jokoetara eta norberak bere bizitza artelan gisa lantzerara. Von Beyme-ren iritzian ezagutza eta eragiletza sozio-politikoak banandu izanaren arrazoiak asko dira:

Hasiera batean, aldaketaren ikuspegi marxistak sendoak ziren gunetan, erresistentzi planteamendu bezala proposatu zen. Gero, arriskua igarota, Modernitatearen ondorio gaiztoen aurreko jarrera moralak ezagutzari ekar ziezaiokeen mugaketa ekiditeko, zientzia eta praxia bereiztea komenigarri ikusi zen. Gainera, «pentsamenduaren jarduera» bizitzaren beste zenbait esparruetatik aldentzea —politikatik bereziki— oso egokia zen intelektual gehienak Estatuko funtzionarioak bihurtu zirenean.<sup>9</sup>

Azkenik, teorikoki lantzen zen gaia, eta berari zegokiokeen eragiletza soziala bereiztearekin batera, intelektualak bere talde edo lagunengandik ekintza sozialean murgil zedin jaso zezakeen eskakizuna saihestu egiten zuen, konpromiso eza justifikatuz.

Dena dago sistemaren baitan, izango dena barne. Horrela gauzak, zein zentzu du intelektualak beharriaren inguruan esan dezakeenak? Dena eta izango dena sistemak berak berez garatzen badu, beharriaren buruzko eztabaida oro antzua da.

Hortaz, zinismoa da garai postmodernoari dagokion jarrera. Neutralitatea ezinezkoa da, baina konpromisoak ez du zentzurik, eta honen guztiaren ondorioa, zera da: intelektual sortzez garbi, aritzez zikin eta, beti ere, jostailua.



Von Beymek azaldu bezala,

edozein konpromisoren aldeko mobilizazio uhinen aurrean, axolagabetasunaren atalase-maila igo eta manifestu guztiak sinatu edo batere ez, hauxe da intelektual postmodernoen artean hedatu den jarrera.<sup>10</sup>

Errealitatearen urak balizkoaren errotetara eramateko ahalegin antzutzalea, modernitatearen hizpide oso-osoko eta utopikoa, —soziala edota nazionala— amaitu da intelektual hauentzat. Praxi hutsa, bizitza, egitasmu artistiko bezala bizitzea da ardura bakarra.

d) *Intelektual ilustratua*. Ikuspegi honen arabera, ideologiatik aldentuta, intelektualek garrantzizko papera bete behar dute demokrazian. Are gehiago, ezinbesteko eragile demokratikoak dira, premiazko arazo sozialen inguruko eztabaida publiko razionala ahalbidetzen duten heinean. Hauxe da Goldfarbek defendatzen duen intelektual mota:

Intelektualak, euren ahalmen kritikoari esker eta botere guneetatik urrunduta, iritzi publikoari zuzentzen zaizkion atzerritar bereziak dira, gizarte demokratikoetan premiazko arazo sozialen inguruko eztabaida informatua bultzatzeko ardura dutenak. Bizitza publikoaren baitan zibismoa hedatzea, eta gizartearen zentzu ona bezain mugatua kolokan jartzea izango lirateke beraien helburu nagusiak.

Sokratesen independentzia eta kosta ala kostako «egia-  
ren bilaketa», Habermasen kezka egungo esparru publikoa-  
ren ahulezia dela eta, Arendt-en limurtze (pertsuasio) gai-  
tasunaren eta hitzaren gorentasunaren defentsa, eta beste  
hainbat pentsalarien jarrera zibikoa lan intelektual honen  
berezko ezaugarri bihurtu dira.

Eta, egia esan, Goldfarbek aipatzen duen zibismo-su-  
bertsio oreka hori mantenduz gero, intelektual ilustratuak  
bete dezakeen funtzio demokratikoa ezin da inolaz ere  
gutxietsi. Bereziki, sortzen ari den mundu mailako iritzi  
español gizaki guztiontzako minimoen inguruko ezta-  
baida publikoa, esaterako, erabat ezkutatuta dagoenean.

Beste kontu bat da, noski, eredu gaitasun diskurtsibo  
hutsean geratzen bada, eta gizarteak gatazkari berari zor

diona ahazten badu, intelektual honen ekarpena abstrakzio zintzo bezain antzuan gera daitekeela. Praxirik gabeko teoria hutsa, inork benetan inoiz jarraitzen ez duena.

Argigile izan beharrean asmo oneko argizari-jale ere bihur baitaiteke intelektual ilustratua.

Azkenik, intelektual hauek denek, batere neutroa ez den erantzukizuna daukate gizartearen aurrean. Finean, boterearen jokia ez da inoiz ume-jolas izango, eta globalizazioaren «printzeek» gero eta estuago agintzen duten neumian, intelektuala printzearen edo eskalearen zerbitzari izango ote den erabaki beharrean egongo da. Beti bezala, irabazle edo galtzailearentzako diskurtsoa sortzea edota garatzea izango delarik eskatuko zaion funtzio sozial nagusia. Mundu postmodernoan, aukera egin beharra ez baita besterik gabe desagertu, «bidea erakusten duenak bidea jarraitu behar ez badu ere».

## Intelektual «propioaren» beharraz

Euskal Herrian —gure baitako unibertso garen neurrian— aipatutako intelektual mota horiek guztiak daude. Eta munduan herri gisa irauteko, neurri batean behintzat, denak beharrezkoak izan daitezke.

Politika gordinetik babesteko euskalgintzaren aterpea hartu dutenak, euskal sormenari politikaren zama arintzeko dira baliagarriak. Utopia sozial eta nazional modernoaren izenean, «nazioarteko gutxiengoen» sare intelektuala sortu nahi dutenak, euskal mundu ikuskera landu-asmatu nahi dutenak, edota ikuskera horri eduki askatzaileak eman nahi dizkieten ezkertiar eraberrituak, ezinbestekoak dira gizarte aldaketaren eta euskal nortasunaren garapenerako. Eta azkenik, modernitatearen hizpide razionalaren kudeatzaileak direnak, erditze mingarri hauetan guztietan lagun dezaten, eta, bide batez, euskal komunitate zilbor-begirale hau kritika dezaten, komenigarriak dira oso.

Beste hainbat gai baztertu gabe, zeintzuk dira euskal intelektualek dituzten arazo bereziak?

BAT. Gatazka politikoak dena irensten du gurean, zulo beltza bailitzan. Eta borroka honetan intelektual mota guztiak daude harrapatuta:

Eraldatzaileak, izakeraz noski; postmodernoak, ezer egin gabe ere, edo horregatik bereziki; boterearen zerbitzariak, ongi ordainduta daudelako; eta habermastarrak, elkarrizketari eta gatazka konpontzeko neutralitate razionalari lehentasuna ematen diotenak, konponbideak ez direlako inoiz neutroak izaten. Hala eta guztiz ere, denek jantzen dituzte, estalki legitimatzaile gisa, egungo intelektualaren jantzi dotoreenak: independentzia eta jarrera kritiko ilustratua. Jantzi garden horien azpian, aitzitik, guztien gorputz ideologikoa biluzik ageri da iritzi publikoaren aurrean. Denak daude eragile politikoen esanetara, denak estrategia politiko baten barne. Esan nahi baita, espazio publikoan manifestu-sinatari legez agertzen diren intelektualak, gatazkan murgilduta dauden neurrian, nekez izan daitezke konponbiderako esparru publiko baten sortzaile, agian bai gatazkaren alderik mingarriena gaintzeko laguntzaile.<sup>11</sup>

BI. Dena den, egungo testuinguruaz aparte, nortasun kolektibo baten ibilbide korapilatsuaren historia luze eta paradoxikoa da gurea. Izan ere, modernizazioaren uhinekin batera, euskal nortasunaren defentsarako bitartekoak ere ailegatu zitzaizkigun-eta: nazioaren kontzeptu kolektiboa XX. mendearen hasieran, sozialismoaren eduki askatzailea mendearen erdialdean... Eta orain, zer? Pentsa genezake globalizazio prozesuak eta nazioarteko egitura politiko berrien eraikuntzak euskal nortasunaren antzako erronka gogorrak izango diren neurrian, hauei aurre egiteko tresnak ere ekarriko dizkigutela. Horixe izan daiteke euskal intelektualen bigarren ardura: adi egotea eta tresna ideologiko berriok gurera egokitzea.

HIRU. Rifkin-ek bere azken liburuan iradokitzen duen moduan,

kapital intelektualak da aro berriaren motorra: kontzeptuak, ideiak, irudiak dira baliiodun gai berriak, ez gauza materialak, orain arte bezala. Oraingoan irudimena da aberastasunaren neurria.

Informazioaren eta kulturaren kapitalismo berrian, esperientzia kulturalen merkantilizazioa muturrera eramanez gero, gutxiengo kulturalak arazo larriak izango dituzte. Munduko esperientzia kultural guztiak eskura baditugu, izango al dugu aisialdi nahikorik gure esperientzia kultural xumeak (ber)sortzeko eta hauekin eta ez mega-ekoizpen distiratsuekin disfrutatzeko? Bitarteko kulturalak, naturalak bezala, xahutu eta agortu daitezke, merkatuaren lege basatien menpe utziz gero. Eta euskal kulturak ezin du Bizkaiko burdinaren edo Kantauriko bisiguaren historia errepikatu.

Euskal nortasunak, zentzu honetan, bere garapen sostengaria ziurtatuko duen egitasmo estrategikoa beharko luke, eta lan honi dagokionez intelektualek duten erantzukizuna berebizikoa da.

LAU. Euskal Herriaz arduratzen ez diren intelektualak alboratuta<sup>12</sup>, euskal intelektual guztiak, alegia, eraldatzaileria, kulturgina, arazoiaren zaintzailea, eta beharbada, baita bertako botere «txiki eta xumearen» zerbitzari fidela ere, aipatu ditugun arazo nagusi horiei aurre egiteko gai al dira? Talde gisa ari ote dira? Beharrezkoa al da talde gisa aritzea?

«Nazio eraikuntzak» Gramscik aipatzen zuen bloke hegemonikoa behar du, eta honekin lotuta egongo diren intelektual organikoak. Agian kontu moderno zaharkituak dira hauek guztiak, baina euskal nazioaren «garapenez» mintzatuko bagara, Gramsciren oinordeko den Mouffe-ren ildotik, euskal artikulazio hegemonikoa —nazioaren garapenez arduratzen den artikulazio sozial, politiko eta kulturala, alegia— beharrezkoa izan daiteke, eta honen eskutik, euskal jakiturgia-biltegia edo *think tank* deitzen dena osatu beharko litzateke.<sup>13</sup>

Argudiatu daiteke filosofo-erregeari dagokion jarrera planifikatzaile hau ez dela onargarria berez, gidarik gabe, bersortzen den azoka-mundu honetan.<sup>14</sup>

Hasierara itzuliz, akaso esango digute intelektual ait-zindariak arriskutsuak edo barre garriak direla, eta gehienara jota intelektual ironiko, barreragile eta bertsolariak behar ditugula. Ongi da. Baina, bertsolariengandik ikasi behar baldin badugu, jaso ditzatela oraingo intelektualek,

arestian esan ditugun alde gaiztoez aparte, euskal bertsolariak betidanik izan dituzten bertuteak<sup>15</sup>: independentzia, behar denean subertsiboa izaten jakitea, zorroztasuna, kritika-lan txukuna maitatzea, gertutasuna, lekuko kezka jasotzeko edo gai unibertsalak lekutzeko gai izatea, erakarritasuna, behar denean plaza gizon eta emakume, baina, era berean, patxadaz egindako «paper bertsoak» ederki botatzen jakitea...

Azken finean, beste arlotan bezala, bertako labela duen ekoizpen osasuntsua egin dezan eskatu beharko genioke gure intelektualari. Erotu ez gaitezen, bederen. ¶

- 
1. *Gara* egunkariak Zumaian egondako mahai-inguru batean jasotako hitzak (2000-12-28).
  2. Norberaren eta herrien altxor kulturalak eta esperientzia pertsonalak dira egungo merkantziak. Etorkizunean, genetikaren bitartez, banakoaren nortasuna bera izango da salerospen. Merkatuaren logikak esparru guztiak hartuko ditu, gero eta gertuagokoak (Rifkin 2000).
  3. Pentsamenduaren baldartzeak intelektualaren mailarekin baino, lotura zuzenagoa du honen lan baldintzekin. Kazetariengan arrunta den lan-ziklo laburra intelektual eta irakasleei inposatzen ari zaie. Iritzia egun batetik bestera plazaratu behar da, irakasgaiak bi hilabetetan amaitzen dira... Ahalik eta ziklo laburragoa orduan eta berrikuntza gutxiago eta huskeria gehiago. Hiruzpalau urtez ikerketa proiektuetan lan egiteko aukera dutenak izango dira egoera honetatik ihes egingo duten elite intelektual berriak.
  4. «Intelektual marxista» tautologiaren garaiak amaitu dira aspaldian. Ala ez?
  5. «Klase bakoitzak bere intelektualak ditu», zioen Gramsci-k, eta klase bakoitzak aldaketa sozialaren inguruan bere interes propioak dituenez, teoria eta praxi soziala modu ezberdinetan lotuko ditu: teoria mailan utopia baztertuz, eta praxia kontzientea berezko bilakaeragatik ordezkatuz, adibidez.
  6. Goldfarb-ek bere liburuan jasotzen du (Said, E. 1994. «Representations of the intellectual». Pantheon. New York). Ildo beretik, gurean, Joxe Azurmendik: «Intelektualaren borroka (...) pobreena eta zapalduena bakarrik izan daiteke» (Azurmendi 1997).
  7. Hurbilketa zorrotza, Aitor Zuberogoiak egiten duena (Zuberogoiak 2000). Hala ere ez dezagun tokiko lana ahaztu nazioarte mailan egin beharrekoaren izenean...

8. Popperrek berak dioen bezala, agian marxismoa hilda legoke zientzia gisa, baina honek ekarri duen erantzukizun sozialaren ikuspegia eta berari esker askatasunari zor diogun maitasuna, ez dira baztertzeko moduko kontuak (Popper, K. 1991. *La sociedad abierta y sus enemigos*. Paidós. Bartzelona).
9. Von Beymek ironikoki hala dio: «Alemaniako irakaslearen aurki-kuntzarik preziatuena —zirkuluaren koadratura— hauxe izan da: funtzionarioaren ziurtasuna eskuratu, intelektual independentearen askatasuna galdu gabe». Horretarako, noski, intelektualak oso argi bereiztu behar ditu bere jakintza arloa eta burutu deza-keen praxi soziala.
10. Garai postmodernoan, neutraltasuna balio politikoen aurrean adierazi behar omen da, ez horrenbeste balio moral edo estetikoaren kasuan. Alta, askotan balio moralen inguruan lotsagabeki adie-razten den jarrera «konprometitua», aitzakia legez ere erabilia izan da balio politikoen inguruko eztabaida korapilatsu eta ete-kin gabekotik ihes egiteko. Moral unibertsalaren izenean aritzea eta lekuko etikatik aldentzea aukera erraza da intelektualarentzat.
11. Azken hilabeteotan «intelektualen agiriekin» sortu den ika-mi-ka (lagungarria?), ikusmolde horien isla izan daiteke: «Isiltasuna ez da aterpe», «Basta ya», «Zaramaga»...
12. Zein da euskal intelektuala? Euskaraz edota erdaraz Euskal Herriaz arduratzen den bertako kultur langilea... Edo Euskal Herriaren mina sentitzen duena —«me duele Euskal Herria»—?
13. Joxe Azurmendik aipatu liburuan horren beharra ikusten duen arren, eszeptiko samarra da: «Desiratu, nik ere desiratuko nuke, baina gero gauza handirik ez dut horretan sinesten, esate batera-ko, prentsan eta ikusentzunezko hedabideetan dagoen eraso es-painolista ikaragarriari sistematikoki erantzuteko intelektual abertzaleen talde antolaketa batean (...) Aparte ez dudala gauza garenik ere uste (...) Elkarrizketarik ezin delako sortu horrela (...) Zarata areagotu bakarrik (...)».
14. Errege-filosofoak, berriz, batek daki zein «utopia zanpatzaile-ren» izenean «berezko» lege hori apur dezaketen neurrian are eta arriskutsuagoak direlako, errege-pailazo bihurtu zaizkigu demo-kraziaren zirko honetan.
15. Edo ugal daitezela «bertsolari intelektualak»... Egañak dioen be-zala, asmoak asmo, «funtzio komunikatiboak» agintzen duenean, intelektualak bertsolariengandik ikasi beharko lukeen moduan, agian, bertsolari kaxkarinak intelektual sakonarena egin beharko du maiz.

## Bibliografia

- Azurmendi, J. (1997). *Demokratik eta biolentoak*. Elkar. Donostia.
- Beck, U., Giddens, A., Lash, S. (1997). *Modernización reflexiva. Política, tradición y estética en el orden social moderno*. Alianza. Madrid.
- Béjar, E. (2000). *El corazón de la república. Avatares de la virtud política*. Paidós. Barcelona.
- Goldfarb, J.C. (2000). *Los intelectuales en la sociedad democrática*. Cambridge University Press. Madrid.
- Gramsci, A. (1972). *Cultura y literatura*. Península. Barcelona.
- Laclau, E., Mouffe, C. (1987). *Hegemonía y estrategia socialista. Hacia una radicalización de la democracia*. Siglo XXI. Madrid.
- Mouffe, C. (1999). *El retorno de lo político. Comunidad, ciudadanía, pluralismo, democracia radical*. Paidós. Barcelona.
- Rifkin, J. (2000). *La era del acceso. La revolución de la nueva economía*. Paidós. Barcelona.
- Vallespín, F. (2000). *El futuro de la política*. Taurus-Alfaguara. Madrid.
- Von Beyme, K. (1994). *Teoría política del siglo XX. De la modernidad a la postmodernidad*. Alianza. Madrid.
- Zuberogoitia, A. (2000). *Globalizazioaren adarrak*. Alberdania. Irun.



## Pentsamenduaren norabideak XXI. mendean

**S**ail honetan pentsamenduaren orainari eta geroari buruz aurkeztu ditugun lau artikuluetan, dagoeneko, hainbat eta hainbat auzi jorratu eta aztertu dituzte egileek: humanismo eta filosofia klasikoaren amaiera, globalizazioa, inperialismo berria, ideologiaren etorkizuna, intelektualaren eginkizun soziala, gizarte zibilaren erantzuna... Auzi hauek etorkizunean ere zeresanik eman-go dutelakoan gaude, gizakiaren eta gizartearen sakoneko aldakuntzekin harreman zuzena baitute.

Aurreko lan hauek osatze aldera, batzuren eta besteren iritzia jaso nahi izan du *Jakin*-ek. Beraz, sail honetako azken atalean sei aditurengana jo dugu XXI. mendean pentsamenduak har ditzakeen norabideei buruz galdeginenez. Horrela, Joxe Azurmendi, Juan Bautista Bengoetxea, Jose Maria Cabo, Eduardo Gil Bera, Elena Martinez eta Joseba Zulaika idazle eta filosofian adituak erantzunak bildu ditugu.

Ondoren, aditu hauei, gidoi lagungarri gisa, planteatu dizkiegun auzi nagusiak datoz. Zertan esanik ez da gidoi honi norberak bere ikuspuntutik heldu diola:

- *Globalizazioa eta pentsamendu bakarra*  
Globalizazioak dakarzkigun aldaketei begira, zer pentsamendu mota ari gara garatzen? Nola islatzen ditugu ekonomia berriaren, neoliberalismoaren eta Internet-planeta-



ren emaitzak? Nola erabakiko da pentsamendu bakar-  
ren eta anitzaren arteko tentsioa?

- *Ideologia eta pentsamendua*

Egia al da egun ideologiarik gabe pentsatzen dugula, ideo-  
logiak hilik daudela? Ilustrazioaren ametsari jarraituz, ba-  
dirudi pentsamendua oraindik kritikoa dela. Baina, bene-  
tako pentsamendu kritikoa daukagu edo soilik itxurazko  
kritika? Ba du etorkizunik XXI. mendean?

- *Intelektualaren eginkizuna*

Zein da intelektualaren eginkizuna? Beharrezkotzat hart-  
zen dugu zeregin hau etorkizunean? Zein izan daitezke,  
bere pentsamendua zabaltzeko orduan, intelektualak era-  
biliko dituen forma edo moduak, bitartekoak eta eduki es-  
parruak?



## Joxe Azurmendi

### Heidegger, Sloterdijk eta (in)humanismoa

Behin irakurri nuen, iraultzak ez direla egiten, iraultza egitera jarrita. Filosofia behintzat ez da egiten propio «filosofia egin» nahita. Beharbada, oraintxe bertan, iraultza egin nahi gabe, inoizko iraultza handiena egiten ari gara; eta «filosofo maisuek», publikoaren lausengua baino ez dute egiten, «X» salbatu nahita.

Zer egin? Momentua leialki pentsatu. Problema bera gure jabetzen bada, beharbada taxuzko zerbait pentsatuko dugu. Eta, baliagarri geratzen dena, garai baten pentsamendua hori izango da hurrengo garaientzat. Noski, mende berrian ere filosofiako profesoreak egoten jarraituko du eta «pentsamenduaren produkzio» profesoral oparotat egonen da. Haatik, XVII eta XVIII. mendeetan Unibertsitatean nagusi ziren irakasle aristotelikoak, XIX eta XX.etan inori ez zaizkio axola; interesatzen zaizkigunak, marjinazioko Spinoza judua edo Descartes emigrante mozorrotua dira.

Ezin jakin, zer ibiliko den pentsamendua mende berrian. Beharbada, zein girotan ibiliko den, igarri liteke zertxobait. Eta, horretara jarrita, gaur egun, pentsamendu bakarra eta globalizazioa aipatuz hasteak obligaziozkoa dirudi, ezta?

Bai? «Pentsamendu bakarra», gure espazioan behintzat, beti egon dena da. Pentsatzea, berak zer pentsatu behar duen, sakristia edo periodikoren batean fabrikatu nahi izaten zaion herri honetan, «pentsamendu bakarren» aurkako borroka da beti. Globalizazioa, aldiz, Sloterdijk bere liburu ren batean Kristobal Kolon-ekin abiatzen du. Egia esan, Erdi Aroak berak, Mediterraneo birundan, unibertso aski berdindu eta globalizatuaren inpresioa egiten digu, kulturalki, filosofia arabiar, judu eta kris-

tauen aristotelismo komunaz eta monoteismo gotorraz. Bakarririk, «mundua» piska bat txikiagoa zela orduan. Are, Alexandro Handia eta Inperio erromatarra kontuan harturik, aspalditxoan dabil apika mendebaleko gure gixon-emakume hau mundu globalizatu baten ferietan galdua. Neolitoa bera ez ote da jada industria eta komertzio harrigarriro globalizatua bezala ageri? Ezer berri gutxi eguzki zahararren azpian.

Denok ikusten dugu, ordea, zein —teknologikoki batik bat— sekula ez bezalako mundu benetan berria gainera datorkigun globalizazio —edo inperialismo— berri honetan.

- Orain arte armadetarako zen diru asko, ikerketa zibiletara joango da hemendik aurrera, Berlingo murrua eraitsi eta gero. Giza zientziek oro har, bereziki genetikak, medizinak, garunaren (arimaren!) ikerketak, egundoko aurrerapenak egingo dituzte; ez baitakigu ezta nolako auzien aurrean paratuko gaituzten ere. Giza zientzietako aspaldiko amets faustikoa, «*homunculus*» baten egiteko edo gizakia bere buruaren jainko izatekoa, berriro piztu da, orain arrisku eta mehatxu bezala sentitua esperantza bezala bainoago. Logikoa da, egun jada, behiala itxaropenaren ikurrinak ziren historiaren filosofiak eta utopiak, abarrituak baitautza hautsetan. Aitzitik, XVIII. mendean ez bezala, selekzio genetikoaren posibilitateak zinezkoak dira orain eta, Sloterdijkek «*antropoteknikak*» deritzen horien karietarat, Frankenstein-en eta «gizagaindiko» nietzschearren fantasmak —laborategian fabrikatua orain—, ez komunismoarenak, kurritzen du mundu guztia. Sloterdijkek, edozeintsuk bezala, zientzialariaren eta filosofoaren elkarlana gomendatu du. Baina, kasu!, elkarlan hori berak ez du zientzia eta etikarena bezala ulertzen, horra eskandalua. Gutxienez bere etsaiek ulertu diotenez, filosofoak, Sloterdijken esanean, «eskrupulu moralik» gabeko mundu berri bat —postmoral, kezka moraletatik librea— ireki beharko omen lioke zientzialariari (Th. Assheuer). Agian ez da Sloterdijken irakurketa zuzen-zuzena hori, baina daukagun arazoaren adierazpen oso zuzena funtsean. Ohartzten ote gara zein den benetan gure egoera? Zient-

ziak abailan doaz. Filosofoari eskatzen zaion humanismoa edo morala, filosofoak ezin du eman. Humanismoa hila da. Eta ideiarik ere ez daukagu, gizaki etorkizunaren auto-kontzientzia nolakoa izan ahalko den. Non ezarriko dion «muga ukiezina» bere buruari.

- Mundua, amerikanoa izango da. Filosofia ere bai. Eta munduko historia ikusteko molde eurozentrikoak, orain arte hain natural eta razionalak iruditzen zitzaizkigun kontzeptu eta erreferentziak, higatu eta orbel haizetan galduko dira. Europa probintzia bilakatuko da. Horra, jada hasia eta aurreratuxea doan «historiaren azkenaren» zentzua: historia ulertzeko egun arteko eredu eta kontzeptuen azkena. Guk, Europako historia modernoa interpretatzeko kontzeptuak (eskuina/ezkerra, Estatua, sistema ekonomikoa, botereaz jabetzen ei den klase soziala, etab.) eta erreferentziak (Iraultza Frantsesa, oroz gain), historia guztiarentzat eta mundu guztiarentzat eskema bihurtu izan ditugu: mundu guztian, historia, klaserik klase progresatuz, mailaz maila gora doa. Iraultzaren mitoa Europan erreferentzia funtsezkoa izan dugu, bere deribatuekin (funtsean Estatu modernoaren mitoa), batez ere kulturalki Frantziaren eraginpeko eremuetan. Amerikak ez dauka Iraultzaren mitorik. Ez dauka Erdi Arorik, ez Antzinako Erregimenik. Bere-bere mitoak eta kontadizoak dauzka eta bere erreferentziak, Estatuaren sorreraren bere mitoa, historiaren bere ikusbidea. Denoi ere, Amerikaren argipean, beste kontadizo bat bilakatuko zaigu laster historia, munduaren «Ordena Berrian». Beste mito batzuek ehunduko dute denbora.

- Momentua, lekuan lekukoa da. Betidanik probintzia izan garenok, ez dugu problemarik izango, nik uste, probintziak gairela ikasten. Lekuan-lekuan diferentea izaten da pentsamendua, pentsamendua bada. Hemendik aurrera ere, «gaurko pentsamendua» egongo da (nagusi dabilena), eta lekuan lekuko gaurko pentsamendua egongo da. Pentsatu ordez irakurri, eta ulertu ordez errepikatu egiten dutenek bakarrik, uste izaten dute, gure pentsamendua literalki Frankfurteko edo Parisko liburu ren batean dagoela. («Abertzaletasun konstituzionala» eta).

Beti hala izan da eta ez hemen bakarrik. Heideggerren *Humanismoaren Gutuna* Sartre-ren kritika bat da. Baina ongi erreparatzen badugu, adibide polita da filosofia baten (kasu honetan existentzialismoaren) bi aldiren arteko, edo Frantzia eta Alemaniako filosofiaren arteko desajustearena. Existentzialismoa, zioen Sartrek (1945) humanismoa da, hots, gizartea iraularazteko (Sartrek horrela ulertzen dizu humanismoa), gizon-emakumeak askatzeko pentsamendua. Ez, utz pentsamenduari pentsamendu soil izaten, kontraesango du Heideggerrek (1946); pentsamendua pentsamendua da, ez da bitarteko bat, ez da beste ezein ekintzatarako lehen urratsa. Pentsamenduak aski lan badu orain, pentsatzea zer den pentsatzen... Alegia, Bigarren Mundu Gerraren ostean Frantzian Sartre esaten ari dena, Lehen Mundu Gerraren ostean *Sein und Zeit*-en Heideggerrek berak esan zuenaren berdintsua da, haren iruzkina eta jarraipena. Baina Heidegger, bitartean, iraultza nazionalsozialistan itxaropenik handienak ezarri eta nazismoarekin bere «esperimentu filosofikoa» menturatu eta porrot egitetik dator. Orain Modernia osoaren kritika erradikalenean ari da. Eta hain zuzen modernitate —iraultzaile, gizakia munduaren eta historiaren subjektu eta nagusi deklaratzailer— horrexen adierazle gailenak Sartre eta haren humanismoa dira. Existentzialismoaren bi leku, bi momentu. Beraz, existentzialismo bat bai, baina bi pentsamendu. Sartre: existentzia berdin ekintza; Heidegger: existentzia berdin meditazioa, gogoeta.

Sloterdijken inguruko zalaparta bera nekez uletzen ahal da Alemaniako historia espezifikoa —eta hizkerarekiko sentsibilitate alemana, ondorioz— aintzat hartzeke. Haren konferentziako terminologiak Ausschwitz gogorazten diola, egotzi dio E. Tugendhat-ek. Kritiko askok, ez da dudarik, hala sentitu duela. Eta are duda gutxiago, Sloterdijkek —euskal edo erdal itzulpenaren irakurleak apenas ohartuko du, baina— apropos aukeratu dituela halakoxe hitzak eta espresio probokatiboak. Alemaniak bere problemak dauzka.

Euskal Herrian geure problemak dauzkagu. Adibidez, egiten ez dugun gauza askoren artean, autokritika dago,

alemanek asko egiten dutena. Zenbat topiko zaharri lotuegiak gauden, askotan progreak izan nahita, etab. Zaila da, agresioa besterik ez dagoenean, autokritikoak izatea. Zentsura zegoenean, gure pentsamendua lerro artean adierazten ikasi genuen bezala, lerroartean-edo autokritikoak izaten, ikasi beharko genuke. Eta, gainerakoan, geure lekutxoia apailatzen jarraitu beharko dugu, gure mundu txikia egiten eta pentsatzen.

- Filosofiak jarraituko du diziplina gisa egoten —antonomasiaz «pentsamendua» izaten («pentsalarien» ofizioa), geroz eta gehiago inportantzia galduko duela, uste badut ere. Pentsamendu horrek etorkizunean gogoetagai edo ikergai handi bat subjektua izango du; edo subjektugabetasuna, postmodernia, nahiago bada. Esan daiteke, Moderniaren historia, subjektu horren handitzearen historia izan dela: estreina, kaos beltz orokorrean goititu den ni razionala (Descartes), erorkortasun guztiaren erdian dorre tinko, bere buruaren jabe; gero, zientziaren argi (Newton, Kant), Estatu berriaren sortzaile; munduko nagusi beti, ezagutza ororen azken substante nahiz fenomeno ororen erro transzendental. Pentsamenduaren iraultza subjektibista ohi deritzogu modernitatearen oinarri eta hastapen horri. Objektibitatea, munduak ez du berezkoa, subjektu horren ahalmen eta jarduerak definitzen dute. Egun, ordea, subjektu hori, kontzientziarekin identifikatzen zena, bera daukagu kaos batean. Politikoki Marxek desmaskaratua, Horkheimer/Adorno-k «dominazioaren substratutzat» salatua; antropologiak, linguistikak bere zentraltasunetik desplazatua; Freud-ek bere bakuntasuna zatikatua (ez dago ni batik adiera klasikoan, baizik ni in, sub, kontzientea; «nia», «zera», «supernia»: mekanika konplexu bat). Hik pentsatzen huen, beraz bahintzen: baina ez haiz, izan uste huena. Hasteko, ez mundukoa, ezta heure etxekoa ere ez haiz nagusia. Ez ni garden bat, nahaspila bat baizik. Ez heure buruaren hor ezarlea; ha maika zori/txoriren eraikuntza sastar bat baizik, boterea-rena ez azkenik —mila haizeren jostailu. Subjektua berdin kontzientzia bazen, eta kontzientzia (ezagutza) boterea bazen, inoiz baino sendoago dago boterea, baina kont-

zientzia (subjektua) hautsia da honezkero. Pentsamendu berriak «subjektu»-gabetasunean nabigatu beharko du, munduaren eta bere buruaren bila. Eta filosofia amerikanoa ez dago agian gaizkiena prestatua (Davidson, etc.), bidaia horretan gidari aritzeko.

- Beste muturrean, errealitatea (batez ere soziala, morala) mitoen mitoa gabe pentsatzen —Jainkoa edo azken funtsa gabe— ikasi beharko dugu orobat. Eta mugak pentsatzen. (Pentsatzeak beti eskatzen du mugak pentsatzea). Kinka paradoxal samarrean gaude hemen. Aro teknikoak Lehen-Lehen edo Azken Funtsaren eta Absolutuaren galdararik ez omen du behar. Mundua (eta munduan historia sartzen da) desakralizatu egin da. Berdin, balioak, kontzientziaren obligazioak, etab. Hasieratik hasita, ildo grekoaren jarraian, eta gero are gehiago judu-grekoan, metafisikaren eta mitoen arteko afinitateak nabariak dira; hainbat areago kultura ez-mendebalderetan, horietan filosofiaren eta erlijioaren arteko mugak ilunak baitira ia beti. Jainkoa, razionalki, pentsamendu razionalistaren baliabide logiko nahiko erraz eta sinplea izan da (matematikoak), filosofiaren azi-orraziotan ageri zaigunez. Kultura landu edo ilustratuko elementu bat (eta jende xumearen jainerakoa). Orain Jainkoa hila da kultura horretan, metafisikarekin batera. Ala, aspaldian Jainkoaz hitz egiten batere ez dakigulako da beharbada, Jainkoaz Jainkoa hitza erabili gabe hitz egiten ez badakigu? Papagaien moduan tradizioa errepikatu baizik ez dakigulako egiten? Izan ere, Jainkoa ahaztu eta «jainkozkoaren» bila berrasten dela baitirudi. Mendebal moderno «razionalizatu» honetantxe, espiritu fin askok birdeskubritzen dizu eta bere esperientzia pertsonal zinezko batean bizi dizu lurraren sakratua, mendiaren jainkozko handia, espazio infinituen esanezinezkotasun durduzagarria; beste jende askok Asian bilatzen dizu, Europak ezin eman bide duen «jainkozkoaren» esperientzia. Gizon-emakume primitiboaren zein bizipen modu mintzo zen haren «Jainkoan», gure kulturak razionalizatu eta hil egin den «Azken Muga» horretan? Erlijioa, gizon-emakume orok ez du beharrezkoa noski. Artea eta filosofia gabe bizi litekeen bezalaxe, bizi liteke gizakia

erlijioa gabe —hiru rok bailirateke Espirituaren askatasunaren adierazpen gorenak, Hegel-en esanean. Baina, dirudienez, Jainkoa hil ahala erlijioa zuzenbide eta moral arau bilakatuz doan heinean, espirituak, erlijio orotatik libre, bere jatorrizko askatasunera itzultzeko grina berria dizu, hots, bere «erlijiositate» elementalera... Horrela pentsamendu bat irteten ikusten dugu ja (Heidegger, Sloterdijk), jainkogabetasunaren itsasoetan argonauta berri, sakratuaren bila.

Sloterdjkek Heideggerrekin salatzen duenez, soluzioak zeuzkan pentsamendu klasiko predikariak (humanistak) inhumanismoa ekarri du, gizakiaren nahiz jainkozkoaren bere kontzeptu kontrolatuekin. Pentsamendu gogoetariak, orain, berriro bila hasi beharra dauka, soluzioaren bila baino lehen galderaren beraren bila (arazoak berbara ekarri: haragia *Logos* egin bedi), zer den «abere razionala» baino barrenago egiaz gizakia, zer «Esanezinezkoa», «Ukiezina» —zer izango den gizadiarentzat berriro sakratua. Amaieran, sakratua eta sakratuaren muga gabe, holokaustoa baitago. ¶





## Juan Bautista Bengoetxea

**N**-garren mamu bat datorkigu Mundua zeharkatuz, nonahi aipatzen den iratxoa eta gizabanako bakoitzaren bizitzarekin zerikusi handia duena dirudienez. Izen ugari jarri dizkiote, denon ahotan dabil. Batzuen aburuz, hau soilik berbataiatze prozesua da, mamua beti izan baita gure artean, historian zehar beste modu batzuetara izendatu arren. Beste batzuen ustez, alderantziz, Mamu hau fenomeno berria da, emerjentea eta gizateriaren egungo egoerari loturikoa. Nabaria denez, gauzak ez daude batere garbi; mezuak gurutzatu egiten dira, esanahiak ezkutatu, helburuak apaindu eta bizitzak, betiko lez, aurrera darrai.

Globalizazioaren inguruan nahasketa da nagusi: ez dakigu zehatz-mehatz zer esan nahi duen, ezta zer-nolako esparruetara dagoen loturik, edota zer eragin duen gugan. Beste hitz etereo horietariko bat dirudi, beste holograma bat, erakargarria batzuetan, baina gaitzespena sortzen duena bestetan. Globalizazioarekin batera bere hurbilekoak datoz, batik bat pentsamendu bakarra, eta denak antzeko ezaugarriekin sorbalda gainean. Esaldi hutsak dirudite, modaren eta hizkuntza mediatikoaren lema. Alabaina, beren arnasa lepo atzean sentitzen dugunean, zerbait gehiago direla konturatzen gara; ergel edo praktiko deitzen dugunean, atzeratu edo eguneratu, globalizazioaren produktu zehatzen gure maneiatze gaitasunaren arabera beti. Konputagai-luak, Internet, kable bidezko telebistak, teknologia azken buruan, ez dira jada mamuak. Oparotasunaren sinbolo nagusi bihurtu dira, azken hitza, papar-hegalean eraman ditzaiegun *marka* onenak. Globalizazioa eta hortik ondorioztatzen dena irudi eta ospe onarekin baitu, batez ere, zerikusirik. Eta denon jarduerak hura bultzatu egiten du edo hari egokitzen saiatzen da ahal duen azkarren: ikerkuntza zentroak, unibertsitateak, armadak, bankuak, multinazionalak, etxeak, *indie* gazteak, etab. Ecoren oihartzu-

na entzunez, egoera honetan aurkitu dute beren azken irrintzia bertakotuek, batzuek irabazte ekonomikoak lortzeko, besteek iudiarenak. Jakina, apokaliptikoek ere badute eszenatokian beren txokotxo osoko zuzenketak aurkez ditzaten. Guztiek, dena den, asko baietsi baina gutxi argudiatzen dute.

Intelektualaren eginkizunari buruz aritzea bigarren mailako arazoa da —meta-arazoa, esan beharko genuke— pentsalari mota bati buruz pentsatzen dugulako. Irtenbide antzeko zer edo zer eman diezaiozun, bi gauza gutxienez aintzat hartu behar ditugu, alegia: ‘intelektual’ terminoaren esanahiaren argitzea eta intelektualaren betebeharrak ideala zein izan daitekeen kontuan hartzea. ‘Intelektual’, hemen, gizarteari eta politikari loturiko garrantzizko arazo ala auziei buruz pentsatu, mintzatu, idatzi eta portatzen den gizaki interesatua eta trebatua litzateke —ospe oneko beste esparruetan beteriko lanek bermatzen dute—. Eginkizun ideala analizatzear egon daitezkeen gai, gertaizun, erabaki, joera eta abarren argitzean legoke, ondoren lorturiko emaitzak komunikatu eta zabaltzeko eta, azken unean, egoeraren bere ikusmoldea aurkezteko. Zenbat eta distantzia gehiago hartu *objektua* aztertzeko, egoerak izango da analisia. Murrizten bada, orduan partidismoaz mintzatzeko errazago: ezkerreko versus eskuineko, liberalak eta kontserbadoreak, sozialdemokrazia eta komunismoa, biolentoak eta bakezaleak, onak eta gaiztoak.

Baina polaritate hauek gaingaitzeko gako behar bada kritika hitza litzateke, intelektual kritikoak gauzak onera aldatzeko joera baitu, eta akritikoak —organikoak barne— hain zuzen alderantziz: gauzen egoeraren parte pribilegiatua da eta ez du nahi aldaketarik. Batzuetan —askotan— pentsamenduari komisarioa dela esango genuke, eta hobe litzateke intelektual ez deitzea. Bestalderetik, intelektual kritikoak, aldaketaren aldekoa nonahi, sinpatikoa iruditu lezake askorentzat; haatik, bere ezaugarri nagusiak ez du demagogiarena izan behar, pausagabeko analisiarena baizik. Intelektual kritikoak *jai izorratzailea* izan behar du.

Globalizazioaren kasuan, ia beti gertatu legez, analisia *aren* bi maila sortzen dira: *diskurtsoarena*, alde batetik,

eta *faktuala*, bestetik. Lehenengoa ideologiaren analisi bilakutzen da, pentsamendu bakarra ren helburuena, hura hedatzeko bideena. Alderdi errealean analisiak diskurtsoaren eta errealitatearen arteko egokitzapenarekin du zerikusi handia, egia edota gezurra rekin, alde *faktualean* ezkututzen baita munduko jendeak globalizazioari esker pairatzen duen miseria. Dena den, oro har, intelektualak gehiago du esateko lehendabiziko kasuan bigarreanean baino, bi analisi motak bateraezinak ez izan arren.

### **Pentsamendu bakarra hiper-azokan**

‘Pentsamendu bakarra’ deiturikoaren diskurtsoa globalizazioaren fenomeno berak bakarrik errepresentatzeko di-tuen asmoekin dago loturik. Helburua ez da pentsamendu bateratzea, munduaren ikusmolde berezi bat sofistika-tuki inposatzea baino. Ikusmolde hau ongi landua da, pentsatua, preseski diseinatua, ondoko osagai hauek ego-kituz: ‘globalizazioaren’ definizio onbera, izen handiko kontzeptuei lotua —teknika, aurrerakuntza, kalitatea, gaurkotasuna, zorrozatasuna, etab.—; politikaren aurreko ekonomiaren nagusitasunaren ekina —hala da eta *izan be-har du*, diote—; hala masa-komunikabideen erabilera —in-f o r mazioa, publizitatea— nola teknologia eta informatika-ren abantailena; eta, jakina, existentzia eta agerpena gauza bera bailiran hartzea —kontzeptu, kontsigna eta mezuen sormena eta, batik bat, errepikapena ahaztu barik—.

Espiral globalizatzailearen indar zentripetua, jakina, non edo nondik ateratzen da, ez da subjekturik gabeko prozesu mistikoa, forma egungo ekonomiaren aurrerape-nean hartzen duen eta botere finantzarioak aurrez moldatzen duen errealitatea baizik. Planteamendu bakarra denez, inposaturikoa, argi eta garbi aurkezten zaigu bere publizitate lemen pean: globalizazioa fenomeno berria eta homo-geneoa da, bere emaitzak eta ondorioak mundu guztian zehar berdin banatzen baititu; garapenera eta gizarte osoa-ren ongizatera eramaten gaitu; estatu nazionalen *kortsetik* haratago doa, eta demokrazia hedatzen du. Gainera, ho-

rrekin batera, bere ideologia *ideologiaren amaieran* oinarritzen dela onartzen du, historiaren bukaeran, bera dagoelako ekonomiaren eta politikaren —neoliberalismoaren eta sozialdemokraziaren— behin betiko fasea denaren erdian.

Alta, mezu hauek ez dira argiak; are gutxiago zehatzak. Baina argitasuna eta zehaztasuna ez dira behar globalizazioaren diskurtsoan. Nahikoa da mezuaren errepikapen eta komunikabideen bageanatzearekin globalizazioaren ideologia inposatu eta hari irudi ona esleitzeko. Gauza ez da informatzea, saltzea baizik; gauza ez da produktu desberdinak erkatzea, kontsumitzaileari produktu mota bakar bat dela egokia —egungoa, bizia, estetikoa— buruan sartzeari baino. Eta ideien merkaturak beste horrenbeste: pentsamendu inposatua mundutik zabaltzen ari den marka (™) handiaren modura dabil, sukurtsalak eta guzti. Pentsalariak, intelektualek, hemen dute merkaturak eta hor saiatzen dira beren eragina erabiltzen, kontuan izanik kontsumitzaileak ezer harrapa ez dezan, etekin handiena ezjakintasunak eta nahasketak ematen dutela, horiei esker gauza asko existentziaz at geratu edo gaizki ikuskatzen baitira. Pentsamendu bakarrak bi gauzak lortzen ditu. Horren aurrean intelektualaren eginkizunak badu zeresanik, batik bat kritikoa bada eta tresna egokiak erabiltzen ikasten badu.

## **Hitza, irudia eta etorkizuna: Wittgensteinen eskailera**

Beraz, globalizazioaren maila diskurtsiboak bere errealitatea sortzen du bertan ahal diren kontsumitzaile gehienak sartzeko; kontsumitzaileak ez direnak jokoz at daude, ez dira existitzen. Lortzen badu, helburu nagusienetako batera hurbiltzeko urrats garrantzitsuena emanda dauka, alegia: errealitatea hain zuzen ere *hori* izatearena, eta ez sormen horren kanpoan —harpe platondar-saramagoarretik at— gera daitekeena. Fase honetan ongi fintzea da, hortaz, intelektualaren xedea, analisi serioaren lanari ekin ezarria existentzia pertsonal, sozial eta kulturala esklerotizatzen dituen ikus-entzunezkoen bertigoa gaindituz.

Ikusle eta pantailaren arteko lotura hain estuak errealitate pantailaren errepresentazio bihurtzen du, *birtual* bilakatu, natur legetatik urrun. Argi izan behar du intelektuallak ideiak irudien gainean berriro eraturiko ideiak direla, non teknika tresna den eta trebezia bertute nagusia. Hots, errealitate birtualak kultura berria definitzen duen munduaren ikusmoldearen aurrean dago kokaturik intelektuala. Baina ikusmolde horren gauza asko fikziozkoak dira, etekina ateratzeko xedeaz aberastuko direnen iguripen hutsa. Oraindik kontingentea dena nahitaezko lez inposatu gura duen errealitate birtual bat da; mundu birtual ezin hobea, diseinatua, birtuala ez denarekiko neurrigabekoa gehiengotan, errealitatea bereizten ez dakiten neurotiko berrien sortzailea. Eta ez dago soilik artista eta entretenimendu munduaren eskuetan; masa-komunikabideen gainean ere jauzi da eta, ondorioz, ekonomia, politika eta gizarte esparrueta hedatu zaigu jada. Ziberespazioa, hortaz, kontzeptu hedatu eta arrunt bilakatu zaigu. *Agora* berria da, merkataritza guneak albo batera utzi ditu —kontsumismoaren tokiak izatera baztertuak, eta ez komunikazioarenak—, norabide bakar bateko telebista gainditzen ari da, telefonoa zapaltzen, eta liburu zorrotza ahal duen moduan fagozitzatu nahian. Bere gakoa *elkarreragintasunean* datza.

Alabaina, birtualtasunak, errepresentatzeaz gain, esan, eragin eta eraiki —moldeatu— egiten du, batez ere *mundu mentalak*. Ikuslea aldeaz aurretik sorturiko unibertso batean barneratzen du, bertan sortzaileak nahi duen mezua inokulatzen. Helburua kontsumitzaileak egiaz ahaztea edo errealitateaz mintzatzeari uko egitea litzateke. Ilusioaren amuzkia —*aurreakuntzaren* irudikeria— da *mass-media* -ren erakargaritasuna. Gakoa ez dago orainaldia aldatzean, etorkizunera heltzen lehenengoa izatean baizik; aurreratua izatean, sofistikatuena, hobekien kokatuena irudia eta posea direla-eta. Zaharra eta aspaldikoa anatema dira, malda, galtzailearen ikurra. Egun zientzia, teknika eta teknologiaren aroa da; I+Gren garaia. Baita intelektual mediatikoen erretoliken unea ere. Den-dena ikuskizunaren aldetik eta izenean, itxuraren pean: ez dago tokirik zientziaren zailtasunei buruz mintzatzeko, ezta teknologiaren

ideologia aztertzeko, gutxiago intelektualen arteko eztabaida benetan irekia planteatzeko.

Internet —arrunta, 2 edo  $n$ — gure pribatutasunari gune berriak irekitzen dizkion amets teknologikoa da. Nonbait gaudelakoan gabilta ziberespazioan. Iritzia ematen dugu, geure burua ezagutarazi, *mediaren* erdian gaude. Baina, nork ikusten gaitu?, nork irakurri edo entzun? Bide ugari dago ziberespazioan eta, nondik abiatu norberak askatasunez aukeratzen duela iruditu arren, komunikabideak dira aipagarri bilakatuko dutenak nahi duten informazioa, beste asko bigarren mailan ahaztuz. Behin eta berriro gauza bera: zaharrak, espektakularra ez denak, porro t egiten du ziberespazioan; marjinala da, ia bisitatugabea, ahaztua, existentziarik gabekoa.

Garrantzizkoena, erakargarria izatea baino, horren itxura edukitzea da —esaten digute inplizituki—. Publizitatea oinarrizko mekanismoa da egungo kulturaren. Internet eta beste komunikabideekin batzen da irudiak sortu eta mezu informatiboen forma rekin hedatzeko, kontsumitzaileek erraz ezagutuko duten zama sentimentala barneratuz. Mezu estetikoak dira, baina itxiak. Ez dira sinbolo sokinak, era batera bakarrik interpreta daitezkeen ikonoak baizik. Pop-art, pop-rock, 'iraultza' hitza edota presidenteraren baten farre txikiak, denak nahasten dira konpresa iragarki batetik harturiko kolore alaiaren gainean. Publizitateak kontsumora zuzentzen gaitu agrafok diren ikus-entzuzko mezuen bidez —grafia bakarra *markarena* da—. Helburua irudiak irudien bitartez kontsumitzea da: irudiaren kontsumoa, ez errealitatearena, hau ere irudi bilakatu baita. Coca-Cola botilen barnean dagoen produktuaren antzekoa da errealitatea: zaborra. Baina hura edaten badugu markagatik da, irudiagatik, birtualtasunagatik. 'Coca-Cola' da ona dena, bizitzaren gatza-zirta, eta ez lataren barrukoa.

Telebista, zinea, iragarkiak, diseinu grafikoa, musika bideoak, Internet, gobernuen prentsaurrekoak, denek beren artean elkar elikatzen dute ondoren errealitatearen mugak non dauden ongi zedarri dezaten. Irudi *mass-mediatedikoa* egungo esperantoa da. Erabaki eta gauzatze zentroetatik kontrolaturik, demokratikoa ez dela ikus dezake-

gu, *zapping*-ari esker lortu dugun *zeharkako sufragioa* salbuespen barre garrria izanik. Aipaturiko berrelikadurak alde z aurretik, eta bide ez-elkarreragileen bitartez —telebista, batik bat—, finkatzen ditu ziberespazioan aukeratzen ditugun posibilitateak. Kontsumitzaileak, gainera, zaborra rekin identifikatzen du bere burua, egoera erdi-katatonikoa gauza atsegintzat baitauka. Zertarako kezkatu errealitateaz? Zergatik pentsatu, gogoeta egin? Hobe beste batzuek hori gure orde z egitea; hobe, dirudienez, behiaren begiradaz telebista eta konputagailuaren kolore-gama jarraitzea.

Multinazionalek ez dute populartasuna eta edukien dignitatea batu nahi. Eskaria aipatzen dute, baina ez dute esaten hau sortu eta inposatu egiten dela. Eta horretan etika gutxi aurkitzen dugu, apenas ardurarik eta gezur gehiegi. Haragia, odola eta oso komertziala den zaborra onartzen dira; aldiz, adibidez, estatu espainoleko benetako mugimendu bakezaleari zentsura jartzen zaio telebista publikoaren bi kate nagusietan.

Irudia da nagusi, inposatua, pipiatzailea. Akritikoki onartzen diren munduak sortzen ditu. Kritikoak, gutxiengoak, bazterrera bidaltzen ditu. Kontsumitzailea irudiz, zarataz eta janari-zaborrez gainezka asetuta sentitzen da eta tutik ere esateko gogorik ez dauka. Ideia eronkariak desagertzeaz daude. Intelektualak sistemak fagozitatze duen gaitasunari dio beldurra. Alternatibak baditu, bai, esaterako pentsamenduaren komisario berrien artean sartzea interesatzen zaion boterearen ondoan egoteko, keinu sinbolikoez eta ustezko zintzotasunaz baliatuz ospe on pertsonala handituz joateko. Lobotomiaren intelektual berri batzuen irtenbideak dira horiek. Komunikabideak oso ongi maneiatzen dituzte eta horiek gustura daude h o rrelako intelektualekin. Ez dira kritikoak, baina usain hori nahi dute hedatu; birtualki dira kritikoak. Analitikoak eta neurtuak dira, modernoak eta postmodernoak, baina soilik beren *soldatak* arriskuan ikusi arte.

Irudiak, merkatarien esku batez ere, ia dena kontrolatzen du —gizarte-komunikazioa, denborapasa, politika, estetika, informazioa—, baita pentsamendua ere. Sorgortu egiten du, erreala irudiko, birtual bihurtu; dagoeneko sines-

gaitza eta sinesgarria maila berean daude, bereiztezinak dira tamalez: errealitatea dezifratzeko gauza ez garen neuroti-koak gara. Errealitatearen orde zama mamuak jarri ditugu. Eta zaila da honen aurkako txertoa aurkitzea: pentsamendua- ren abangoardiak ez dira seguru sentitzen, ez baitute beren leku aproposa, intimoa, inon aurkitzen. Masa-komunikabi- deek gune denak hartu dituzte eta soilik elite ekonomikoek dauzkate intimitaterako txokoak, bertan beren politika eta joera estetikoak diseinatu ahal izateko: adibidez, pentsatzea ez dela abangoardista, marjinala dela. Hipermerkatuan zalantzarik ez! Edo hartu edo laga, bitartekorik ez.

Beraz, sendotasun eta zintzotasunaren izenpean —A ala B, gauzak argi lagun! —, iruzurtien mezua ari zaigu sartzen hankartetik. Berriro ere, beraz, kontu handia izan beharko nahasketarekin, hitz eta ideien manipulazioarekin. Kontsumitzaileak pentsamendua, kritika, soilik *letren* gauzak direla usteratzen da, adituen gaia. Iraganeko az- tarnak besterik ez dira berarentzat. Hortaz, ‘harpea’ ongi dabil. Kritikoa eta pentsamenduaren sortzailea beren proiektzio mediatikoaren arabera bakarrik existitzen direla dirudi. Halere, gehiegizko zama litzateke, morrontzarena esango genuke, intelektualak berak borrokatu edota neu- tralizatu gura duenaren jite berbera barneratzen baitu. Ba- dirudi soilik barrutik kritika lezakeela sistema berria, Vla- dimirrek Nikolasekin egin bezala. Dena den, beharrezkoa da hipermerkatutik at dauden ideiak plasmaturako dituen pentsamenduaren dispositibo indartsua. Ziberpentsamen- duaren dispositibo bat ziberkulturaren baitan, multime- dia munduari irekia, baina non hitzak —idatzia edo mint- zatua— pentsamenduaren aurkako gehiegikeriak neurtze- ko balio duen. Wittgensteinek *Tractatus*-aren eskailerare- kin egin antzera, ziberintelektualak globalizazioaren hi- permerkatuaren produktuak eta tresneria erabili behar di- tu, ondoren horiek utzi eta hildakotzat jotzeko. Edo, gut- xienez, produktu horiek hobeki kritikatzeko, teknologia kontzienteki bitartekari huts bilakatzeko —ideologia iza- teari utziz—, produktuak tentelak, nahasiak eta iruzurtiak diren neurrian behintzat. Ez bada gai hori egiteko, or- duan hobe *masan* sartzea. ¶





## Jose Maria Cabo

### Nora doaz intelektualak?

Francorako tiranoa hil bezain laster, Amando de Miguel soziologoak *Los intelectuales bonitos* izenburuko liburua plazaratu zuen. Liburu honetan orain Complutenseko katedraduna denak Francoren garaian erregimen terrorista horren pentsamoldeari jarraitu zioten pentsalari batzuk salatzen zituen. Soziologo ospetsu honek ez zekien oraindik bera erregimen berriaren (hau da, Espainiako erregimen demokratikoaren) *intelectual bonito* bihurtuko zenik. «Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!» abesten zuten *Hertzainak* taldeko kideek beraien lehenengo diskoan, eta gure katedraduna aurkezteko koplak haur errepika dezakegu orain.

Beharbada, gauzatu diren aldaketak ez dira hasieran guk pentsatzen dugun bezain sakonak eta zorrotzak izan. Azken finean, bai antzinako erregimenetan, bai erregimen berrietan, intelektual deitutakoaren papera beti-beti susmo iraunkorpean egon da bizitza publikoan. Historian zehar egoera berbera ikus daiteke: intelektualak kritikatuak izan dira, beraien kritikak (nola ez, sistemaren aurka) ez baitira objektiboak, sakonak, indartsuak, garbiak edota neurritsuak. Hemendik aurrera halako zerbait gertatuko dela pentsa dezakegu. Zentzu honetan, Milurteko berriarekin Historia bera bezain zaharrak diren antzinako galderak berreskuratuko eta berriz erabiliko dira. Eszenatokia desberdina izan arren, gaiak, galderak, arazoak errepikatzen dira. Honela, eszenategi batean intelektual konformisten kontra kritika gogorra egin zuen profeta, beste eszenategian, kritikatu izango da pentsalari berrien partetik; azken pentsalari hauentzat profeta hori izango baita berarentzat intelektual konformista izan zena. Bihurketen (eta malformazioen) joko honetan zerbait mantentzen

da: subjektu batzuk intelektualak omen direla; haiek direla jakitsuak, adituak, errealitatearen ezagutzaileak, pentsamenduan langileak, mundua, natura eta gizartearen interpretatzaileak, moralki gaituak den-a eta ez den-a, izan behar duena eta izan behar ez duena baieztatzeko. Eta hemen idazten da gizakiaren (*Humanität*-aren) drama hauetako bat: endelgua erabiltzen dutenen eta intelektualak adierazirikoa sinetsi behar dutenen arteko bereizketa; pentsatzen dutenen eta sasijakintsuek pentsatutakoa errepikatzen dutenen arteko desberdintasuna; pentsalarien eta ez-pentsalarien arteko bereizketa; jakintsuen eta legoen arteko diferentzia; hemen daude profetak, hor eliztarrak; hemen apaizak, hor akolitoak. Egiatan, endelgua ez da soilik intelektualen ondarea —behin baino gehiagotan Heidegger filosofo alemaniarrak gogorarazi digun legez, filosofatzeak giza existentzian bertan parte hartzen duela azaltzen digun bakoitzean. Azken buruan, pentsatzea, adimena erabiltzea ez da bakarrik pentsatzearen edo gogoeta egitearen kontzientzia izatea, baizik eta pentsamendua, pentsaketa eta ulermenaren ekintza; eta ekintza honi denok ekiten diogu.

Dirudienez, orain adierazten den globalizazio aro honetan gauzak aldatu direla aurreuposatzen da; pentsatzaile klasikoari egungo egoerak erronka berriak azalduko dizkiola, eta azken horiek pentsalari berri bihurtuko dutela. Hala ere, baldin eta globalizazio fenomenoraino hurbiltzen bagara, funtsean egitura ekonomikoari dagokion fenomeno bat dela gero eta garbiago ulertuko da. Hau da, antza denez, globalizazioa, zeinak hemendik aurrera baldintza eta harreman ekonomikoak nolakoak izango diren markatzen dituen, nolabait, fenomeno ekonomikoa besterik ez da. Alabaina, honek ez du esan nahi globalizazioa soilik fenomeno ekonomikoa denik. Beste era batez esanda, sozialaren eta ekonomikoaren arteko mugak non dauden esan ezin dugunez, zer den gizakiari dagokiona eta zer politikari, kulturari, zientziari eta teknologiar, globalizazio aro honetan ere bizitzaren munduaren (soziologiak azaltzen duen legez, *Lebenswelt*-aren) aspektu horien guztien betiereko batasuna aditzera ematen da.

Hala eta guztiz ere, hain argi eta garbi ikusten den hau ere ez da gauza berria. Edo agian ez da honela iraultza industrialak (eta teknologikoak) bere lehenengo pausok eman zituenez geroztik. Urrats horiekin —Karl Polanyi ekonomistak *La gran transformación* liburuan oso ondo azaldu zuenez— giza harremanak (eta haiengandik ondorioztatzen direnak) gizabanakoen eta nazioen arteko harreman ekonomikoen menpean jarri dira. P. Kottler eta bere ikerketa kideek, *El marketing de las naciones* liburuan, giza harremanen aldaketa handi honen sorrera adierazten dute: edukia ez da garrantzitsuena, bildukia baino; egungo egoeran berria dena marketina bera da; mezua da aldatu dena, giza harremanetan transformazio handia sartu denez geroztik. Egia esan, Hegelek argitu zuen bezala, bildukietatik atera daitezkeen ideiak beharrezkoak dira edukiak ulertzeko; alabaina, benetako ezagutza ez da edukia ulertzeko beharrezko ideia horien ezagutza, edukiaren beraren ezagutza baizik.

Ikuspuntu honetatik, non ezin ditugun *Lebenswelt*-aren aspektu guztiak bereizi, globalizazio fenomenoaren unibert-sala omen da, partikularra eta bertakoa denaren kanpo. Haatik, herriak, bertakoak, edozein lekutan partikular direnak, arazo guztietan agertzen dira; planteamendu horren arabera, egungo gudak ez dira jadanik zenbait nazioen menpean jartzeko antzinako gerrak; nazioarteko borroak eta gatazka horiek amaitzen direnean sinatzen diren bake akordioak giza eskubideak babesteko eta arrazoi gizatiamengatik eramaten dira aurrera; dirudienez, beste aroetan *guda zuzenekin* gertatzen zen moduan, gaurko gerraren atzetik ez dira arrazoi ekonomikoak ezkututzen; gaurraipenaren arteak, ausiabantzaren arteak, bere burua giza balio bihurtuz, uraniozko (edo plutoniozko) bonbak bertiereko zoriontasuna dakarkigula pentsarazi digu. Egungo zientziak eta teknologiak objektikoak, garbiak eta sakratuak izateari jarraituko diote; haien azpitik ezingo dugu ikusi ideologiaren trazarik; haien helmuga ez da ekonomikoa, ez da mozkina, jakitea baino (beharbada, unibert-siateko sailek, eta beraien lider espiritualek, haien proiektuak aurrera eramateko ez dute diru publikoa edo pribatua

tua bilatzen). Antza denez, erresistentzia zibilaren era berriak (biolentzia garbia direla esango digute komunikabideek) ulertu ahal ditugu, nazioarteko erakunde ekonomikoek sortutako diskurtsoen atzean ezkutatzen diren giza-kiarekiko gutxiespen era berriak ezagutu gabe. Eta intelektualak? Nora doaz intelektualak (*Quo vadis, domine*)? Non-dik ateratzen dituzte beraien ordainketak? Zergatik eta nork ordainduta daude?

Kapital fisikoaren munstroak —honela deitu zuen K. Marx-ek kapitala *Grundrisse* liburuan— orain oztopo franko aurkitzen ditu handitzeari jarraitzeko. Hala ere, hau ez da kapital finantzarioaren kasua. Kapital honek, efektu ugalketaren ondorioz, aurreko kapital fisikoaren munstroa gero eta higuingarriagoa dela sinestarazi digu. Zentzu honetan, bere garapenean kapital fisikoaren ordezkari finantzarioa azaltzen da. Ekonomia finantza bihurtzen da. P. Gowan-ek *La apuesta de la globalización* izenburuko liburuan argitzen duen legez, berak Dolarraren erregimena-Wall Street deitutakoak menperatzen du benetako ekonomia —baina baita politika eta gizartea ere. Egile honi jarraituz, errealitatean gauzatzen den guztiaren sustraian finantzak agertzen direla baieztatu ahal dugu: zientzia eta teknikaren azpitik, beraien ikerketa proiektu gero eta garestiagoak mantentzeko; liberalismoaren oinarrian, gero eta liberalagoa (eta ez neo-liberalagoa) izateko; komunikazioaren sustraian, baita Internet sarearen bidez ere, produktzioa, beharrak eta desioak norberegantzeko eta publizitatea egiteko; pentsamenduaren gunean, bakarra, uniformea, dimentsiobakarra, unformatua eta zelatua izan da-din.

Zelatuta dagoena nolabait zigortuta dagoena da. Egia esan, zaingoa eta zigorra ez dira jadanik desberdinak pentsamendu bakarrean. Pentsamendu hau batasun inposatuetatik desbideratzen denean, bere muina (*finantza*) galtzen du eta jadanik ez da inola ere pentsamendurik. *Panoptikoak* (J. Bentham-en ametsak) atzerriari betirako bere atek itxi dizkio; edo hobe esanda, gizarte-sare honetan *Panoptikoaren* kanpotik ez dago ezer; behin betiko ezeztatuta geratu da atzerrikoa. Gaurko gizartean egiazko

disidentzia marjinala dena bihurtuta geratu da. Hala eta guztiz ere, marjinala denak ezin du *Panoptikoaren* haresietatik ihes egin; bere barnean geratzen da; bere gain goi zaingoa erortzen da (FIES da). Reg Whitaker soziologoak *El fin de la privacidad* liburuan dioen legez, ez dago lekurik ihes egiteko. Beharbada, existitzen den errealitatearekin errekonziliazioa, erreala denarekin elkartasuna da soilik geratzen dena.

Gero eta gehiago, pentsamendu bakarraren letania entzuten da: hau da, historiaren amaieraren diskurtsoa, errealitatearekiko elkartasunaren adierazpena, etab., goian esan dudanez. Baldin errealitatea uniformeazaltzen bada, errealitate horri buruzko pentsamenduak ere nolabait bakarra izan behar du (edo izan beharko luke). Haatik, pentsamendu bakar baten existentzia posible ote da? Egia esan, pentsamendua bakarra balitz, berehala pentsamendu izateari utziko lioke, baieztapen hutsa izateko. Den guztiaz *a razoi eta berri emateak* —errealitate aldakorrari buruzko grekoen antzin proiektu dialektikoak— pentsamendu mugikorra, aldakorra, aldabera eta bereizgarria behar du. Azken finean, errealitatea ez da uniforme, baizik eta osatzen ari da, Internet sarean gertatzen den legez; eta horrexegatik, pentsamenduak, une bakoitzean, era desberdinetan, eraiki egin behar du. Errealitateari buruzko pentsamendua ez da soilik errealitate horrekin egiaztatzen dena, beste pentsamenduen modukoekin ere erkatzen dena baino. Azkenean, bere buruarekin egiaztatzen den pentsamendu hori gogoeta bihurtzen da. Baina bihurketa hori sortzen den heinean, pentsamendua bakarra ez dela kontuan hartzen dugu, errealitateaz gain pentsamenduaren aniztasuna, bereizketa eta desberdintasuna azaltzen direla ikus daiteke berehala. Zentzu honetan, pentsamenduak, pentsamendu izateko, anitza izan behar du. Azken ezaugarri honek ematen dio bizitza, existentzia. Pentsamendua bakarra, uniforme, unformatua izango balitz, ez legoke jadanik hilko litzatekeela esan beharrik.

Zalantzarik gabe, gizarte errealean, globalizazio aro honetan, pentsamendua bateratzeko joeraren aurka izateko aukerak gero eta gutxiago dira. Pentsamendu bakarra

deitutakoaren jaiotzarekin, sistemaren aldeko intelektualen eta sistema horren aurkako pentsalarien arteko Gramsci-ren bereizketak bere indarra eta muina galdu duela dirudi. Gaur egungo intelektualak bakar-bakarrik dira sistema bedeinbatzen dutenak, hura berregin, defendatu eta zerruan jartzeko prest daudenak; komunikabide kontzentrazioak agintzen du, finaltza-talde garrantzitsuen eskuetan, intelektual perfektuak nolako behar duen. Hortxe daude dirulaguntzak, sariak, publizitatea eta abar; hemen agertzen dira egungo *mezenasak*. Mezenasarentzat, dirulaguntza ematen duenarentzat, sariak banatzen dituztenentzat, intelektualaren paradigma hau da: bere buruari bakar-bakarrik entzuten dio; errealitatean azaltzen den miseriaran aurrean itsua, gorra eta mutua da, ezer baino gutxiago dio sistema susmoan ez jartzeko. Hau da, lotan dagoen pentsatzailea da, pentsamendua, adimena eta endelgua behin betiko loarazi dituena. Hala ere, endelgua lotan dagoenean, sistemaren —pentsamendu bakararen— intelektualak ezereztuta geratzen da.

Aipatutakoak ez du esan nahi ez dagoenik kritika egiteko aukerarik; alderantziz, balegoke kritika egiteko ahalbiderik, baina honek *hirugarren bidaiarena* izan behar du, sozialdemokraziarena liberalismoaren aurka, edo liberalismoarena sozialdemokraziaren kontra (hau da hau, boterean alternantzia!). Beste kritikoek, zeinek ez dituzten beraien hezurak panteoi akademikoan lurperatuta ikusi nahi, ez dute ostrazismoaren zigorra sufritzen, ez-existentziarena baizik. Sistemaren kontra dagoen pentsalaria ez da intelektualak, ez baita existitzen, hausnartzen duen arren. Marketinak —globalizazioaren botere berriak— erakusten baitigu zer den eta zer ez den errealitate kultural, ekonomiko, politiko eta sozialean. Gramscik argitu zenez, intelektualen arteko bereizketa desagertzen denean, pentsamendua bakarra bihurtzen denean, gogaitasuna, kazkarkeria zabaltzen dira eta endelgua pikutara doa.

Dena dela, egia ote da endelgua betiko desagertu dela? Beharbada, hauxe gertatzen ari da: intelektualitatearen zabalkuntza gizabanakoengana, baita biolentziaren espresioekin ere (zeinak sistemak bere burua mantentzeko

erabiltzen dituenak baino askoz gutxiago diren). Bestela, nola ikusi globalizazioaren aurkako erresistentziaren mugimendu sozial berriak? Azken buruan, mugimendu berri hauek sistemaren intelektualek egiten ez duten kritika berpizten dute; intelektualen hitz hutsetatik kritika sakona berreskuratu eta haien eskuetan dauden adimena eta endelgua berriro ateratzen dituzte. Baina, miseria egoera horren salaketan endelguaren paper berri hau eraikitzearen aurrean, zer esan ahal (eta esango) du tradizionalki intelektual deitutakoak? Ezer ere ez, berarentzat ez baita arazo interesgarria. Intelektual horiei honakoak dagozkie: orgia sozialak (edo boterean sortzen diren harreman sozialak), prebendak, dirulaguntzak, azken buruan, finantza. Demokraziari buruz *demos*-ik gabe predikatzea, desobedientzia zibilaz praktikarekin konprometitu gabe harrengatik egitea. Hala ere, *demos*-ak hitz egin bezain laster, edo desobedientzia zibilak era erreala hartzen duenean, intelektualtzat jotakoak beldurra sentitzen du eta isiltzen da. Miseriazko errealitatearen aurrean bere erantzuna, beraz, isiltasuna. ¶



## Eduardo Gil Bera

### **Ezta pentsatu ere**

Ni re irudiko, globalizazioaren agerpena, oraingo berrikuntza bezala deskribatuta, artikulu sakonak, mindegiak, tesiak eta liburu seriosoak balioko badu ere, sineskeria edota, nahiago bada, egungo lelo merke bat da. Besterik ez. Gaur egun daukaguna eta pairatzen duguna oso fenomeno zaharraren beste kapitulu bat izango litzateke, baina ez fenomeno beraren agerpena. Globalizaziorik zertue-na, inoiz gertatzekotan, oso aspaldi izan zen, duela doze-na t'erdi mende, nonbait hor.

Ez zuen inolako zerikusirik komunikabideen garapena-ekin, ezta ekonomia berriarekin, ezta internet-planeta-ren neurri eta bide berriekin. Ez zuen teknika hedadura, birraldaketa, iraultza eta ubikuitatearekin erlaziorik batere.

Puskaz ere fenomeno sakonagoa zen; sakonegia, kultura-ren eta pentsamenduaren historia onartu eta konbentzionaletan agertzeko eta intelektual funtzionarioen sermoietan lekuren bat edukitzeko.

«Mundua hiri bat da» esaldia estoikoen ikaskintzetan agertu zen lehen aldiz. Estoikoak, edo «Stoa»-ko filosofoak —alegia, «Atari»-koak—, Zitioko Zenonen ikasleak eta herederok dira. Zenonek filosofia irakasten zuen k.a. III. mendeko lehen urteetan Atenasko Atari Pintatuan (Poikile Stoa). Irakaskintza estoikoa Erromara igaro egin zen eta bertan bere apogeo-a ezagutu, gerra zibil eta inperio errepublikanoaren garaian.

Erroman, Karakala enperadorearen aginpean, Terro-rearen erregimena puri-purian zela, 212. urtean, gizaki guztien zuzenbidezko berdintasunaren ideia estoikoak konfirmaketa ofiziala lortu egin zuen eta ideia topiko bihurtu. Hiritar erromatarraren titulua eman egin zitzaien Inperioko gizaki libre guztiei: *in orbe Romano qui sunt ex*



*constitutione imperatoris Antonini cives romani effecti sunt* (*Digesta*, I, 5, 17). Horiexek, bada, historiako aro aldaketarik inportanteena markatzen duten esaldia eta data dira. Gizaki zahar eta berriaren arteko mugarrria. Bere jaiotza egunari begira, beraz, oso modernitate zaharra da pairatzen dugun hau.

Data historikoen erregistroa eta promozioa oso literatur genero ziztrina eta ausardia soberarekin praktikatua dela dakidan arren, artikulutxo honek lagundu egin nahi du berebiziko une haren balorea apreziatzen.

Aipaturiko 212ko konstituzioa kontsideratua izan da ekintza fiskal bat bezala. Alegia, enperadorearen kobrantzari begira egindako aldarrikapena. Hala ere, Karakala enperadorearen nahiak eta xedeak halakoak ala honelakoak izan arren, anekdota hutsa dira, baldin eta konparatzen badira pentsamenduaren historian hiritartasun berdin eta orokorraren lehendabiziko aldarrikapenak suposatutako gertaera paregabearekin.

Iraultza Frantsesean edota Giza Eskubideen Aldarrikapenean «hiritarraren» bonbazia eta exaltazioa, III. mendeko Erroma nahasi hartan egindako proklamazio estoikoaren oihartzun eta imitazio hutsak dira.

Gaur egunean hain maiz erabilitako «munduko hiritarra» lelo hutsalak jatorri estoikoa dauka eta, une hartan, kontzeptu iraultzailea zen. Islatu egiten baitzuen errealitate berri bat: hiri konkretua, bere harresietan hertsia eta bere merkatuari begira egondako erakunde biziduna, lehenago edukitako botere politikorik, arrazoi erlijiosorik eta kastako zentzurik gabe geratu zelako errealitatea, hain zuzen.

Handik gutxira, gero etorritako anarkiaz eta odolez beteriko epean, Alexandro Severoren heriotzatik, 235ean, Dioklezianoren entronizaziora, 284an, igarotako epean, estoizismoa disolbatu egin zen filosofi eskola gisa.

Baina, juxtuki, disolbatu eta ezabatu egin zen, zeren bere eragin orokorrak eta segizale zenbatesinekin, alor guzietan egonda, moda zaharreko eskola baten segida ezinezkoa egiten baitzuten. Horretarako konkurrentzia eta kompetentzia baten beharra baita eta estoizismoak ezin baitzuen harrezkeroztik areriorik eduki.

Oso belaunaldi gutxitan, pentsamendu korektoaren monopolioa edukitzeraz iritsi zen eta, handik goiti, bakarrik estoikoa zen korektoa, esplikagarria eta argudiagarria.

Orduan, orain bezalaxe, epailea, zuzenbidean aditua, arrazoizalea, irakaslea, jakintsua izatea soilik estoikoa izateko modu ezberdinak ziren. Horixe baita, hain zuzen, geroztik eta gaur arte dirauen eta finkatuz joan izan den egoera, egiazko globalizazioa.

Pentsamendu estoikoa ez da desagertu, beraz. Orotan dago, bere manera eta manifestazio zenbatezinetan, azken bi milurtekotan.

Estoikoek errefusatu egiten zuten Platonek sostengaturiko jatorrizko ideien teoria eta enpirismoa nahiago zuten. Honek esan nahi du sostengatu egiten zutela gizakia ahalmen diskurtsibo batekin sortzen dela eta horrek berbazko eta arrazoimenezko diskurtsoa sortuko duela, baina ahalmen horrek ez du a priori edukirik batere, hori eskarmen-tuz eta esperientziaz hartuz joango den gauza da. Esperientzia, hain zuzen, iritzi eta ezagutzaren sortzaile izanez. Oso gaur eguneko teoria, ia estoiko guztiak ohi diren bezalaxe.

Baina diskurtso estoikoaren berebiziko hobekuntza bertutearen entronizazioa izan zen. Lehenik, salbuespenik gabe, bertutea finkatzen zuten eta, gero, bere demonstrazioa. Oraintxe bezala. Horrela, ezer ezin zen demonstratu, baldin eta bertutetsua ez bazen. Bertuteaz kanpoan, eromena, zentzugabekeria eta galbidea ziren. Horixe da, hain zuzen, monoteismo guztien funtsa.

Horrela, kristautasuna, islama, judaismoa, sozialismoa, anarkismoa, landartzaletasuna, parlamentarismoa eta abertzaletasuna korektoak eta estoikoak dira, erroitik gora. Soilik eta bakarrik korektoa demostragarria da, gainerakoa ezinesana, inkoherentea eta kaltegarria da.

Estoikoek konparatzen ohi zuten filosofia baratze batekin. Logika hesia da, fisika zuhaitzak eta etika fruituak. Etika, beraz, printzipala zen. Jakintsuaren, alegia, etikoa den gizakiaren bertuteak hauexek ziren: ez pasiorik ezta beharrik ere ez izatea, «logos»-i obeditzea eta eginbeharren kontzientzia izatea. Eduki behar zituen, alegia,

gaur eguneko estoizismoak jakintsu bati, epaile bati eta agintari bati, intentzio onez beteriko izaki eredugarri horiei, suposaturiko nolakotasunak.

Arrakasta handiko beste asmakizun estoiko bat estatu unibertsala izan zen. Arrazoi unibertsalaren ondorio zuzena. Estoikoek beren burua munduko hiritartzat eta leku bakoitzeko arrotzat jotzen ohi zuten.

Nola erromatarrek —hiritartasun unibertsala, zuzenbide orokorra eta gainerako orokerien asmatzaile eta bultzatzaile nagusiek— ikusten baitzuten erromatar hiritarra izatea gauza erlijioso, mesianikoa eta inbidiagarria zela, estoizismoan zerbait erakargarri eta funtsezkoa ikusi egin zuten.


Ez du, beraz, zentzu handirik galdegiteak hemendik goiti pentsamendu bakarra izango den, betidanik, pentsamendu presentagarri bezala agertu zenez geroztik, bakarra izan baita eta hori ez zena presentaezin bezala baztertu egin baita.

Hauek oro esanda, zein da intelektualaren papera? Erakutsiezadazue funtzionarioa ez den intelektual bat eta, menturaz, ustezka genezake zerbait «intelektuala» = «apezgo berria» salbuespenik gabeko ekuazioaz aparte. Baina, nola gauza fantastikoa baita, intelektualak segituko du funtzionario izaten eta korrekzioa eta komenientzia definitzen eta predikatzen.

Zeren, nola ez, intelektualala funtzionario bihurtu baitzen estoizismoaz geroztik. Lehen, korrekzioaren aurreko behialako denboretan, jakintsua egoten ohi zen kaleko kantari, saltinbanki edota eskalearen mailan.

Globalizazioa, beraz, gainera etorri eta erori zaigun fenomeno berria bezala oso ipuintxo korrektoa bezain faltsua da.

Intelektualaren arrakasta, honezkero esanagatik, ezin da ez mezuan ezta bidean ere egon. McLuhanen «bidea mezua da» esapideak ez du balio. Mezu korrektoa derrigorez bakarra izatez, inork ez du ezer esaten eta, horregatik, komunikazioan, mezularia bera mezua da.

Apezaren ser-  
moiaren balioa ez   
dago sermoian baizik eta apez izatean berean; aplika bedi  
apezgo berriaren sermoietara.¶

## Elena Martinez

### **Gure belarriak ohitu dira. Beryteko Sanchoniatonen omenez**

Gure belarriak kontaera iruzurtiok entzuten ohitu dira haurtzarotik, eta gure gogoak mende luzeak eman ditu aurreiritzietan murgilduta, asmakeria horiei eutsiz berebiziko altxorra bailiran... Aldiak berak ere lagundu du lan hau burutzen, indarrezko ordezkatzeko honi hain izaera erasoezina erantsiz, non egia antz huts bilakatu baita eta kontakizun aizun horiek ostera egiantza bereganatu duten

esan omen zuen Sanchoniaton feniziarrek jadanik lau mila urte direla greziar teogoniei buruz hitz egitean<sup>1</sup>.

Oroit gaitezen greziarrak eta, oro har, mediterraneoar itsasertzeko kulturak, nagusigo desitxuratzaileari atxiki zaizkiola milaka urtetan zehar, europar herri zaharragoen hatsarreko bizimodu, sineste eta ikusmoldeak —ez erabat, bai hein handi batean— eragabetuz, hau apurka-apurka gertatu bada ere, herria azturetara irmoki estekatzen denez gero. Halaber, mendebaldeko filosofiak eginbehar deuseztatzailea bete du bere sorreratik hona, heldu den leku guztietan azpiak jan eta bertan aurkitutakoa zuhirinduz. Izan ere, ekandu eta sinesmenek ezin ase filosofiaren etorburutzat hartu ohi den *thaumadzein* edo harridura hurra, eta filosofoak —beti gertu arrazoimenaren laguntzaz ez bestelakoaz bide ezezagunak urratzeko— aurreko mundu-ikuskerara finkoa eta mitoen bidezko azalpenak geroz eta alor gehiagotan zokoratuz joan dira, mito horiek aztertu eta irauli ondoren. Horrexegatik dugu filosofia, ez noski giza-jakintza osoaren, baina bai gaurko zientzia-eredu nahiz zientzia guztien oinarrian, berauen aurrerapena azkartzeko ezinbestekoa izanik. Filosofoen egitekoaren garrantzia eta, era berean, beren esangura liskargile eta ga-

tazkatsua gizarte osorako, filosofiaren hastapenetan bertan topatzen ditugu: Anaxagoras Atenastik erbestera behar izan zen leporatu zitzaion fedegabetasunagatik, hiri honek ere beranduxeago arrazoi beragatik Sokratesi heriotza-zigorra ezarri ziolarik.

Lehengo filosofoen abiaburu iraultzaile hark gaur egungo zientziarantz eramán gaitu besteak beste; ez nahitaez, baizik gorabehera eta eragile askoren elkartzea bitarteko, Aro Berrirako bidean izadian esku hartzen duen saiakuntzazko zientziak bigarren zedarrí nagusia gorpuztu zuela ahortzi gabe. Orduan ere, naturaren filosofoak, bai eta filosofiaz arduratutako zientzialari berriak, heriotza-zigor eta arriskuarekin harremanetan ditugu, Giordano Bruno, Galileo eta besteren adibideek erakusten diguten legez. Eliza katolikoa, garai hartako agíntea alegia, jentiltasunaren aztarnak —teologo eta filosofoen arteko eztabaidak zirela bide— Erdi Aroan barrena ezabatzeari ekin eta gero, zientzia berria gogorki oztopatzen saiatu baitzen ondoren, harik eta zientzia hau erabat bere egítera iritsi zen arte. Egun, zientziaren sustatzaile sutsu dugu Eliza, hari buruz agertzen dituen kezkek azalekoak baino ez direla.

Zein balioespen egin daiteke bada, ezarian taxutu eta bitartean agínpideak berak bultzatzen duen zientziari buruz? Beronen alderdi hiltzaíleez balíatuta, manu eta iskiludunek kale itsu batean sarturik dute gizadia: batetik, lehengaien agorpenak eta nuklear xantaiak nahiz akats genetikoen zuzenketaren mehatxuak bere batean dira; bestetik, herri behartsuagoen zapalkuntza zabaltzen jarraitzen du Inperio orojaleak. Gainera, lehengo gizakiek beren mezu iraunkorra haitzetan adierazten zuten, alfabetorik gabeko idazti harrizkoak gerorako utziz: gaur, ordea, darabiltzagun datu-euskarriak guztiz galkorrak dira, eta azken batez, hurrengo belaunaldientzat irakurtezínak zíurrenik; hortaz, zaborra eta hondakin pozointsuak izango dira etorkizunean gugandik jasoko diren ondare eta gizakiak bila ohi dabiltzan hilezkortasunaren adierazgarri bakarak.

Jean Zieglerrek, herri kolonizatu eta zanpatuen eza-gutzaile onak, sínesten duenez, Inperioa indarkeriaz hedatu den tradizíodun herri ez-garatu eta oraingoz ez-ber-

dinduak dira giza-gogoaren babes zein atsedenekua, basamortuan idorotako iturria, sen eta zentzuaren hondarreko gordailua. Zein tradizioz ari da alabaina? Ez al dira izaten usadio batzuk ere hainbatean itogarri edo sormenaren abailgarri, eta horregatik aldatu beharrekoak? Hala eta guztiz, berak dioenez: «Dugun duintasun bakarra, munduaren antolamendu itxuragabearen ezaguera argitsuan datza»<sup>2</sup>.

### Doilor eta zitalei, bide batez

Dena delarik ere, ezin ahaztu daiteke filosofoek arreta ipinitako azken arloetariko bat gizakien ustiaketarena izan dela, Marx eta besteren mundua aldatzeko asmo politikotik hogeigarren mendeko masa-gizartearen moldagarritasun eta totalitarismoaren azterketara. Ardura honetan 1989ko Berlingo harresiaren hausketa mugarri izan zen ezbairik gabe, bilakabideak ikur bati eratxikitzen ohi zaizkionez gero, gertaera bakar batek bat-bateko agitasunez iraganeko alde ulergaitzak ulertaraziko balitu bezala: erorketa hark bidegabekeria borrokatzeko sortutako ideologia ezkertiarren porrota (modu egonkorrean gauzatu zirena behinik behin) denentzat agerian utzi baitzuen azkenik.

Agi denez, filosofoek giza-bizitzak ereindako sail desberdinetan aritu eta hauen loratzea lortu bide dute maiz, oztopoak gaindituz eta boterea itxuraldatzera behartuz, beronen zerizanaren eraldaketa erdietsi gabe hala ere, garaian garaiko eta tokian tokiko boterea pentsamenduaren emaitzez jabetu eta bere onurarako behin eta berriro erabili dituelako. Oldoztearen garaipenak orain arte *pirriko* baino ez dira izan beraz? Lehia honek azken buruan, gaizkiaren eta ongiaren artekoa bezain zahar eta saihestezin dirudi.

Zertan da gaur auzi hau? Mende bukaerako etsipenari etekina atera nahian, giza-kondairaren amaiera aldarrikatzeko saialdia egon zen direla hamar bat urte, eskupeko pentsalariak tartean. Mitora sasi-itzultze honen zabalkundearen arabera, *aro profano* hutsean bizi gara dagoeneko, bilakaera ideologikoaren azken maila den oraingo demo-

kraziari esker muntarik gabeko gertakariak —portaerak hobe esanda— baitezpada errepikatuz. Baina gogoratu egin behar da, bestalde, historia eta filosofia aldi batera jaio zirela (une hartan bizilagunen ugaltze zein lekualdaketak, bai eta jazoerak orokorki, batera bizkortu eta maizagotu ziren bezalaxe), bi-biek gizakiak ibilkera astitsu bati lotzen zizkion lokarriak askatzen lagunduz. Egun aldiz, aldaketak ezin ugari eta azkarragoak dira, hain neurri handian, non higidura hau osorik tronpatzaile eta nahasgarri bihurtu den: beraren pean orainaldi zirinean bizi diren lagun geldo, aiherga eta axolagabeak aterpetzen dira, oroipen eta gogoetarako ezgaiak. Gauzak honela, ez dakigu norantz bideratu ote diren giza-ekimena eta gizakien harritzeko edota galderak egiteko ahalmena. Edo errotik aienatu ahal dira gaitasunok, jaioberriak ere aurrerantzean horiek gabe munduratuko direlarik?

Zeozer etengabe ari denaren irudia elikatzen nahiz gogoetak ihartzen, *mass-media* dira nagusi, jakina. Hedabideok adimena eta bihotza kutsatzen dituzte, arrazoimena ren jarduerari eragotziz eta gizarte eriari bide eginez, beraietan agertzen diren saripeko intelektualak *clown*-en parekide baizik ez izaki. Baina utz ditzagun albo batera historiaren amaieraren burutazioa bezalakoak zabaltzen dituztenak, edota bortizkeria nonahikoa *globalizazio* hitzaz mozorrotzen dutenak, beren xedea tolesduna denez. Gogoetari hauek estatuen morroi handigurak izaten baitira, eskuzabalagoak beren buruekin filosofiarekin baino, hitz gutxitan: zilegitasunik gabeak. Filosofoek jai dute, bizi diren artean esker ona jaso eta aintzat hartuak izateko itxaropen soilaz egiten baldin badute beren lana.

## Ilunpetako giltza

Azken Guda Nagusia (Gernikan Europako herri zaharrenari egin zitzaion sarraski motarik berrienaz 1937an hasi zena, hain zuzen ere) pentsamenduaren esparruko eten-dura itzulezintzat jo izan da, orduko gertakizun garrantzek Nietzsche, Kierkegaard eta aurreko mendeko beste pentsa-



lari batzuen erronkez hasitako bidea berretsi zutelarik. Harrez geroztik, eta mendebaldar pentsamenduaren tradizioaren behin betiko galera honek eraginda, filosofia bere kategoria guztietan desagiteko asmoa aditzera eman dute hainbat filosofok. Eraispin hau abiagune bat izan liteke ausaz, edota hausturaren ostean geratu diren pentsamenduaren zatiak beste hari bati jarraituz atontzeko ahalegina. Nolanahi ere, gizakiei irain egiten dien edozein amarrukeria salatu eta edozein kate apurtzea da, oraindik ere, filosofiaren eginkizunik baztergaitzena, berdin zein eremutan murgiltzen den, bai eta betebeharrak horretan bere burua desegin behar badu ere.

T.E. Lawrenceren honako hitzok (Arabiako Lawrence ezizenez ezagunagoa) filosofiaren barrutira ere eraman litezke:

Gune ilun edo arreak dauzkan jendeak saihestu egiten ditu, zeharka aipatuz baina sekula ez artez aurre eginez, haiek estalgabetzeko bildur baita; hala eta guztiz, ilungune horiek erraz topa ahal dira, hutsuneen agerian uzte soilaz alegia.<sup>3</sup>

Non datza, esaterako, Hannah Arendten amerikar demokraziaren jaiotzaren gaineko hausnarketa eta goraipamen ugariaren sinesgarritasuna, baldin eta bertakoen patuaz —*indiarrek* esan nahi baita— kezkarik agertzen ez badu, hau da, harentzat esan gabe badao, demokrazia berri hori eraikitzerakoan, heldu berriek bertakoak hortik kanpo utzi zituztela, are gehiago, horretarako lurraldeak bortxaz lapurtu eta ohiturak aldarazi zizkietela ere? Eta itaunei jarraikiz, non aurkitu ahal dira egun, anitz erasok ia lurperaturik, jatorrizko europar jakitearen hatzak? Herriz azpiratu baten hizkuntza erdi galdu (erdi galarazi) batean beharbada, zeinetan tamalez gogapen gutxi egiten diren<sup>4</sup>.

Ilunguneen ildo beretik, filosofoek emakumeen eza-gumenari hamaika bider zaputz egin ondoren, zer adierazi nahi du egun gai honi buruzko arduragabetasunak haien aldetik? Ez baitute askok burua hausten funsgabeko —eta oldozmenerako ondorioz beteriko— gutxiespen honen zergatiak xerkatzen, zenbait filosofo barrengari utzi

dituen arren. Izan ere, isiltasuna lotsagarria da hitz egin behar denean.



Agian, Descartesen erarako *materia* edo ekaiaren eta *espíritu* edo gogoaren arteko banaketa zorrotza baino lehen, alkimistari bere zereginean eskatzen zitzaion derrigorrezko baldintza bera betetzea eskatu behar zaio gogoe-talariari, baita zientzialariari ere: bere baitari so egin diezaion, bere buruaren hobekuntzari heldu ahal izateko, barruko atalase honen igarotzea kanpoan —hots, alkimisten helburu den metalen eraldakuntzan bertan— islatuko delakoan. Filosofiaren ibilbide bihurriak eta zientziaren aginduak —edo ustezko aginduak— jakinduria ez-zientifiko baten menpe kokatu behar baitira beti.

Geroaldiari dagokionez, non bilatu giltza? Hemen lagungarri izan liteke ipuin *sufi* zahar batek jasotakoa: Nasrudin gizon txit xelebreak gau batean etxera sartzerakoan giltza galdu eta berehala kale-argi batera hurbildu zen bilatzeari ekiteko. Hantxe aritu beharrean, giltza eroria zen tokian zergatik begiratzen ez zuen galde egin ziotenean, zera erantzun omen zuen: orain zegoen ingurua ongi argitua zegoelako, bestea berriz iluntasunean.¶

- 
1. Ikus Pauly-Wissowa, *Real-Enzyklopädie der klassischen Altertums-wissenschaften*, J.R. Metzlersche, Stuttgart, 1920-1967, V. liburukia, 2233/50. orrialdetik aurrera.
  2. Jean Ziegler, *La victoria de los vencidos*, Ediciones B, Bartzelona, 1988, 14. orr. «Ba al zaigu haizu menderatzen ditugun lurraldeetako bizilagunak ustiatu eta hiltzea? Gure barnea zartatu egin da: ez da, inola ere, zorionsua... Zartadura hau izan litekeen zorionaren eta egiazko zorigaitzaren arteko aurkakotasunetik dator».
  3. T.E. Lawrence, «Handley bere lagun idazleari eskutitza», 1931ko uztaila. Ikus *Los siete pilares de la sabiduría*, Huerga & Fierro, Madrid, 1997, 41. orr.
  4. Bestela esanda —eta euskararen inguruko ikerketa ontosemanti-koak baino haratago joanez—, emankorragoa da hizkuntza batek berez eskain dezakeena behin filosofiarako sortzen hasiz gero, hizkuntza hori bere egitura edota adigai nahiz irudien aberastasunean hitzun arrotzen ikuspegitik arakatu eta miatua izatea bai-

no. Ikus, adibidez, Angel Goenaga, *Uts: La negatividad vasca*, Leo-

poldo Zugaza, Durango, 1975.

## Joseba Zulaika

### **Espainia eta Europa probintzializatu zaizkiguan... eta probintziak globalizatu**

Mundua ikaragarri probintzializatzen ari zaigu. Begira bestela nola New Yorkek Bilboko auzo museistiko bat dirudien, edo Hollywoodeko motorrek geure herriak ere bisitatu dituzten, edo munduko arkitektoentzat entzutetsuenak —Gerhyk— bere burua kasik euskalduntzat duen. Lehen James Bonden pelikulak urruneko intriga besterik ez ziren; orain 007 Agentea geure kaleko balkoitik lokarriari atxikirik salto egiten ikus dezakegu. Eliteko turismoaren mapan hiri izartsuenetakoa Bilbo bihurtu zaigu. Arkitekturarik zoragarriena eta museorik globalena eta auririk aipagarrienak eta hiririk postmodernoena, dena etxean omen daukagu... Eta hori guztia, aitaren etxea abandonatu genuela uste genuenean.

Hau guztia ipuin bat da nahi baduzu. Eta baita ere Wall Streetek edo Hollywoodek edo Etxe Zuriak sinestara zi nahi dizkigutenak. Eta egunero komunikabideetan irakurtzen ditugun gauza global horiek —genoma proiektuak DNA giza-kodea transkribatu duela, eguneroko janaria genetikoki aldatua egon daitekeela, behi eroak, edo Europak 75 milioi emigrante beharko dituela mende honen erdirako— beldurra ala esperantza sor dezakete. Baina inolaz ere ezin dugu globalizazioa seriozki ez hartu.

Finantzek, informazioak, emigrazioak, kulturak, politikak... munduaren globalizazioaren berri ematen digute egunero. Zenbat eta txikiago eta hurbilago mundua eta ekonomia, orduan eta globalago eta nahasiago kultura eta teoria. Eta ez zaio gauzari erremedio errazik ikusten. Desoreka ekonomikoa eta beste zenbait alderdi kezkarri are agotzen ari dira. Baina arriskuekin batera datoz baita ere inoiz ez bezalako aukerak. Zalantzan jarri ezin duguna ze-

ra da: aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko oinarrizkoak behartzen ari dela globalizazioa. Mundua bera hari batean dagoela dirudi batzuetan. Euskaldunak garen neurrian globalizatzearen mitologia berri honek ba al du guretzat ondorio positiborik? Ni baietzean nago.

«Urak dakarrena, urak darama. Eta gu hemen, gu beti hemen», zioen kantak. Baina gu ere, nola ez, mugikorrak gara, eta badaramazkigu lauzpabost mende munduan zehar euskaldun izaten. Eta teknologia berriekin inoiz baino ibiltariago eta globalago gara nahitaez. Euskaldunoi sarritan falta zaiguna hau da hala ere: geografiaren eta teknologiaren mundu zabal horretan lasai ibiltzeko ikuspegi, harreman-sare, nortasun egokiak. Historiak dakarrena historiak daraman honetan, mundu ikuskeraren, identitatearen eta teoria beraren gaurkotzea komeni zaigu.

Zer ari da ba aldatzen? Lehenik, mundu-komunikabideetan iraultza bat gertatzen ari da. Azken hogeita hamar urte hauetan, sateliteak direla medio, bat-bateko komunikazioa nagusitu da mundu osoan. Internet da iraultza honen azken pausoa. Gure kultura eta politikarako errealitate honek dituen ondorioak guztiz oinarrizkoak dira. Hau behintzat irakatsi digu Guggenheimek. Honekin batera dator «ezagutzaren ekonomia» bezala ezagutzen dena. Teknologia berriak eta finantza merkatuak dira ekonomia «arin» honen ertza, industriaren ekonomia «astunetik» hain desberdinak. Politikaren alorrean mundu global berri hau post-sobietarra da, hau da, azken hamarkadakoa. Sobiet Batasuna nahiko ondo ari zen ekonomia industrial astunean; ekonomia arin elektronikoan aurkitu zen galduta. Azkenik, eguneroko biziera mailan ere aldaketa nabarmenak ari zaigu inposatzen globalizazioa. Familian, gizon eta emakumeen artean, laneko eta komunitate txiki-tako harremanetan, eguneroko lanean, aldaketa sakonak behartzen dizkigu.

Gauzak apenas aldatu direla argudiatu nahi duenak ere laister aurki ditzake datuak. Betiko desberdintasunak berdintsu irauten dutela, adibidez. Norabaiteko erdibidera iritsiko ginatete «alde batetik» eta «bestaldetik» argudiatzen hasiko bagina. Baina globalizazio ideiaeren boterea ez

dago ukatzerik: bertatik ihesbiderik ez daukagula konturatzeko ematen dio urgentzia. Industriak ezin ditu alde batera utzi, adibidez, digitalizazioaren ondorio erabakigarriak, konpainia handiak bat egitera behartzen dituztenak. Janari industriak, banketxeak, aseguruak, informazio teknologiak, komunikabideak, denak batzen ari dira, sarritan muga nazionalz gaindi. Estatu-nazioen subiranotasunari zer gertatzen ari zaion begiratzea da globalizazio berri honen beste ikuspegi oinarritzeko bat.

Lanaren eta lankidetasunaren inguruan definitu izan ohi dugu geure biografia, nortasuna eta lagunartea. Lanaren mundua ere sustraitik aldatzen ari da. Lan iraunkorra amaitzen ari den bezala, eta leku konkretuei diegun atxikitasuna arintzen, «nire aitaren etxeko» baratze eta basoetatik «etxegabeziaren» mundura salto egiten dugu. Orain gutxi arte langileriaren erdia baino gehiagok fabriketan egiten zuen lana. Gaur egun gizarte aurreratuetan ehuneko hogeitik behera dira langile horiek; ehunetik bi baino gutxiago nekazaritzan (eta hala ere sal dezaketena baino gehiago produzitzen dute).

«Zaharkitu ezazu zure produktua», hau da Microsoften lema. Kapitalismoak destrukziorako eta sorkuntzarako ahalmen ikaragarriak dituela erakusten digu etengabe. Begiratu bestela bata bestearen ondoan dauden Bilboko Ezkerraldeari eta Abandoibarrari. Kapitalismo eta komunismoaren arteko borrokan historiak ez du zalantzarik utzi zein den irabazle. Merkatu ekonomia eta demokrazia pol itikoa alternatiba gabe gelditu dira. Globalizazioaren kondizio bihurtu dira hauek ere. Badira globalizazioa eta amerikarizazioa gauza berdintzat jotzen dituztenak, eta honek alde guztietan desberdintasunak ugaritu besterik ez dituela egiten diotenak. Baina begira Asiako «tigre» ekonomietan gertatua: denbora gutxian milioika pertsonak pobreziatik ihes egin dute kapitalismo globalaren laguntzaz. Sozialismoak uste izan zuen ekonomiaren erregulatuak gizarte eragileago eta zuzenagoa ekarriko zuela; merkatu kapitalisten indarberritzeko ahalmenak bestela erakutsi du. Baina globalizazioa ez da kapitalismoa bakarrik; hain garrantzizko edo gehiago da ezagutzaren ekonomia bera.

Mundu murriztu eta amerikanizatu honetan, Europak —NATOrekiko bere murriztazarekin, kili-kolo dagoen euroarekin eta emigrazioaren kontaminazio izuarekin— dependentziaz beteriko probintzia bat dela adierazten digu egunero. Eta Europa horretan, probintzia baten probintzia, Espainia. Euskaldunok, aldiz, hiru aldiz areagotutako probintzietan bizi gara, eta beti ere Espainiaren atzetik (Joseba Gabilondo), Espainiarekin borrokan eta beraren pareko izan nahirik. Kultura, identitate eta politika mailan, globalizazio uhin berri honek askatasun eta aurrerapen oportunitate paregabeak eskaini behar lizkieke euskaldungoari.

Europa ilustratuak sortu zizkigun modernia politikoa-ren kontzeptu oinarritzko guztiak: hiritartasuna, estatua, gizarte zibila, giza eskubideak, legearen aurrean berdintasuna, indibidualitatea, pribatu eta publikoaren arteko desberdintasunak, subjektuaren nozioa, demokrazia, justizia soziala, razionaltasun zientifikoa, herriaren subiranotasuna, eta abar. Gizakiaren ikuspegi unibertsalista eta laikoa suposatzen dute. Kolonizatzaile europarrak munduari inposatutako nozioak dira: zibilizatu izan nahi zuenak, europarren kodeak bete behar zituen, beren portaeretan batasienak europarrak baziren ere.

Euskaldunak ere hortara saiatu gara. Gure estatu ezinezkoa dela, edo arraza propioa dugula, edo armak hartzeko ausardia, edo antropologiaren frogak direla, edo artearen eta literatura abangoardisten pizkundea, beti ere kolonizatzaileen diskurtsoak sinetsi eta haien alturan egoten saiatu gara.

Hori guztia ondo da. Baina mundu globalizatuak Espainia eta Frantziako presondegitik azkenean libre garela sentitzen ere lagundu beharko liguke. Munduarekiko gure dependentzia handituz doan heinean, estatu europarreki-koa gutxitzen ari da. Orain hogeitun urte soldaduzka egitera behartuta geunden, ez zegoen eskola euskaldunik, ezta ere unibertsitate eta komunikabide propiorik. Mundu global postkolonizatu honetan, Madrilak edo Parisek ezin dute euskaldunon bizitza gaur egun lehen bezala kontrolatu, eta gero eta gutxiago ahal izango dute.

Europako estatu unibertsal eta armada bentzutuezin omen ziren haiek gaur egungo teknologiaren eta politikaren globalizazioarekin titere bihurtu direla edonork daki. Ez da hau berri txarra horien mende egon diren herri txikientzat. Inoiz imajinatu ezin genuena ere gertatzen ari da: estatu inperial horietxek beren boterearen alor zabalak burokrazia anonimo bati entregatzea, ez unibertsalismoaren edo justiziaren amorez, lehengo euren koloniak egun batetik bestera eurak baino aberatsago gerta ez daitezzen baizik. (Lehen «koreano» deitzen genien emigrante gizagaixoei; orain koreanoak datozkigu Gasteiza inbertsioak egitera).

Mundu ikuskeraren gaurkotze teoriko honek euskalduntasunaren sustriak eta formak errotik birplanteatzeko parada ematen digu. Hau da, euskal errepresentazio eta diskurso historikoak, euskaldunok geure burua definitzeko erabili ditugun tradizioak, gabeziak eta ukazioak, sus-traitik eta beldurrik gabe problematizatzea eskatzen du. Gure «izaera» zein neurritan Europak oparitutako antropologia eta historia eta estatu-nazio eta kulturaren ondorio hutsa den —zer garen eta zer ez garen neurtzeko orduan— galdetu behar diogu geure buruari. Eta gure politikaren ibilbidea Espainiaren atzetik eta nazionalismo historiko europaren ildoetan aritzea ote den ala politika postnazional zabalago bat dagokigun planteatu behar dugu. Nahitaezko izango ziren gertakari historikoak eta haien ondorioak gu-rekin izango ditugu beti, baina kulturaren eta teoriaren globalizatzek horixe eskatzen digu: historizismotik harantzago joatea. Globalizazioaren aldaketa iraultzaileak azken hamarkada post-sobietar honetakoak dira, ez orain hiru edo bost hamarkadakoak, ez ETaren sorrera bultzatu zutenekoak, ez nazionalismoa lehenbizi ikusi zutenekoak. Eta aldaketa horiek estatu-nazioaren funts historikoa —armada, diru propioa, ekonomia nazionala, muga geografiko eta politiko zehatzak— erabat hautsi dute. Gaur egun mundua gidatzen duten indar ekonomiko, informatiko, kultural nagusiak edozein estaturen gainetik daude.

Globalizazioaren aurka jartzeak ez du etorkizunik gaur egun. Globalizazioari bere barne kontradikzioak age-




rrarazi behar zaizkio, eta hauen irtenbide bezala globalizazio gehiago eta justuago bat bultzatu. Ez da egokia, adibidez, kapitala bigarren edo hirugarren munduko nazioetara mugitu ahal izatea, nahi duenean eta nahi duen erara ihes egiteko baimenarekin; beste horrenbeste esan daiteke diru balioaren gorabehera handiez, nazio osoen ekonomiak egun batetik bestera lur jota utzi ditzaketenak. Asiatiko eta Hegoamerikako nazioen krisiak garbi erakutsi zuen bezala, nazio mailan eman daitezkeen erantzunak oso dira mugatuak. Argi azaldu zenez, gutxienez herrialdeka eta ahal izanik mundu mailan administratutako sistema ekonomiko eta finantzarioak beharrezko dira. Bai segurtasuna babesteko, pobrezia eta desberdintasunak gutxitzeko, mundu mailan ekologia eta ekonomia sistema egokiak bultzatzeko eta merkatu finantzarioak erregulatzeko, erakunde globalak bultzatzera lagunduko duen pentsaera behar dugu.

Zenbaitentzat kezkarri da mundu globalizatu hau, kultura nazional eta lokalak desagerraraziko dituelaren ustean. Kulturak ireki, nahastu eta aberastu egiten dira beste kulturekin harremanetan. Kezkarria botere eta ideologia uniformatzaileak dira; monopolioen aurka borrokatu beharra dago; pluralismo politikoa ezin da arriskatu informazioaren kontrola gutxi batzuen esku utziz. Estatu-nazioen subiranotasuna ere (zeinaren izenean egin diren basakeria militar guztiak eta herri txikien menperatzeak) ari da ezagutzen globalizazioaren ondorioak. Orain hogeitazik diktadoreek nahi zutena egin zezaketen ziru-dienez; ez jadanik. Estatu-nazioen gainera, legedi, demokrazia, gobernu kosmopolita baten beharra gero eta garbiago azaltzen zaigu. Dagoeneko milaka erakunde internazionalen lanek helburu hori apuntatzen dute. Zentzu honetan Europa ren batasuna da guretzat esperientzia oinarritzakoa, eta gero eta larriago azaltzen dira bertan inon ez bezala estatu-nazioen mugak. Hauen baitan askatasun, justizia eta demokraziaren alde eman ziren borroka berberak orain gizarte global baten alde ematea nahitaezkoa da.

Munduaren globalizazio honek euskaldunokin zeri-kusirik ez duela edo euskaldunon aurka doala pentsatzea,

oker paregabea litzateke. Azken mende hauetako euskaldunon ekonomia, Bilboren industrializazioa bera, euskal pentsaera eta gizarte zientzien aurrerapenak, edo gaur egungo industria turistiko eta informatikoen berpiztea (Guggenheim barne delarik), errotik kapitalismo eta kultura globalaren ondorioak dira. Momentuan terrorismoa da gure irudi global nagusia. Euskaldunon historiaren, kosmopolitismoaren, nortasunaren, auzerazaletasunaren ukazio hutsa dirudi. Gaur egungo ekonomia, kultura, politika eta nortasuna bideratzeko orduan inoiz ez bezala globalizazioa kondizio nagusi bihurtu zaigunean, formak, itxurak, itzulpenak, bidaiak, internetak, mestizajeak, postkolonialismoak, postnazionalismoak, postmoderniak, premoderniak, multikulturalismoak eta gaur egungo holarako produktu kulturalak inoiz baino lagungarriago dituguk, Europako barbaroak omen garenok.¶

*Egunen*  
*gurpilean*



*kultura • 127*

Karrera meteorikoa • Fatalismoa • Tresna politikoak

JOSEBA BALERDI



*literatura • 135*

Katea, geroz eta estuagoa • Poesia, antzerkiaren bidean

- Formatu txikiaren (zuzenekoaren) gorakada
- Euroaren atarian

URTZI URRUTIKOETXEA



*soziolinguistika • 141*

Galiziako egoera soziolinguistikoa ikergai

- Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara
- Hizkuntzaren Soziologia V. Euskal Soziologia Kongresuan

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA



*telepolis • 146*

Informazio-Gizartea, argitu beharreko sektorea

- Konekta Zaitez • Burdin asko eta plan gutxi • CIDAT
- Ikus-entzunezko sektorearen industri-bokazioa
- Kultur industrien institutu katalana

AMATIÑO



Sentsazio bat besterik ez da izango, beharbada, baina ne-  
guak bete-bete harrapatu gaituelako —nahiz eta udabe-  
rriaren atarian egon— edo milurteko berri bat estreinatu  
dugulako, edo auskalo zergatik, badirudi 2001. honen ha-  
siera iazkoaren amaiera baino makalagoa datorkigula, kul-  
turari bagagozkio behintzat. Eta panorama erabat beltz eta  
ilun bihurtzeko, «Del Burgo boys»-ak etorri zaizkigu, ezja-  
kinaren ezjakintasunez bazterrak goitik behera nahastera.

Historiaren beste edozein unetan —eta batez ere bes-  
te edozein tokitan— gertatu balitz, genozidio hitza hitzet-  
tik hortzera ibiliko litzateke euren burua kultura mundu-  
ko kidetzat dutenen artean eta zeresanik ez politikan arit-  
zen direnen artean, edota giza zientzietan aritu eta adi-  
tuak omen direnen artean. Nafarroako Diputazioak eus-  
kararen kontra abian jarritako ehizak izango du historian  
aurrekaririk, dudarik gabe, baina XXI. mendean bere bu-  
rua zibilizatutzat daukan gizarte batean gertatzea onarte-  
zina da, edonondik begiratuta ere, eta ez da besoak gurut-  
zatuta gelditzeko modukoa.

Bada gure artean bizitzaren eta bizimoduaren nola-  
baiteko kontzeptu fatalista bat, eta tarteka elurra egiten  
digun moduan onartzen ditugu hainbat erabaki. Esate ba-  
terako, Nafarroako Diputazioak bere administrazioaren  
eremuan euskara nola erabili arautzen duen dekretua;  
edo dekretu hori bera gauzatzeko egitasmoa. Baina eraba-  
ki horiek ez dira meteorologikoak, ez dago zertan onartu,  
eta ez dira gainera onartu behar. Beharrezkoa da —derri-  
gorrezkoa— intsumisioa. Ez bakarrik gure eskubide lin-  
guistiko pertsonalak zanpatu nahi dizkigutelako; gure gu-  
rasoen memoriari lotsatu gabe begiratu nahi badiogu eta  
gure seme-alaben aurrean geure buruaren jabe garela era-  
kutsi nahi badugu behintzat, ez dago beste itenbiderik.  
Edo bestela esanda: oraindik ere nor bagara, nor izaten ja-  
rraitu nahi dugulako, eta jarraitu behar dugulako. Baina  
egoera, alde batera zein bestera begiratu, kezkarria da.

## Karrera meteorikoa

Telefonoz ezagutu nuen Miguel Sanz Sesma, gaur egun Nafarroako Gobernuaren lehendakari, nik lehenengo aldiz hots egin nionean Nafarroako Kutxa Ruralaren sukurtsal bateko zuzendari. UPNko kritikoen artean zegoen orduan, eta Juan Cruz Alliren itzalpean egin zuen karrera alderdi barruan. Bere sortem den Corella inguruetan, Azkoienen eta baita Errioxa aldean ere (Alfaro inguruetan batez ere) pertsona atseginaren fama zuen orduan Sanzek, eta ziurrenik baita gaur ere. Iruñeko aristokrazia eskuindarrarentzat, berriz, Erriberak eman ohi dituen pertsonaia sinpatiko eta «asilbestratu» horietako bat zen, Tutera inguruan alderdia sendotzeko balio zezakeena, sozialisten indarra oraindik ere zabala zen eskualdean, ez oso konplexua eta, nolabait esateko, Iruñeko jauregi eta egoitza ofizialetatik ongi «telezuzendu» zitekeena.

1991.ean Juan Cruz Allik buru eginik UPNk Nafarroako Diputazioaren areto ederrak berriro ere eskuratu zituen —ia zortzi urtez alfonbra haien gainean bisitari moduan ibili ondoren—, Miguel Sanzek ordura arte inork lortu gabeko boterea kontzentratu zuen bere eskuetan. Memoriaz ari naiz, baina Diputazioko lehendakariorde izateaz gain, Ingurugiro, Etxebizitza eta Lurralde Antolaketa sailak bere esku gelditu ziren, eta baita Justizia eta Barne saila ere. Eta hori gutxi irudituta edo, Lehendakaritza departamentua ere bere esku utzi zuen Juan Cruz Allik, hau da, Nafarroako administrazioaren antolaketa eta bere funtzionarioen kontrola.

Urte korapilatsuak izan ziren haiek Nafarroan, Iruñeko aristokrazia eskuindarrak erabateko sorpresaz hartu baitzuen ustez bere kide zen bat —Alli Aranguren jauna— Nafarroaren «izaerak» onar zezakeena baino ilustratuagoa suertatzea. Eta Allik diputazioaren lehendakaritza eta UPNkoa utzi eta CDN sortu arteko bakerik ez zen izan. Alliren «Sancho Panza» —figura literario unibertsal bat erabiltzearen— Miguel Sanz bera zen; bere ezkutari fide-la, lan zikinak egiteko prest zegoena eta bere esku utzitako boterearen eraginez, alderdi barruko borroka botitzean

oreka nolabait Alliren eremura eraman zezakeena. Baina Cervantesen Sancho Panzak ere gobernadore izateko grina baru-barruan zuen —nahiz eta gero ez gustatu— eta gauza berdina gertatzen zitzaion garai hartan Sanz Sesmari ere. Eta eskuineko eskuarekin denbora luzez bere jaun eta jabea zerbitzatzen zuen bitartean, konplexua ez izanik ere benetako animalia politikoa dela erakutsiz, bere superbibentzia politikoa bermatuko zion sarea osatzea lortu zuen Sanzek ezkerreko eskuarekin. Bibliak berak dio: ez dezala jakin eskuinekoak ezkerreko eskua zertan ari den. Pertsona bakar baten esku botere gehiegi uztearen arriskuak.

Baina sasianalisi psikologiko hauetaz haratago, garai hartakoa da Miguel Sanzek eta Allik elkarrekin prestatutako administrazioan euskara erabiltzeko lehen dekretua (eskuindarrek egindako lehena, alegia). Eta Sanzek sutsu eta gogotik defendatu zuen. Orain auzitan dagoenarekin zerikusi gutxi zuen, euskararentzat askoz ere onuragarriagoa baitzen. Eta jendaurrean defendatzeaz gain, UPN barruan dekretu hark astindutako hautsak baretzen ez zuen lan gehiegirik egin Sanzek. Dekretua berea zen —ia erabat berea— eta ez zegoen prest amore emateko, ezta alderdi barruan ia ospitalera bidali behar izan zuten Jesús Aizpun berak eskatuta ere.

Historia mamitsua da hortik aurrerakoa, baina garai hartako kronika politikoa ez baino euskararen kontrako erasoez ari naiz. Eta gauza batzuk argi gelditu dira eraso hauen nondik norakoak aztertzean, azaletik besterik ez bada ere. Lehenengoa, Miguel Sanz ez baino beste batzuk direla euskararen erasoaren atzean daudenak, euren burua ezkutuagoan gordetzea gustatzen zaienak asko, eta banitatearen banitateaz jotako Jaime Ignacio Del Burgo jauna, Nafarroako Diputazioaren lehendakari izandakoa, eta hainbat partidu sortu, nahastu eta deuseztu ondoren, gaur egun UPNko kidea, eta azkenaldi honetan Madrilgo agintarien aurrean merituak metatzen saiatzen ari dena —ikusiko dugu zerbaitetarako balio dioten—.

Baina arazo osoa Del Burgo ren gan personalizatzea gehiegizkoa da: Nafarroako antieuskaldunak herrialde osoko erakunde eta giza-sareetan barreiatu rik daude; ko-

munikabide indartsuenak euren esku dituzte; hezkuntza sistemaren zati handi bat ere bai, eta poliki-poliki, asmoak ezkutatu gabe, inolako konplexurik gabe, demokraziaren eta zuzenbide estatuaren arrazoietan makurturik jo eta su egitea erabaki dute. Eta arrazoia bakarra da: gorrotoa, jasanenezko gorrotoa euskal kulturari eta kultura horren seinale garbien eta ondare garrantzitsuena den euskarari.

## Fatalismoa

**B**aina horren guztiaren aurrean, nahiz eta azken asteotan Nafarroako Gobernuaren asmoen kontrako iritzi eta adierazpen asko entzun eta irakurri, nolabaiteko fatalismo bat nagusitu da Euskal Herrian, baita Nafarroan ere. «Eskuindarrak dira, euskararen kontrakoak... beraz, normala da euskararen kontra egitea». Arrazonamendu horri esker atara ahal izan ditu aurrera UPNk, hein batean behintzat, hainbat neurri. «UPNkoak dira, fatxak dira... zer beste espero zitekeen!».

A rrazonamendua faltsua dela konturatzeko ez dago urrutira joan beharrik. Eskuindarrak ere badira euskararen aldekoak —lehen orain baino gehiago, egia esan— eta euskararen kontra daudela egia izanik ere, onartezina da gaur egun jarrera hori. Bai ikuspuntu politikotik, pertsonaren eskubideak urratzen direlako, bai kulturaletik, ondare kulturalaren kontrako erasorik onartu ez daitekeelako, eta baita soziologikotik ere, euskararen kontrako diskurtso tinkoari ezin zaiolako jendaurrean eutsi. Beraz, derrigorrezkoa da, neke arrastorik gabe, UPNren eraso horri aurre egitea, eta ez besoak gurutzatuta gelditzea. XXI. mendean egotea aprobetxatu beharra daukagu, eta gaur egun nazioartean bizi den koiunturak ematen dizkigun abantailak ere erabili beharra dago. Feudalismoa historiatik kanpo gelditu da, eta nahiz eta jauntxo batzuk ez onartu eta sistema gogoko izan, gainerakoek argi izan behar dute ideia hori. Edo kontzeptua errazagoa egiteko: «gaizki ikusia» dago, esklabutzaaren legeztatzea eskatzairen parekoa da, eta sakon erabili daitekeen arma da hori.

Baina UPNn ere ez da amaitzen arazoa. Nafarroako Alderdi Sozialistak, Juan José Lizarbe buru duenetik, eta PSNtik baino UPNtik gertuago dabilen Víctor Manuel Arbeloa eta Aurelio Arteta bezalako ustezko intelektualen eskutik, sekulako sarraskiak egin ditu euskararen kontra, eta kasu honetan ez du balio eskuindarrak direla esatea —ezkertiartzat jotzen du bere burua NASEk— edota euskararen kontrako grina berezkoa dutela pentsatzea. Arazo sakona da benetan Nafarroako sozialistena, baina hizkuntzari dagokionez, alderdiko militante asko borrokatu dira —hauek ere lehen orain baino gehiago— euskararen alde, eta José Luis Castejón Parlatuaren presidenteari kasua adibide bat besterik ez da. Nafar sozialisten oposizio lana ezerezean dagoela jakiteak ere ez du argitzen zergatik gaur egungo jarrera euskararen aurrean. Alderdi sozialista da uneotan UPNren sostengu nagusia euskararen kontrako borrokan, eta banan-banan eta alderdi gisa sozialistek duten ardura ere seinalatzen hasteko ordua bada. Eta UPNren mende egotearen arrazoi sakonak ikertzen eta ozenki esaten hastekoa ere bai, edota mendetasun honetan *Diario de Navarra*-k zerikusirik ba ote duen aztertzen.

ETAren indarkeriak arazo honen guztiaren gain izan dezakeen eragina mahai gainean behin eta berriro jarri dela ere egia da, Nafarroako egoera gainera ez bada ere ezagutzen duen edonorentzat. Dударik gabe, euskararen kontrako azken eraso organizatu hau ETAren ekintza bortitzak aspaldian ez bezala pilatzen ari direnean gertatu da. Datu objektiboa da hori. Eta litekeena da antieuskaldunen estrategiek ere datu hori oso kontuan hartu izana eraso jaurtikitzerakoan. Baina horrek ere ezin gaitu fatalismoa eraman. ETak armak utzi arteko epealdi batean itxarotea proposatzen dutenak ere fatalismoan erortzen ari dira —nork daki noiz arte arituko den ETA?— eta azken batean, erasoaren atzean daudenek elikatzen duten ideia berbera mantentzea da emaitza: alegia indarkeriak eta euskarak badutela nolabaiteko harremanik. Eta ez nago ni behintzat ideia hori onartzeko prest: euskarak indarkeriarekin duen harremana Espiritu Santuak eta euskarak duten berbera da; edota euskarak eta alkoholismoak, edo



euskarak eta medikuntzak; edota euskarak eta informatikak. Ez gutxiago, baina ez gehiago.

Euskalgintzan aritu direnei, eta euskararen aldean lanean aritu direnei, behin baino gehiagotan esan zaie autokritikaren ordua ere badela. Zerbaitengatik ausartzen dela orain Nafarroako Gobernua neurri hauek hartzera, eta lehenago ez. Esan gabe, baina esan nahian, euskalgintzan aritu direnen errua ere badela Nafarroako gizartea, une honetan, iskanbila handiegirik gabe eraso hauek onartzeko prest egotea, eta bide batez euskalgintza eta indarkeriaren arteko nolabaiteko loturaren tesia indartu nahian. Baina ez da egia Nafarroako gizartea erasoaren aurrean indiferente agertu denik, eta berehala ikusiko dugu, esate baterako, nola doazen aurtengo eskoletako aurrematrikulazioak. Eta egiaren zati bat izan daiteke euskalgintzan aritu direnek guztia ez dutela ongi egin, inork ez du hori ukatzen. Dudarik gabe, gauzak askoz hobeto egin zitezkeen, eta egin daitezke. Eta euskararen defentsaren itzalpean beste zenbait gauza lortu nahian dabilenik eta ibili denik badela ere ez dut ukatuko, gaztelania hutsez aberchaleta-sunerako deia zabaldu duenik, esate baterako. Baina hala ere, eta autokritikaren orduak guztiak izanik, ezin zaizkio ordu guztiak autokritikari eskaini parekoak arnasa hartzeko betarik ere ematen ez duen unean. Autokritikaz autokritika, eta egoera nola baretu edo kontrako tenperatura nola jaitsi aztertzen dihardugun bitartean, erabat itoko gaituztelako.

## **Tresna politikoak**

**H**orrek baino lezio bat ere ikas daiteke Nafarroako Gobernuaren jokabidea eredu hartuz: Miguel Sanz Sesmak eta Rafael Gurra Indurainek —biak dira dekretuaren sinatzaileak— argi erakutsi dute neurri politikoak eraginkorrak izan daitezkeela hizkuntza kontuetan. Euskarak atzera egin duen bakoitzean, gizartearen mugimendu natural edo hautu kulturalak ez baino erabaki politikoak izan dira benetako eragileak, eta kasu honetan ere tresnarik

eraginkorrenetakoa erabiltzen jakin dute «Del Burgo's boys» hauek. Ez dago jada euskaraz idatzitako kartelik Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako zuzendaritzan; hainbat eta hainbat inprimaki gaztelania hutsez eginak daude dagoeneko; euskararen presentziak galdu du dagoeneko hainbeste kostatako eremuaren zati bat behintzat.

Neurri politikoez, edo bestela esanda, politikoez hartutako neurri exekutiboek duten balioak kontrako bidea egiteko ere balio du, ordea; alegia euskarak aurrera egin dezan. Eta baieztapen hau edozein administraziotan da baliagarria, nola Nafarroan hala Euskal Autonomia Erki-degoan. Hartu egin behar dira, ordea, neurri horiek, eta hartzeko aukera dagoenean hartu, gainera. Eta une hone-tan gogoratzea batzuei beharbada gustu txarrekoa irudi-tuko bazaie ere, ez da ahazteko modukoa Euskararen Le-gea —legea, ez dekretua— hobera aldatzeko izan zen au-kerak bakarrik alferrik galdu zutela maximalismoetan galdu eta nahastutako hainbat euskaltzalek. Hain juxtu, euren botoekin legea aldatzeko modua izanik, urte batzuetarako behintzat aukera hura erabat zapuztu zutenek.

Derrigorrezkoa da une honetan erantzun serio eta adimentsu bat aurkitu eta martxan jartzea. Erantzun poli-tikoa, kulturala, mediatikoa eta herritarra. Euskararen al-deko lobby indartsu bat osatuz, erakunde eta ordezkari politikoa presionatzeko lan eraginkorra egingo duena. Eta horrekin batera, Nafarroan hain eroso bizi diren hain-bat eta hainbat erakunde eta elkarte —eta Nafarroako Kutxan pentsatzen ari naiz batik bat— hausnarketara bultzatuko dituen hainbat neurri hartzeko gauza: hamar mila bezero eta hamar mila bezeroren diruak bat-batean galtzea ez da gustuko platera izango Sanz Sesma bera bu-ru duen kuxarentzat. Eta kalean egin daitezkeen adieraz-pen edo manifestazioez gain, ekintza konkretu eta zehat-zak bultzatzen jakingo duena (euskaldunik ez, esate bate-rako, inprimaki elebidunak edo euskaraz soilik egindako-ak eskatuko ez dituenik); euskarak indarkeriarekin zeriku-sia baduela esaten dutenak argumenturik gabe utziko di-tuen lobby bat; mediatikoki tinko eta zorrotz lan egingo duen lobby bat; ekimen judizialak aurrera atera ahal izan-

go dituen lobby bat; eraso guztien aurrean aho batez eta segundorik galdu gabe erantzungo duen lobby bat; eta herritarrak euren hizkuntzaren aldeko apustuan buru-bellarri eta ilusioz murgiltzea lortuko duen lobby bat. Ez naiz oso zalea, baina lobby hau osatu ahal izateko ia derrihorrezkoa iruditzen zait alderdi politiko eta kultur eragile handien inguruan mamitzea lehen urratsa. Herritarrak, Korrikak berriro erakutsiko duen bezala, prest daude ongi egituraturako mugimendu bat sostengatzeko. Egoera larria da, eta erantzunak ere ez-ohizkoa izan behar du. Nola esan bestela gure buruaren jabe garela? Nola begiratu seme-alabei lotsatu gabe? Nola defendatu pertsonak eta herritarrak garela?¶



## **Katea, geroz eta estuagoa**

**H**urbildu ere, Zabaltzeneraino hurbildu zaizkigu, eta ezagutzen ditugu, hurbiltzen hasita, ez dira eskubideen kontu hutsalengatik atean gelditzen direnetakoak. Hala ere, indar mediatiko hori barik erraz lor zitzaketen hogeï paperen bila joan eta kamera aitzin dozenaka agiri eroan beharra zegoen, filtrazioak egin, susmoak piztu eta garrok izeki, sorgin ehiza geldi egon ez dadin.

*Egin*-en itxieratik —lehenxeagotik agian?— ez ote dugu errutina hartu, amorrurik handienez jausita ere? Eman dezakegun erantzuna —zeinen ahula den prentsaurrekoko salaketa irudia, leku itxurosoan, ondo jantzita, pankarta barik, beste ezeren itxuririk leukakeena urrundu guran, polizi saldoak sortu duen aurreiritziaren aurrean— ohiko ez eze, sorgin ehizaren izenpetzaileek aurreikusitako eta lasai asko jasagarria da, eta ez dakit itxaropen handiegiz ezartzen ote zaizkien egindako kalteen ordainak eskatzeko urte pare baten buruan egingo diren auziak.

Kazetaren batetik bota zuten oraintsu, eta neronek ere idatzi izan dut, merkatu librearen Europan iparra galdu barik ibili eta jo genezakeela atzera ere Bidasoaz bestaldera, bidenabar euskalgintza Donostia inguruko kongestioa arinduz, bien mesede (hau da, euskalgintzaren eta Donostiaren alde). Ez dakit bidea den, baina bai irudimena falta dela erasoari erantzuteko orduan. Erasoak irudimena biktima aukeratzeko bakarrik daukan era berean, baina alde ederra batetik bestera: erasoak min egiten du eta erantzuna bere ahulean itotzen da, ia ondoriorik gabe (orain arte). Eta hurrengo nondik joko duten kiniela ankerregia da.

## **Poesia, antzerkiaren bidean**

**I**rribartsu joan ei ziren editore gehienak Durangoko azokatik. Ez dakit zenbakiak benetan horren onak irten diren

—denentzat, antza denez—, ala Madril aldetik datorren erasoari aurre egiteko aspaldion hartu den era: elkarri indarra eman, bildu eta aurrera egiteko oihua. Ohi denez, bietatik zerbait egongo da.

Baina salmenten eta balizko irakurleen gorakadan, eleberri mardulek alde handiz irabazi dute. Lan ederrak idatziagatik, liburuak etxean non sartu ere ez daukagunontzat mesede gutxi seiehun orrialdetik gorako liburu-kote horiek. Irakurleriaren erantzuna bikaina izan da ordea, eta lehenagotik arrakasta zeukaten beste zenbait egileren lan *arinagoak* ere onik irten dira Durangoko plazatik. Itxuraz, aspaldion nagusitu denaren konstatazioa baino ez da.

Alabaina, arriskutsua ere bada merkatuaren lege horietara makurtzea. Antzerkiak —antzezlanek, taularatzeek alegia— aspaldiko indar handiena lortu duenean, basamortuko ibilaldi luzearen ostean, literaturatik independentzia lortu behar izan du, bide propioa garatu. Antzerki liburuak desagertu egin baitira, urte ro dauden lehiaketa biak salbu. Ez da editoreen erru hutsa: antzerki munduan dabilzanak aspertu ere egin dira testuak nork idatziko dituen aldarrikatzen. Naziotasuna eta lurraldetasuna hitzetik hortzera dauzkagun sasoiari, behingoz Iparrera begiratzea eta zer ikasia asko dagoela, Hegoaldekoa betiko legez esportatu ordez, nabarmen tradizio oparagotik edan duten idazle bikain horiei ikastea ezinezkoa da azken urteetan. Merkatuaren legeen izenean, antzerkia hil zaigu liburugintzan.

Eta merkatuaren gorabeherei adi, poesia antzeko bi-deari lotu zaiola ematen du. Eta arduratzekoa da. Susa argitaletxearen Poesia Kaierak salbu, zenbat liburu argitaratu dira? Areago, aipatu argitaletxea, zenbaitentzat, bihurtuko behar ez lukeen poesiaren erreferente ia bakar bihurtu da. Eta *ia* Pamiela eta Ereinek egiten dute. Gure lehen lanean konfiantza ipintzea askok eskertu behar badugu ere, hori inoren bizkar uztea eta eleberri mardulak besteek ateratzea ez da oso zuzena, edo?

Salbuespenak? Eleberri mardulen egileak poesia libururik idatziz gero, lekuren bat egin beharko zaio argitalet-

xeen ohiko bildumatan, osterantzean esku artean daukan eleberria beste norbaitekin aterako du-eta... Horren hari-  
ra, desagertu da poesia itzulpena: tarteka Joseba Sario-  
nandiak ekartzen digu bere egile maiteren bat, Pamielak  
erronka jasotzen du baina hortik aurrera gutxi, oso gutxi.  
Seamus Heaney, Wislawa Szymborska edo Rainer Maria  
Rilke irakurtzeko euren ama-hizkuntzara edo frantses-es-  
painierazko itzulpenetara jo beharko dugu betiko, antza  
denez.

## **Formatu txikiaren (zuzenekoaren) gorakada**

**G**enero handien ondoan irakurleria murriztagoa dauka-  
tenek agertutako egoera negargarri horren bestaldean, zu-  
zenekoak hartu duen indarra aipatu beharrekoa da. Ant-  
zerkiarekin batean, ikus-entzunezkoaren garrantziak era-  
ginda-edo, formatu txikiak, errezitaldiek, hibridoek, argi  
puntu ederra egin dute euskal kulturaren zeru grisean.

Berrikuntzaz jantzirik datorrenak zaharra berri dakar  
funtsean. Noiztik ote dabilta erdaldunak Bilboko Boule-  
var tabernan erdarazko literatur tertuliak eta irakurraldiak  
egiten astero? Urtearekin batera, xumeago hasi dira eus-  
karaz ere Zazpi Kaleetako Kalderapekon (Perro kalea).  
Ideia bikaina eta itxuraz erraza, antolakuntzari hutsean  
dagokionean. Irudia nagusi den sasoiotan inkomunika-  
zioa izan ohi dugu-eta sarri kalte, lehenago ahoz aho egi-  
ten zen hori gaur indar handiagoz ekin behar dela, afixak  
han-hemenka ipiniz, hedabideetara joz eta abar.

Oraingoz baina, jazzarekin batera lotu dituzten ira-  
kurraldiek erantzun bikaina izan dute. Egia da kutsu ur-  
banoa daukala kontuak eta alde batetik errazagoa dela hi-  
rian arrakasta izatea, euskaldun kopuru handiagoa biltzen  
baita, baina konkurrentzia ere handiagoa da, astean zehar  
kultur eskaintza ere zabalagoa izan ohi da-eta. Horregatik,  
herrietarako oso egokiak izan daitezke —eta izan dira—  
horrelako formatu txikietan egindako ekimenak, ipuin  
kontalariak, poema irakurraldiak. Bere hutsean, edo mu-  
sikaz, irudiez, bidez zein bertan marrazten diharduten

komikilariekin... hibridoen sasoia ere bada, eta poesiari mesede egin dio, bestela hurbiltzen ez zen jendea eroaten baitu horrelako irakurraldietara. Inork esan lezake poesia-ri lekua kendu eta, ez dagokion musikak lagunduz gero adibidez, indargabetu egiten duela mamia, baina guztiz kontrakoa ere egin dezake. Hori guztia aurretik prestatu-takoak konponduko du. Egia da poesia entzule guztiak ez direla irakurle izango, baina den-denari helburua jarri beharra ere! Bere hutsean plazerra sortuz gero, ausardiaz jokatatu behar da. Eta badaude horretan guztian giltzarri izan diren udalak, sarea sortu eta gure lurreko geografian kultur bizitzan pizgarri ederra ipini dutenak. Herri txikienean mesede, gainera, handietan zelan edo halan, gorabeherekin, beti bizirik baitago kultur eskaintza, baina epe luzez kultur ekitaldi gutxi batzuk dituen herri horretan hogeitatu bat lagun biltzea askoz aberasgarriago gerta daiteke.

## **Euroaren atarian**

**M**ende eta milurteko eta kontu guztietara, bizirik heldu zaigu hizkuntza. Ez bizi-bizirik —*bixi-bixi* alegia— baina beste mintzaira asko baino osasuntsuago bai, hori, bere horietan, ezeren kontsolagarri ez bada ere. Literaturari bagozkio, historiako unerik oparoenean heldu garela ematen du. Guk gura adina izan ala ez, argi dago gaurko liburu, idazle eta baita irakurle kopurua ere, euskarak inoiz izan duen handiena dela. Baina horien guztien kalitatea —hirurena— zelangoa da? Gauza duin askoak egiten dira gure herrian. Eta inguruko erdaren konkurrentziaz ahaztuta oraindik gehiago, hala iruditzen zait. Hau da, gure txikitasunaren jabe izanda, horrexerri berari lortuta atarramendua.

Idazlearen ikuspuntutik, egon daitezkeen arazo askoren artean, euroaren frogarena interesgarria iruditzen zait. Hara: badira hogeita hamar urte Gabriel Arestik Bilbotik Bilbora idatzi zuela, eta behar izan den eremuetan sartzea lortu du, unibertsitatetik administraziora... baina liburu artera itxuroso-edo bildu delarik, ez ote du kalea

galdu? Oraintsu agertu den ardura da euskararen kalitatearena, diglosiak eragindako kontuena, eta bizirik egon badagoen arren, ez duela sortzen ia hitz berririk. Bizirik baina antzu dagoela, alegia.

Koka ezazu eleberria Bilbon, Barakaldon edo Baionako portuan. Jakina, New Orleansen edo Soweton egiten baduzu, arazo gutxi, ezjakintasunetik abian irudimenari ateak zabaltzea aski da. Baina irudimenaren ateak errealtatearen mugetan zabaldu gura badituzu, zer gertatzen da? Idazle —edo gidoilari, edo zinema-zuzendari— espainiar, frantses edo estatubatuarrak ez dauka arazorik ministroaren alaba lumpen gorrira jaitsiarazi eta istorioa sinegarri egiteko, baldin horretarako abildadea badauka. Areago, gizarteko zati horietako hizkerak berezita, istorioa ederto jantzi eta aberastu dezake. Baina gurean ez dago lumpen horren hizkerarik, zero, ez da erreala Bilbon edo Baionan —gehienez, Azpeitian edo Lekeition izan liteke. Eta ez da euskaldunik ez dagoelako eremuotan, sano gutxi izan arren, ez ahaztu Bilbo, Donostiaren atzetik, kopuruan euskaldun gehien daukan udalerrria dela. Baina orero har, erabilera ia hutsaren parekoa da, eta egoera informaletan darabilgunean, erdarak guztiz kutsatutako euskara da, *euskañola* gura baduzue. Ez dago hitanorik, ez dago berba eta esakera jatorrik, baina bizia da, erdarak bizi-arazitako euskara.

Ez dut inondik ere literaturarako hizkera hori hartu behar denik esango. Hala ere, idatzian ez baina ikus-entzunezko hedabideetan tarteka hartzen den bidea da, bizi-tasunaren eta komunikazioaren izenean. Egurra ematen diogu baina arrakasta dauka. Zailtasunen konstatazioa baino ez nuen egin gura, hizkuntzarekiko zuzentasunak eta errealtatearekiko fidelitateak zelan elkar jotzen duten adierazi.

Horregatik euroaren frogaren garrantzia. Urtebete barru sartuko zaigu moneta berria Euskal Herri osoan. Hegoaldean behintzat, urteak dira —nik dakidala— ez dugu la berba berririk sortu diru kontutan. Gogoan dut Sarriandiaren espetxeko gutun batean *talego* zer zen esaten zuela, hau da, kartzelaz beraz gain, mila pezeta zirela. Ha-



mabost urte beranduago, gazte hizkeran gura baduzue, baina lumpenetik igo egin den berba da. Eta berdin *guita*, *lagarto*, *libra*... euskaraz berriz, sos eta hogerlekoekin gabiltza, txakur txiki barik. Horren harira euroaren frogia, euskararen miseriez jabetzeko.

Euroak ekarriko dituen abantailetan diru beltzaren kontua egongo da poliziaren mesedetan, egutegiko orriak aurrera baitoaz zuritu behar dutenentzat. Gu ere erdaren parean lotuko gara *tabula rasa* eginda, hutsetik hasiko gara. Horregatik interesgarria da batek zenbat denbora behar duen bere berbak sortzeko eta ea euskarak bereak lortzen dituen, ala Hegoan espainolei eta Iparrean frantsesei *mailegu* hartuko dizkiegun. Interes garestiko maileguak, inondik ere, aspaldion hartzen gabiltzanak, egiazkotasunaren mesedetan. ¶



## Galiziako egoera soziolinguistikoa ikergai

Luzia Domínguez Seco filologo eta soziolinguista galiziarak joan zen urteko irailean doktorego tesirako aurkeztu zuen *Las ideologías lingüísticas en Galicia como índice de la diferencia social* izeneko ikerketa, A Coruña Unibertsitatean.

Ikerlan honen helburuetariko bat hizkuntzaren eta gizarte inguruaren arteko harremanak arakatzean zetzan. Galizian ofizialak diren hizkuntza biak, galegoa eta gaztelania, hain zuzen, gizartean berdintsuak ote diren enpirikoki aztertu nahi zen, ezetz zioen hipotesitik abiatuta; hau da, galegoa menpeko egoeran dagoelakotik abiatuta. Xede horrekin *Mapa Sociolingüístico Galego*-ren informazio estatistikoa izan du kontuan egileak, batetik; eta, bestetik, gazteek osatutako talde batean jardun zuen urte luze batez, *ikerketa parte-hartzaile* izeneko metodologiaren bidez euren diskurtsoa aztertzen.

Ondorioetan, abiapuntu zuen hipotesia frogatutzat eman du, ezinbestez: galegoa menpeko egoeran dago erabilera aldetik nahiz Galizian nagusia den ideologia mailan. Halere, hizkuntz ideologiei dagokienez, duela urte gutxi pentsaezina zen funtzio mota bat atxikitzen zaio galegoari gaur egun: erabilerarako hizkuntz *normalizat* jotzea. Dena dela, agerian gelditzen da ere gaztelania normalizatuagoa dagoela bai gertutik aztertu zen taldean baita gizarteko beste sektore batzuetan ere.

Erabilerari begira, datu estatistikoek haxe zioten: goi-mailako estatus sozioekonomiko eta kulturala duten pertsonen artean galegoa gutxiago erabiltzen da, erabilera horrek herri xehean babesa aurkitzen duen bitartean. Horrez gain, aipagarria da ere erabilerak gazteen artean duen gainbehera.

Bestalde, gertakizun berri bat agertzen da; hau da, lehen hizkuntza galegoa dutenek topatzen duten ezustea:

euren betiko dialektoa gizartean estandarra eta legitimoa ez izatea.

Beraz, elebitasun orekaturik ez dago Galizian eta, egi-  
learen ustetan, hori ulergarria da: hizkuntz errepresioa  
eteteak ez dakar ezinbestez zapaldua izan den hizkuntza-  
ren normalkuntza; ez, bederen, gizarte mekanismoak al-  
datzen ez diren heinean; bestela esanda, hizkuntza gutxi-  
tuaren hiztunek jasaten duten gizarte bazterketa gaindit-  
zen ez den bitartean. Sakoneko aldaketa soziala bultzatu  
behar da; horren ezean, elebitasun ofiziala dela medio us-  
tez sortzen den berdintasuna, faltsua da, eta ofizialtasun  
honen dagoeneko errotua dagoen hizkuntz desoreka are a-  
gotzen du.

Galizian kale-mailan nagusitzen den hizkuntz jarrera  
galegoaren aldekoa bada ere, praktikan batzuek ez dute  
hizkuntza hori erabiltzen; eta zaila omen da portaera ho-  
rri eusten diotela errekonoziti dezatela. Izan ere, horien ar-  
teko askok galegoarekiko atxikimendua adierazi eta gale-  
goaren legitimitatea aldarrikatzen dute. Halere, gaztelania  
erabiltzen dutela onartzen dutenen artean, jokaera horre-  
tarako aipatzen dituzten arrazoiak segidako hauek dira:  
komunikatzeko ez dutela horren premiarik, eta gaztelania  
erabiltzean tirabirarik ez dela sortzen.

Paradoxa baten aurrean daude Galizian: galegoak de-  
bekua jasaten zuen garaian gehiago erabiltzen zen gaur  
egun ofiziala izanik baino. Joera horrek irauenez gero, dio  
Luzia Domínguezek, urte batzuen buruan gaztelaniak ga-  
legoa ordezkatzeko du. Izan ere, hartutako neurriak ez dio-  
te arazoari era egokian aurre egiten; planta egitekoak  
omen dira; agintari batzuen burua zurriztekoak. Errotika-  
ko neurriak aldarrikatzen ditu egileak.

Egilearen azkeneko kezka: soziolinguistikan jardute-  
ko laguntza gutxi dago, eta planteamendu soziolinguisti-  
koak ez dira aski ezagunak, ezta nahikoa landuak. Luziak  
bere kezka laburtzen du esanez, galegoaren normalkuntza  
erantzukizun publikoak dituen inork ez diola arazoari  
serio eusten.

Idea eta kezka hauek ez ote dute Euskal Herriko egoe-  
ra hainbat puntutan islatzen?

## **Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara**

Izen horrekin argitaratu berria den ikerlan soziolinguistiko hau Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlari batzuek, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntza Normalizaziorako Zerbitzuko zuzendaritzak eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak beren gain hartutako lana da.

Aipatutako azterlanaren bidez hizkuntz egoeraren diagnostikoa eta jarraipena osatzeko bidea zegoen, aurretik ere aztertu baitzen euskararen egoera —16 urte eta gorakoen arteko pertsonengan— *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta-1996* izeneko azterketan burututako lanen bitartez.

Oraingo honetan, 13-14 urteko gaztetxo edo nerabeak arakatu dira, eta horiengana hurbiltzeko estrategiaren atzean bazegoen hipotesi bat, hain zuzen: gazte hauen hizkuntz identitatea ezagutzeak eta ulertzeak etorkizunean izango dugun gizartearen hizkuntz kezkak eta nahiak sumatzen lagunduko dutela. Beraz, gaztetxoaren errealitateara hurbiltzea etorkizuna aurreikusteko bideak irekitzea dela esan daiteke.

Hurbilpen kuantitatiboa eta kualitatiboa, biak, erabili dira ikerketa honetan. Metodologia horietatik abiatuta, hiru informazio mota bilduz: eztabaida taldeak (Iparraldean ez ezik), inkesta eta idazlanak (eduki-azterketa burutzeari begira).

Ikerlan honen emaitzak lau zatitan aurkezten dira. Lehen zatian, metodologia kualitatiboaren ildotik, Jone Miren Hernández Garcíak hizkuntz identitateen azterketari ekin dio, identitate bakoitzean hizkuntz ezberdineko jarrera eta diskurtsoaz gain, euskararekiko jokaera bat aurki zitekeela pentsatuz. Identitate bakoitzak, beraz, gazte tipologia bat definitu du, eta bertan, maila orokorrean bada ere, gazte mota horri dagozkion hainbat ezaugarri, izaera eta diskurtso azaldu dira. Tipologia horiek Hegoaldeko euskal gazteen argazkia eta hizkuntz errealitatea deskribatzeko orduan lagungarriak izan dira. Ondorio orokor hauek EAEn eta Nafarroan burututako eztabaida-taldee-

tan jasotako informazioa era bateratuan aztertzetik atera dira. Ondorio horien azalpena egin eta gero, lurralde ba-koitzari (Nafarroari eta EAeri) dagokion azterketa zehatza ere egin da.

Bigarren zatian, abiapuntu metodologiko kuantitati-boatari oinarrituta, inkesta baten bidez bildu den informazioa ustiatu eta aztertu du Kontxesi Berrio-Otxoak —bi azpiataletan, Nekane Larrañagak lagunduta—. Ahalegin horien ondorioz, hizkuntzen (euskara eta erdararen —gaztelania, Hego Euskal Herrian eta frantsesa, Iparraldean—) transmisio, gaitasun zein erabilieraren argazki zehatza gauzatu da; baita euskararekiko interes eta hizkuntz hautape-nari buruzkoa ere. Hizkuntzen egoeraren bilakaera ezagut-zeko asmoz, aurretik buruturiko azterlanekiko alderaketari ekin dio ere Berrio-Otxoak.

Nekane Larrañagak landu du hirugarren zatia, inkes-ten bidez bildutako idazlanak abiapuntutzat hartuta. Gaz-tetxoek duten euskararekiko interesa eta neska-mutil ho-riek euskara/erdarari atxikitzen dieten erabilgarritasunari buruzko erantzunak jaso dira, egindako bi galdera ireki-ren bidez; hau da, galdera itxiek ezartzen duten zurrunta-sunetik urrun, bizi izandakoaren arabera, gaztetxoei bu-rura era askean datorkiena. Horrela, gaztetxoek gehien ai-patzen dituzten hitzak eta berauek euskararekin duten lo-tura kontuan hartuta, gaztetxoen hizkuntzekiko barne mundua aztertu da.

Azkenik, aurreko zatietan landu den informazio guz-tiaren irakurketatik abiatuz, azterlanaren laugarren zatian Euskal Herriko lurralde eta gizartearen hizkuntz egoerari buruzko hausnarketa dator. Bertan, gaztetxoen hizkuntz ibilbideak lantzen dira, batetik, eta, bestetik, informazio zehatzaren gainean egindako gogoetak biltzen dira, beste lan eta egileen ekarpenak eta ikuspuntuak ere kontuan hartuta.

Bilduma anitz eta aberats horrek era ezberdinetako irakurketak ahalbidetzen ditu: zabalak zein puntualak, nolakotasuna ala zenbatekoa bilatzen dituen, erreferent-zia enpiriko zehatzak nahiz gogoetaren hegaletan babes-ten direnak. Aukera zabalak, beraz.

## Hizkuntzaren Soziologia V. Euskal Soziologia Kongresuan

Bilbon, martxoaren 1etik 3ra bitartean, Euskal Soziologia Elkarteak antolatutako Kongresua egin zen; soziologiaren ikergune desberdinak oinarritzat hartuz, 13 lantalde osatu ziren. Horien artean Hizkuntzaren Soziologiarena zegoen, lantalde honen koordinatzaileak Nekane Larrañaga (UPNA-NUP) eta Ane Larrinaga (UPV-EHU) irakasleak izanik.

Guztira 15 komunikazio proposamen jaso ziren eta, aurkezpenari begira, ondoko multzotan banatu ziren:

1. Gizarte eleanitzak aztertzeko proposamen metodologiko eta epistemologikoak gizarte zientzien arloan.

2. Hizkuntz normalkuntzaren prozesu eta determinatzaileak I: hizkuntzaren transmisioa, ezagutza eta erabilerak; hizkuntz jarrerak; hizkuntz kodeen erabilerak; hizkuntz politikari buruzko eztabaida publikoa.

3. Hizkuntz normalkuntzaren prozesu eta determinatzaileak II: interbentzio estrategiak erakundeetan eta hezkuntzan.

4. Gutxitutako hizkuntz komunitateak prozesu globalen menpe: globalizazioa, kultur eta hizkuntz ukipeak, hiritartasunaren eraikuntza.


Hizlari eta entzuleen artean soziolinguistikaren ezagutza diren izen asko zegoen, baina aurpegi gazteak eta berriak ere ikus zitezkeen. Horietako gehienak, irakasleak eta Euskal Herriko Unibertsitatekoak ziren, nahiz eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Mondragon Unibertsitateko partaideak eta bestelako ikerlariak ere bazeuden.

Zientzi espezialitateak kontuan hartuta, oso ordezkaritza zabala bildu zen; hona hemen bildutakoen jatorri akademikoa: Soziologia, Filologia, Gizarte Psikologia, Filosofia eta Hezkuntza, Humanitate eta Hezkuntza, Gizarte Zientzien Didaktika, Antropologia, Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia eta Zientzia Politikoa.

Bistan da soziolinguistikaren ikuspuntu anitzak unibertsitatean pixkanaka ari direla hartzen duela urte batzuk ematen ez zitzaien lekua. Hortik letorkioke euskalgintzari

premiatzkoa zaion bultzada zientifiko lagungarria. Hala

bedi!¶



## Informazio-Gizartea, argitu beharreko sektorea

Etxean Internet-lotura duten hiritarren ehunekoa bikoiztu baino gehiago egin da Hegoaldean 2000 urtean zehar. Azken datuek zertxobait baretu dituzte sektore barruan ahopeka egiten ziren euskal Administrazio Publikoaren aurkako kritikak, Informazio-Gizartearen baitan mugitzen diren zenbait interes beldur baitziren euskal merkatua ez ote zen espainiar *ranking*-ean atzean geratzen ari. Izan ere, besterik iruditu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko datuak benetan kezkarriak ziren azken hiruzpalau urteotan. Hona, lehen sei autonomien bilakaera 1997tik hona:

### Internet-erabiltzaileen ehunekoak autonomiaka\*

	1997	1998	1999	2000
Katalunia	4,80	8,20	11,50	18,60
Errioxa	4,00	5,00	7,20	17,30
Madril	3,90	5,70	9,70	16,30
EAE	2,50	4,50	6,50	14,00
Nafarroa	4,00	5,50	5,60	13,80
Balearrak	4,30	5,20	6,60	13,70

\* EGM. Internet-audientzia, 2000ko urria-azaroa.

Ehunekook ez dira segurutik erabat zehatzak baina bai, beharbada, honezkero indartzen ari diren joeren adierazgarri. Hasieran esan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan behintzat bazen hainbat kezka, GAIA (Euskal Herriko Elektronika eta Informazio-Teknologien Industrien Elkarte), Robotiker eta IKEIren artean sortutako *Gizartel* Informazio-Gizartearen Behatokiaren inguruko jendeak ez baitzuen ulertzen euskal industri-datu makrorik gehienak benetan puntakoak ziren bitartean, etorkizunari begira hain garrantzitsua izango omen den Internet-erabilpena nola zitekeen horren urria.



## Konekta Zaitez

Giro honetan, iazko azaroaren 27tik aurrera Eusko Jaurlaritzak *Konekta Zaitez* deritzan programa kaleratu zuen, hurrengo bi urteetan 200.000 ordenagailuren erosketa sustatu eta Internet-loturaren kopurua bikoiztu ahal izateko. Jakina denez, programak 160.000 pezetatik gorako ekipoa erostea eskatzen du, zeinetatik Administrazioak 25.000 pezetako dirulaguntza ematen duen eta hainbat aurrezkik eta banketxek 20.000 pezetako kreditua eskaini.

Programa ([www.konektazaitez.net](http://www.konektazaitez.net)) guztiz erakargarria suertatu da, lehen bi hilabeteetan (azaroaren 27tik urtarrilaren 24ra bitartean) 15.981 ordenadore saldu baitira, %48,5 Bizkaian, %34,2 Gipuzkoan eta %17,1 Araban. Saltzaileek jakinarazi dutenez, programa indarrean jarri denez, ehunetik ehun gehitu omen da ordenagailuen salmenta, bikoiztu alegia. Hala ere, honek ez du esan nahi parke informatikoa neurri berean bikoiztu denik, erosleen %60 bakarrik baitira bezero berriak, gainerako %40 aukera honetaz baliatu dira-eta ordenagailu zaharra aldatzeko. Eroslerik gehienak, berriz, gazte samarrak omen dira, 20 urtetik 40ra bitartekoak, hau da, ikasle-jendea eta guraso gazteak.

Oraintsu arte 40.000 inguru Internet-lotura omen zeuden Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Azken bi hilabeteetan Internet eta guztiko ia 16.000 ordenagailu saldu direnez, garbi dago izugarri asko gehitu dela lotura-kopurua, nahiz eta ordenagailua berritu dutenen artean hainbatek lehendanik ere Internet jarria izan.

Dena den, *Konekta Zaitez* programa EGMren azken audientzi-neurketaren ondoren kaleratu zenez gero, martxoan jakingo da nabarmen asko bere lehen eragina zertan mamitzen den, abendu-urtarrileko audientzia argitaratzen denean hain zuzen ere.

## Burdin asko eta plan gutxi

Gertatua gertatu, nekez ukatuko du inork *Konekta Zaitez* ekintzak merkatuan lortu duen harrera ona eta, seguru

gero, Informazio-Gizartearen arrakasta hardwarearen zabalikundean oinarritzen dutenek zertaz kezatu gutxi izango dutela. Honek ez du esangura, hala ere, programak hainbat kritika zorrotz jaso ez duenik.

Kritikarik adierazgarrienetako bat Zuzen de la Cuevak sareratu zuen abenduaren 30ean Foro Bilbao deritzan eztabaidagunean. Beronen ustez, *Konekta Zaitetz* sasijakintsuren baten gauerdiko argi-izpiñoa besterik ez da, egin behar ez denaren adibiderik onena, Administrazioaren noraezaren seinale, etxegintzan teilatutik hasi nahi eta ezinaren lekuko. Bere hitzak aipatuko baditugu: «Ejemplo claro de la falta que hace un tanque de pensamiento es el despropósito de *Konekta Zaitetz* y el despilfarro de 5.000 kilos para renovar hardware y favorecer al sector de venta de hierros con el dinero de todos».

Zuzen de la Cuevaren ustez, Administrazioak ez luke horrelako ekimenik indarrean jarri behar sektorearekin hitz egin gabe eta, tresneria erruz zabaltzen hasi aurretik, lehenik eta behin hiritargoa neoalfabetatzen ahalegindu beharko luke. Are gehiago, ezertan hasi aurretik, Administrazioak diru-baliabide eta bitartekotza horiek «Euskadi digitalizatzeko plan estrategiko» bat lantzeko eta egituratzeko erabili beharko omen lituzke.

Segurutik Zuzen de la Cuevak arrazoi osoaren parte handi baten zati dexentea du baina ez erabateko arrazoia. Gutxi zein asko, Administrazioak beste hainbat partida ere badu, komunikabideetan *Konekta Zaitetz* bezainbat aipatu ez diren arren. Horra, esate baterako, 9.000 milioi hezkuntza-egitasmotarako eta 1.200 milioi 20.000 laguni Internet-ikastaroak eskaintzeko, 100.000 milioira iritsi arteko bestelako programak aipatzeko. Honen guztiaren atzealdean pertsonak, sektoreak eta ekimenak daude. Beharbada ez daude diren guztiak, baina dauden guztietarik inork ez du bere burua sektorekoa ez denik uste.

Egia da, bestalde, Administrazioak benetako arazoak dituela «sektorea» zein den jakiteko edota euren burua sektorearen ordezkariatzat aurkezten dutenen artean alea eta lastoa bereizteko. Euskal enpresa-munduan garbi dago zein den eskopetagina, non lantzen den automozioa eta

nor den erreminta-makinaren ordezkaria. Ez dago, ordea, horren argi non hasten diren eta non amaitzen Informazio-Gizartearen enpresak, ekintzak eta ekimenak. Baina, zalantzarik ez gero, argitu beharko.

## **CIDAT**

Zer gerta ere, multinazional indartsuek zein frankotiratzaile bakartiek osotzen duten sektore berri honetan ez da mugimendurik falta. Besteak beste, Euskaltel eta Ibermaticaren artean sortu berria da CIDAT (Compañía de Innovación y Desarrollo de Aplicaciones Telemáticas). Bi enpresa horiek euren indarrak bildu zituzten duela bi urte Canal21.com Internet-pegora erditu ahal izateko eta sinergia haien fruitu dugu CIDAT.

Enpresa hau aipagarri da, orain dela sei hilabete sortua izan arren 70 langile baititu dagoeneko eta beste 50 kontratatzeko asmotan 2001 urtean zehar. Iaz 400 milioi pezeta fakturatu zituen eta aurten 1.500 milioira iristeko aurrekontua. Datorren urtetik aurrera etekin garbiak lortzea itxaro du.

CIDATEk Interneteko aholkularitza, zerbitzuak eta edukiak eskaintzen ditu. Merkataritza elektronikoa (B2B) etorkizunean izango duen garrantziaz jabetu da eta aurrea hartu nahi dio hurrengo urteetan izango den eskabideari. Euskaltelen eta Ibermaticaren eskutik aitzindari da euskal merkatuan eta honezkero dexente ondo kokatua Espainia zein Frantziakoetan.

## **Ikus-entzunezko sektorearen industri-bokazioa**

Informazio-Gizartea gorpuzten ari den honetan, telematika arloa ez ezik ikus-entzunezkoen sektore «tradizionala» ere erabateko jautzia egiten ari da, isil-isilean eta ia us-tekabeen ari baldin bada ere. EITBren bame-paperetan zein bere zuzendarien jendaurreko mezuetan gero eta gutxiago aipatzen da kultura hitza eta gero eta gehiago,

aldiz, industri-sena aldarrikatu, eta beste horrenbeste sumatzen da dagoeneko EITBren inguruan mugitzen diren zenbait ekoiztetxetan ere. Izan ere, gaur egungo ekoizpe-  
naren konplexutasun, aniztasun eta teknifikazioak zeri-  
kusi gutxi du orain dela hogeitau urte eskas sortu ziren ENG  
ekipo eta «artista» jendearekin.

Ikus-entzunezko sektoreak kulturatik industriadant-  
zako zubigintza egin beharra 1986 urtean planteatu zen  
lehen aldikoz serio samar euskal munduan. Hamar urte  
geroago, teoriatik praktikarako ibia Pausokak eragin zuen  
*Goenkale*-ren apustuari ekin zionean eta aldaketa honen  
isla ofiziala azken Gabonak aurretik izan zen Donostiako  
Kursaal Jauregian, SPRIk (Industria Birmoldatzeko Era-  
kunde Publikoa) «Sormena eta Industria: Etorkizuneko te-  
lebista» eratu eta sektoreko ordezkariarik gehienak elkarre-  
kin azterlanean biltzea lortu zuenean... lehen aldiz.

Gaur egun ez dago ganorazko inor euskal ikus-entzu-  
nezkoen arloan bere bokazio industrialak ageri-agerian al-  
darrikatzen ez duenik eta aldaketa honen ezaugarriarik na-  
barmenenetakoa Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolak ja-  
so duen AENOR kalitate ziurtagiria dugu. Zorionak.

Bitartean, Irusoin ekoiztetxeak instalazio berriak inau-  
guratu ditu Donostiako Zuatzu Enpresa Parkean. Berrogei  
langile, ia 500 milioi inguruko fakturazioa eta *Karramarro*  
*Uhartea* bezalako filme arrakastatsua zinema komertziale-  
tan.

Ez da izango Irusoin Zuatzu Enpresa Parke berrian  
kokatuko den ikus-entzunezko industria bakarra. Lerro  
hauek kaleratu aurretik bertan izango da REC deritzan bi-  
koiztetxea ere, zinema eta iragarki merkaturako teknolo-  
gia digitala eta punta-puntako dolby sistema estreinako  
jarriko dituenak.

Aldi berean, honezkero badira Euskal Herrian erreali-  
tate birtuala lantzen ari diren enpresak, hiru dimentsioko  
katalogo industrial interaktiboak egiteko garapenak es-  
kaintzen dituztenak eta ohiko kontsoletan ez ezik, sarean  
eta auzoko lagunarekin zein munduan zeharreko beste  
edonorekin, jolasean egin ahal izateko moduko bideo-jo-  
koak.


## **Kultur industriren institutu katalana**

**B**itartean, Kataluniako Parlamentuak sortu berri du ICIC (Kultur Industriren Institutu Katalana) delako erakundea. Erabakia aurreko abenduaren 21ean hartu zuen, Convergència i Unió, Partit Popular eta Esquerra Republicana alderdien onarpenaz eta Partit dels Socialistes-Ciutadans del Canvi eta Iniciativa per Catalunya-Verds taldeen kontrakoaz.

ICIC erakunde hau Jordi Vilajona Kultura kontseilariaren egitasmorik behinena omen da, ez baita alferrik berau Kataluniako Irrati-telebistaren zuzendari ohia. Institutu honek orain arte Generalitatearen hainbat kontseilaritzaren artean sakabanaturik zeuden industria kulturalak kudeatuko ditu, teknologia berriek erakartzen diharduten aldaketei aurre egin eta arlo honetako enpresa tradizionalak birmoldatzen lagundu, ikus-entzunezkoak batez ere.

Lehen urtean 1.725 milioiko aurrekontua izango du, orain arte Kultura kontseilaritzak maneiatu duena eta, horrez gainera, 8.000 milioiko kreditua, «ikus-entzunezko sektorearen kapitalizaziorik eza» gainditzeko.

Sozialisten eta Iniciativakoen ustetan, egitasmoa erabat urria da, ez die ikus-entzunezko sektorearen egiazko erronkei erantzungo eta sortze beretik botere politikoaren menpekoegi jaiotzen da.¶



**JAKiN**

Tolosa hiribidea, 103-1.C  
20018 DONOSTIA  
Tel. 943.21.80.92  
Fax. 943.21.82.07  
[jakin@jalgi.com](mailto:jakin@jalgi.com)